

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Berriz



Aurkibidea

Udalerria: Berriz

Sarrera



Berriz Bizkaiko ekialdean dagoen udalerria da, Durangaldean kokatutakoa. Iparraldean Muxika eta Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, ipar-ekialdean Ziortza-Bolibar, hego-mendebaldean Abadiño, hego-ekialdean Elorrio, ekialdean Mallabia eta Zaldibar eta mendebaldean Garai eta Iurreta mugakide ditu. Berriz honako auzoek osatzen dute: Andikoa, Eitua, Murgoitio, Okango, Olakueta, Sallobente eta Sarria.

Argazkia: Txo

- **Biztanleak:** 4.590
- **Euskaldunak:** %54,6

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **59**
- Zintak: **74**
- Pasarteak: **654**
- Transkribatutakoak: **34**
- Audioak: **211**
- Bideoak: **431**

Proiektuak

- Ahaztuen Oroimena
- Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- Berriz 1936 gogoratzen
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Durango 1936
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak
- Lea-Artibaiko ahotsak

Hizlariak

Jesus Agirre Zabala (1933)



Jose Agirre eta Maria Zabalaren semea. Hiru urte eskas zituela hasi zen gerra. 1937an aita fusilatu egin zuten eta amak, hogeita hamar urterekin alargun geratuta, bizimodua aurrera ateratzeko ahalegin handia egin behar izan zuen. Gerra garaiko bizipenez hitz egiteko elkarrizketatu zuten bai [Berriz 1936 Gogoratzen](#) elkartekoek, baita [Durango 1936](#) taldekoek ere.

Emilio Agirrebeitia Lasuen (1917-2014)



Andikoa auzoko "Arnaia" (Arnaga edo Andikoa) baserrikoa. Sei neba-arreba izan ziren. Sei urte ingururekin auzoko eskolan hasi zen. Gero, hamar urte ingururekin Maristetara joan zen, Durangora. Gerra sasoiari trintxerak egiten ibili zen eta Arana Goiri batailoian sartu zen geroago. Santanderren nazionalak harrapatu eta preso egon ostean, frankistekin ibili zen Teruelen. Hiru urte egin zituen etxetik kanpora. Soldadutza amaitu ostean, Bibiano Gaztelurrutia aitaginarrebak zabaldutako forjan hasi zen lanean. 2006an egin zitzaion elkarrizketa, 89 urte zituela, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.



Aurora Agirresakona Olalde (1933)

Andikoa auzoko Agarre baserrikoa. Komentuko eskolan ikasi zuen hamalau urtera arte.

Maria Alberdi Barinaga (1930)

Sallobente-Mendibil auzoko Lariz baserrikoa. Bederatzi neba-arrebatan nagusiena. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an.

Mari Tere Alberdi Olabegoia (1944)

Arkotxan jaio zen, Sallobente auzoan. Bederatzi urte zituela Ganekoetxera joan ziren bizitzera. 12 urte zituela aita hil zitzaion eta ama hiru seme-alaberekin alargun geratu zen. Ganekoetxen zuten tabernan lan egin behar izan zuen umetatik. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an [Antonio Barajuen "Matxin"](#)ekin batera.



Jose Mari Albizuri Urtiaga (1912)

Sallobente auzokoa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko elkarrizketatu zuten 2006an eta "Berriz 1936 gogoratzen " taldekoek ere egin zioten elkarrizketa 2007an.



Hilario Alkorta Guenetxea (1925)

Sarria auzoko "Etxebarri" baserrian jaioa. Ama zen bertakoa; aita, berriz, Garaikoa. Zazpi neba-arreba izan ziren. Dantzaria izandakoa; aitarengandik zetorkien zaletasuna anai-arrebei. [Matilde](#) arrebarekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.



Matilde Alkorta Guenetxea (1929)

Sarria auzoko "Etxebarri" baserrian jaioa. Ama zen bertakoa; aita, berriz, Garaikoa. Zazpi neba-arreba izan ziren. Dantzaria izandakoa; aitarengandik zetorkien zaletasuna anai-arrebei. [Hilario](#) anaiarekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.

Gloria Ansuategi Aldekoa (1918)

Berrizen jaioa. Lekeitiora ezkondu zen. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra sasoiko kontuak jasotzeko.

Rosario Ansuategi Aldekoa (1931)

Lariz auzoko Larizgoiti baserrikoa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, Edurne Ariño eta Juanita Unzuetaekin batera.

Emilio Arana Aiarzaguena (1919-2009)

1919an jaio zen Sallobente-Mendibil auzoko Iturritzaga baserrian, baina urtebetera Okango auzora joan ziren bizitzera. Hamabi neba-arreba izan ziren. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa, 86 urte zituela.

Teresa Aranguren



Belakortu baserrian jaioa. Mojekin ibili zen eskolan hamalau urtera arte. Gaztetxotatik Durangora joaten zen etxeko barazkiak saltzera. Gerra garaian, neska gaztea zen eta gogoan ditu orduko kontu asko. "Berriz 1936 gogoratzen" elkartekoek elkarrizketa egin zioten, gerraren inguruko kontuak jasotzeko.



Mari Argoitia Atxa (1930)

Bolibarren jaioa. Okango auzoko Urretxa baserrira ezkondu zen. [Markos Azpitarte](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.

Edurne Ariño Amesti (1936)

Sallobente-Mendibil auzoko Besoita auzuneko Besoitaorue baserrikoa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, Rosarito Ansuategi eta Juanita Unzuetaekin batera.



Edurne Ariño Loroño (1932)

Andikoa auzokoa. Auzo bereko [Victoria Gorritxategi](#)ekin batera egin zitzaion elkarrizketa 2006an, Berrizko antzinako bizimoduaren eta ohituren inguruko kontuak jasotzeko.



Karmen Arostegi Aiarzaguena (1926-2012)

Olakueta auzoko Abarketeruen etxekoa. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, [Niceta Zabala](#)ekin eta [Tere Garai](#)ekin batera.

Jesus Arrizabalaga



"Ladrilleruenien" jaio zen eta Olakuetan Tokionan bizi izan ziren. 14 urte gaz Soraluzen egon zen lanean gerrako materiala egiten. Gerra bukatu zenean, lana ere bukatu zitzaion eta etxera bueltatu ziren. "Berriz 1936 gogoratzen" elkartekoek elkarrizketa egin zioten, gerrako kontuak jasotzeko. Elkarrizketatzailea bere iloba da.

Placida Azpitarte Egia (1915-2012)



Berrizko Antzua baserrian jaiotakoa da. Aita Antzuakoa bertakoa eta ama Zaldibarko Sagarminkoa zituen. Gerra hasi zenean, Bilbon zegoen neska. Aita preso eraman zuten eta anaia frankistekin ibili behar izan zen soldadu. Baserrian Eibarko hiru familia izan zituzten errefuxiatu. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.



Markos Azpitarte Usaola (1925)

Okango auzoko Urretxa baserrikoa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Dimakoa. [Mari Argoitia](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa, Berrizko antzinako kontuak jasotzeko.

Antonio Barajuen Oregi Matxin (1942-2010)

Andikoa auzoko Sakristanekoa ("Sakristauena") etxean jaioa. Auzoko eskolan ibili zen lehenbizi eta gero Durangon, fraideetan. Berrizko Udaleko zinegotzi izan zen 1979-1983 bitartean, lehen hauteskunde demokratikoen ostean, eta 1984tik 1987ra Berrizko alkate. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, [Mari Tere Alberdi](#) lagunarekin batera.

Rosario Barrainkua (1925)



1925. urtean jaio zen Ametzuan. 14 seme-alabatatik laugarrena izan zen. 10 urteaz umezain hasi behar izan zuen, komentuan jasotzen zituen eskolak alde batera utzita. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Jose Basagutxibeaskoa Angiozar (1929-2013)



Andikoa auzoko Basagutxibeaskoa baserrikoa. Aita zuen bertakoa eta ama auzo bereko Andikoakoa. Zazpi nebarrebatan laugarrena izan zen. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006 inguruan.



Juanita Bastida Bildosola

[Durango 1936 Elkartekoek](#) egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Klaudio Berrizbeitia Arbulu (1934-2018)

Okango auzoko Zabale baserrian jaioa 1934an. Aita Sarriamatzakoa zuen; ama, berriz, Elorrioko San Agustin auzokoa. Okangoko eskolan ibili zen. Tetuanen (Afrikan) egon zen soldadutza egiten hemeretzi hilabetez. Eitua auzoko Hormastegi baserrira ezkondu zen, bertako [Herminia Lazpita](#)rekin. Maite Gerenabarrenak eta herriko zenbait gaztetxok egin zioten elkarrizketa 2004an.



Miren Bilbatua Bilbatua (1922-2018)

Sarria auzoko Errotabarrian jaio zen. Mojen komentuko eskolan ibili zen lehenbizi eta geroago Sarriako eskolan. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an.



Juanita Bilbatua Onaindia (1940)

Eitua auzoko Anporta baserri-errotakoa. Aita zuen bertakoa; ama Amorototik etorria zen. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an.



Iñaki Bravo (1925)

Egizkoaga baserriko semea da aurreko Bravotarrak bezala. Gerra pasa ostean, 1937ko udagoienera hasi zen eskolara Maria Luisa Urkiaga maistragaz. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Maria Ines Etxebarria Urtiaga



Berriztarra. Osaba, Felipe Urtiaga, Berrizko alkatea izan zen, baina fusilatu egin zuten gerra garaian. Osabaren inguruko kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936 Elkartekoek](#).

Enrike Etxeberria Aldazabal (1936)



Aita debarra zuten eta amagaz Eibarrera ezkondu zen. Bizikleta-lantegian egiten zuen behar aitak eta 1935ean Berrizera joan zen familia. Aita heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau. Bere anaia [Fernandogaz](#) batera azaltzen da elkarrizketan.

Fernando Etxeberria Aldazabal (1932)



Aita debarra zuten eta amagaz Eibarrera ezkondu zen. Bizikleta-lantegian egiten zuen behar aitak eta 1935ean Berrizera joan zen familia. Aita heriotza-zigorrera kondenatu zuten. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau. Bere anaia [Enrike](#)gaz batera azaltzen da elkarrizketan.

Tere Garai Larruzea (1930)



Gernikarra izatez. Gazterik joan zen Berrizera, hemezortzi urterekin Pedro Juan tabernan hasi zen lanean eta. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, [Karmen Arostegi](#)rekin eta [Niceta Zabala](#)rekin batera.

Pedro Garro Olano (1911-2009)



1911. urtean jaio zen Murgoitio auzoan (baserria Elorrikoa zen bera jaio zen sasoian). Auzo berera ezkondu zen. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko elkarrizketa egin zioten, 93 urte zituela. "Berriz 1936 gogoratzen" elkartekoek ere hainbat grabazio egin zizkioten, gerrako bizipenak jasotzeko helburuarekin.

Iñaki Gorritxategi Alberdi (1931-2021)



Elizosteko Errotan jaio zen 1931an. Bere ama Bernakoa (Zornotza) zen. Bederatzi neba-arreba izan ziren. Gerra garaian, Eibartik errefuxiatuta etorritako jendea izan zuten. Oso ondo ezagutu zituen gerran bertan gertatutakoak. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zuen eta [Durango 1936](#) Elkartekoek ere egin zioten elkarrizketa.



Victoria Gorritxategi Areitiobiritxinaga (1937)

Andikoa auzokoa. Auzo bereko [Eduarne Ariñorekin](#) batera egin zitzaion elkarrizketa 2006an, Berrizko antzinako bizimoduaren eta ohituren inguruko kontuak jasotzeko.



Luis Gorroño Bilbao (1943)

Miren Intxaurreaga Totorika (1935)

Mallabian jaio zen. Zazpi neba-arreba izan ziren. 1959an Berrizera ezkondu zen. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Tomas Jainaga Iza *Eperra* (1925-2015)



1925ean jaio zen San Juan auzoko Solaburu baserrian. Aitaren moduan, soinujolea zen. Gerrako frontea etxe ondoan izan zuten eta lbarrangelura ihesi joan zen familia abereekin. Orduko kontu asko gogoan zituen "Berriz 1936 gogoratzen" elkartekoek elkarrizketa egin ziotenean.

Juanita

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zuenekoa da grabazio hau.

Kontxa

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zuenekoa da grabazio hau. Grabazio hau gaztelaniaz dago eginda [Nieves](#)egaz batera.

Anttoni Larringan Bastida (1906)

1906. urtean jaio zen Sarria auzoko Sarribeitia ("Beitidxe") baserrian. Bera jaio eta ordu erdira ama hil zitzaion eta aita hiru umerekin geratu zen. Anttonik bi urte zituela, aita berriz ezkondu zen. Mallabira bidali zuten umetan eta Berrizko markesek, Aznar familiak, ordaindu ei zuten bere heziketa. 11-12 urtegaraz Eibarrera joan zen umezain. 17 urterekin etxera itzuli zen eta handik lurretara joan zen neskame. Gerora hainbat tokitan aritu zen lanean Durangon. Bere gazte denborako bizimoduaren eta mitologia eta sineskeren berri ematen du 1980ko hamarkadan egindako grabazio interesgarri honetan. Bere biloba da elkarrizketatzaileetako bat.

Balentin Lasuen Olabegoia (1934-2024)

Sallobente-Mendibil auzoko Batarrita baserrian jaioa. Bederatzi neba-arreba izan ziren, baina zazpi atera ziren aurrera. Txistua eta organoa jotzen ikasi zuen eta herriko eta inguruko ezkontza eta jaietan ibiltzen zen.

Herminia Lazpita Besoitagoena (1935)

Eitua auzoko Hormastegi baserrikoa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Murgoitio auzoko Gomendiourrutia ("Komiñurti") baserrikoa zen. Etxean denda eta taberna-jatetxea izan zuten. Okango auzoko [Klaudio Berrizbeitia](#)arekin ezkondu zen. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa 2006an.

Claudio Lejarreta (1925)



Okango auzoko Ugartezabalan jaio zen. Berrizko udaletxe zaharreko eskolara joan zen don León Garai maisuagaz beste bi eskoletara joan orduko. Gerra garaiko bizipenak oso gogoan ditu. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Rikardo Lejarreta Arginzoniz (1927-2018)

Berrizen jaio zen Rikardo, Olakueta auzoan, "Katxarrerian". Balentin Lejarreta eta Kreszenzia Arginzonizen hiru semeetan gazteena. Gerra hasi zenean bederatzi urte zituen; elkarrizketak egin zitzaizkionean, ondo gogoan zituen Rikardok orduko Berriz eta bertako kontuak. Aita, Balentin, Berrizko uri-epaile orde izateagatik preso sartu zuten Larrinagan. Osaba, Felipe Urtiaga, Berrizen alkate izana, atxilotu eta fusilatu egin zuten 1937ko irailaren 11an Derioko hilerrian. Gerra garaiko kontu horiek jasotzeko egin zioten elkarrizketa [Durango 1936](#) Elkartekoek. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko ere elkarrizketatu zuten 2006an.



Juanita Lejarreta Garro (1920-2017)

1920. urtean jaio zen Okango auzoko Ugartezabalan. Euren jaiotetxea Berrizko herrian egon arren, Zaldibar hurrago zuten. Aita Agustin "Torre" zen eta ama Benita Garro. 13 urte gaz, gerra aurretik, egunero joaten zen Eibarko plazara etxeko gaiak saltzera. Eibarko erreboluzioak bertan harrapatu zuen eta ondo gogoratzen zituen orduko kontuak. Neba zaharrena gerratean zauritu egin zuten eta, haren ondorioz, hil egin zen. Gerra garaian, eibartarrak izan zituzten etxean, errefuxiatuta. 28 urte gaz Eibarrera ezkondu zen. [Berriz 1936 gogoratzen](#) elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko, eta baita [Durango 1936](#) Elkartekoek ere. Azken elkarrizketa horretan, [Gregorio Urionaguena](#) senarrak ere parte hartu zuen.



Juliana Mendizabal Guenetxea (1923)

Berrizen jaio zen 1923an, Olabe baserrian. Angel, aita, Mallabian jaio zen, baina umetan joan zen Berrizera bizitzera; ama, Isabel, berriztarra zen. 7 seme-alaba izan zituzten. Amak panderoa jotzen zuen erromerietan. Juliana Berrizko parrokiara joaten zen eskolara, hantxe zegoen-eta herri-eskola. Gerrako pasadizoak, artean umea bazen ere, ondo gogoan ditu eta gerokoak ere gaur bertan balitz legez etortzen zaizkio gogora. Txomin Lauzirika orominotarrarekin ezkondu eta 1950etik aurrera Ermuan jarri ziren andre-gizonok bizitzen San Antonio inguruan zegoen "Errotabarrin", arto-birrintzen eta gari-irintzen. Gizona tailerrera joaten zen eta berak jarraitu zuen errotaren kargu. Bi alaba izan zituzten. Ermuan ia-ia hirurogeitaka urte bizi arren, bere jatorrizko hizkera berriztarra ez du galdu.





Gregorio Milikua Isundegi (1926)

Bost neba-arrebatatik nagusiena. Aita berriztarra zuen eta ama, ostera, Garaikoa, Lazpitakoa. [Berriz 1936 Gogoratzen](#) Elkartekoek egin zioten elkarrizketa, gerra garaiko kontuak jasotzeko.

Juan Milikua Zengotitabengoa (1927-2013)

Murgoitio auzokoa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an.



Florencia Narbaiza Solozabal

Okango auzoko Uribetxea baserrikoa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa, 85 urte zituela.

Nieves

Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau. Grabazio hau gaztelaniaz dago eginda [Kontxagaz](#) batera.

Imanol Oruemazaga Baseta (1931-2017)



Berrizko eliza ondoko Abadetxean jaio zen, amaren osaba baitzen bertako abadea. Aita Ganekoetxekoa zuen eta ama Axpekoa. Aita Berrizko zinegotzia izan zen Errepublika garaian. Gerra sasoiari preso hartu eta heriotz-zigorra kondenatu zuten; hiru urte eta piku hainbat kartzelatan pasa ostean, bueltatu zen etxera. 1941ean, osaba abadea hil zenean, Abadetxea utzi eta aitaren jaiotetxera joan ziren, baina 1944an Errotabarri errota kokatu zuen bizilekua familiak. 11 urtegaraz Bergarako dominikarrenera joan zen abade-ikasketak egitera. Han urtebete egin ostean, Arteako seminaria joan zen eta handik bi urtera Gasteizko seminaria. Apaiztu zenean, 1955. urtean, Basauriko Bidebietara destinatu zuten, baina denbora gutxi egin zuen, 1956. urtean Ondarroara bidali zuten eta. Ordudanik Ondarroan egin du bere bizimodua, nahiz eta abade beharrak alde batera utzi; hala ere, herrigintzan eta euskararen aldeko lanekin jarraitu du gogotsu, besteak beste, ikastolaren sorreran eta gerraosteko Ondarroako lehen antzerkian parte hartuz. 1969an, 1970ean eta 1971n, hiru alditan preso egondakoa da beste hainbat abaderekin batera Zamorako kartzelan; bertan bizi izandakoen berri ere eman zigun egindako elkarrizketan.

Agustin Otadui Arrasate (1920)



Berrizko Loitxuten jaio zen 1920. urtean. Gero, Arroita baserrira joan ziren. 9 urte gaz, eskola utzi eta Kanpazar baserrira joan zen morroi. Hiru urteren ostean, Angiozarrera (Bergara) joan zen, baina handik hiru hilabetera Soralezera joan zen trintxerak egitera. 9 neba-arreba izan ziren etxean. "Berriz 1936 gogoratzen" elkartekoek elkarrizketa egin zioten, gerrako kontuak jasotzeko.

Bitora Otadui Arrasate (1930)



Loitzate baserrian jaio eta urte gutxira Arroitaonandia baserrira joan zen bizitzera. Gerrarengatik, ihesi joan zen familiarekin eta handik bueltan, Loitzatera itzuli ziren. Neskame egon zen hamairu urtez. Ezkondu eta gero, Brasilen pare bat urtez bizi izan zen, eta Berrizera itzuli zen. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau.

Eduarne Rico Ariño



Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau. [Mari Karmen Rubio](#) gaz batera egin zitzaion elkarrizketa.

Mari Karmen Rubio Areitioaurtena (1930)



Portugaletan jaio zen Eduarne. Gerra Zibilean, bere ama, zaldibartarra, seme-alaba denekin gelditu zen aitak frontera joan behar izan zuelako. Aita bueltatu zen etxera, baina osabak ez zuen zorte bera izan. Jose Ramon Ariñorekin ezkondu zen. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek egindako grabazioan parte hartu zueneko da grabazio hau. [Eduarne Rico](#) gaz batera egin zitzaion elkarrizketa.

Juanita Unzueta Jaio (1930-2014)

Eitua auzoko Abaroetxebarria ("Abaroetxebarri") baserrikoa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an, Rosarito Ansuategi eta Eduarne Ariñorekin batera.

Iñaki Uribe Usabel (1927)

Sallobente-Mendibil auzoko Oka baserrian jaioa. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa.

Jabier Urkijo Juaristi (1932)



Berrizen jaio zen, bost neba-arrebatan gazteena. Aita Arakaldokoa zuen eta ama Elgoibarko San Migelgoa. Aita Bizkaiko miñoietako kabo forala zen, Elgoibar eta Markinatik pasa ostean Berrizera destinatua. Nazionalak Berrizen sartzeaz zeudela amak eta neba-arrebek luze joko zuen ebakuazio bidaia bati ekin zioten. Karrantzara lehenengo. Handik itsasontziz Frantziara eta, ondoren Bartzelonara. Jabierrek ez dauka ahazteko Bartzelonan pasatako gosea eta bizi baldintza eskasak. Jabierren aita atxilotu egin zuten tropak Berrizera sartu zirenean eta 1937an fusilatu egin zuten Derion. Gerrako kontu horiek guztiak jasotzeko, elkarrizketa bana egin zioten Berriz 1936 Gogoratzen elkartekoek eta Ahaztuen Oroimena taldekoek.

Niceta Zabala Zamakona (1937)



Olakueta auzoko Bekoetxekoa. Gerra Zibilean jaio zen, Berrizera sartu baino 10 egun lehenago; hori dela eta, laster irten behar izan zuten etxetik ebakutatuta. Aita Lezamakoa zuen eta ama Kortederrakoa, Galdakao eta Zornotza artekoa. Aita gero preso eroan zuten. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoek gerrako kontuak jasotzeko egin zioten elkarrizketa. Berrizko antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko ere egin zitzaion elkarrizketa bat 2006an, [Karmen Arostegirekin](#) eta [Tere Garairekin](#) batera.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Sarria auzoko Sarribeitia baserrikoa

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:00:27. **Bukatu:** 00:01:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**

Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Sarrikoa da, Andikoatik Garaira bitartean dagoen auzokoa. Bere baserria, Sarribetitia, non dagoen. Inguruko baserri askok dute "Sarri" hasiera.

Transkripzioa

- Zer esan biher naben; zu Andikoakue zara?
- Bai, Sarrikue. Andikoatik Garaidxera dagueen etxe batzuk, Andikoatik Garaidxera [...], hantxe bittarteko Sarrikue.
- Ze basarrikue edo?
- Sarribeitidxe.
- Ez dakit, han erreka ertzien dagueena edo?
- Ez. Handik San Salbadorrera ailegau ezkerro bista-bistan dago. Montor-montorrien. Erreka artien dagueena bajutxuago dago. Eta gurie goi-goixen, holako basarri bat; basarri bat ez, bat, bi, hiru, lau, lau etxe. Lau basarri.
- Andikoara bidien edo? Garaitik Andikoara bidien?
- Ez, bai, hori, Garaittik Andikoara bidien. Montor-montorrien.
- Ha ezagutzen dot, han artatza bat dago inguruan, artiek edo...
- Bai, baiña Sarriidxe, Sarriidxe esaten [da], Sarribeitti, Sarriamatza, Sarriortuzar, Sarriogoti, lau etxe.

1.2. Txerriaren zatirik onenak abadeari, medikuari eta maisuari

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/028
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:38:14. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Andikoa auzoan lau baserriren artean hiltzen zuten txerri bat. Haren solomotxoaren erdia abadearentzat izaten zen. Medikuari eta maisuari ere zatiren bat ematen zitzairen eta geratzen zena lauren artean banatu behar! Hori egin ezean, bekatua izaten zen. Orduan dena zen bekatua eta dena infernua. Beraiek sinistu egiten zuten. Nola aldatu den kontua.

Transkripzioa

-Solomillue, Andikoan gure baserridxetan lauren artien edo hiltten zan txarri bat. Lau basarrik, lehenago, txarri bat hiltten zan, ezta? Haren solomillue, erdidxe behintzet, abadiantzako. Neure nebie goserik itxi, ta abadien solomillue. Ta gero beste zeozer be, medikue edo, egoten zan beste zeozer, ta maisuari be emon biher, ta, azkenerako, txarriidxen gauza onenak harexentzako. Harek, guapo, euzkidxe hartu ta bestiek zelau eitten daben bihera... beinke, orduko gauzak. Eske emoten ez baotsazun, pekatu eitten zendun, ta pekatu ein barik emon ein biher. Ta oin jentie espabilautu dago, e, baiña orduen ez. Orduen dana zan pekatue, ta dana zan inpernue, ta dana zan inpernue. Eta geu be, ba, [susteu]; hango holako lekuten arimak urten dabiena ta beste holako lekuten kadaberiek urten dabena, bestiek urten dabena, ta inpernuko zera ta dana inpernue ta dana inpernue. Ta oin desaparezidu die danak.

-Onerako.

-Oin oingo gaztiek errezoiek dekiez; ez dabe siñesten... ta errazoie Guk, bai, danak! Jesus! Trumoi bat izeten bazan, jangoikuen kastigue! Ta halan edo holan edo hiltten zana... "bai, ba, pekatu mortalien bizi zan ta jangoikuen kastigue".

-Orduen abadiak-eta ondo biziko zien, ba, errespeto gehidxago ta eurek...

-Ba, esaten dotsut, ba! Txarridxe hiltten zan ta haren solomillue abadiantzako, Andikoako abadiantzako, ta maisuentzako, ta medikuentzako. Kendu ixozuz hari hiru zati, zer gelditzen da?

-Eta lauren artien banandu biher.

-Hoixe. Lehenago hoixe zan. Oin jentie... Zoridxonien [...], ostantzien danak gosiek tragauko ginttuzen...

1.3. Abadiñoako Feria berpizten

- **Hizlaria(k):** Gorroño Bilbao, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Mendibil, Gontzal
- **Erref:** BRZ-041/002
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:00:32. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Gerediaga Elkartean ezagutu zuen Bittor 1966an. Pertsona oso berezia zen. Luisek ortugintzan egiten zuen lan. Abadiñoako Feria berpiztu zuten. Miguel Angel Astiz nafarra izan zen horretan aitzindari; La Gaceta del Norte-ko kazetaria. Bittor ere tartean zen.

Transkripzioa

Bitor ezagutu neban nik Gerediaga Elkartean hirurogeta seigarren... osea, mila bederatzirehun eta hirurogeta seian. Eta, bueno, zan personaje oso berezia neretzako orduan, oso berezia. Ni netorren lehenengo sektoretik. Gu... bizi guztian ortugintzan lan egin dogu herrixen. Bueno, bizi guztian oin dala hogeita bost urtera arte. Eta, bueno, hortik, berak be interes haundia euken lehenengo sektoreagaitik, ba, Abadiñoako feria dala ta ez dala ya hartu-emon serioagoak genduzen alkarrekin, zegaitik ze feria hori atzera berpizten hasi giñen. Feria urtero bezela, lehen bezela egiten zan, baiña, bueno, emon nahi zan beste kanbio... osea, gaurkotasun bat... kanbio bat egitea asmatu zan. Horren aitzindari edo aipatzaillia lehenengo zan Miguel Angel Astiz. Nafarra zan bera. Eta "Gaceta del Norte"n idazten eban. Periodistea zan. Eta, bueno, Gerediaga Elkarteko notizia guztiak harek erabiltzen ebazen. Eta harek idea eman zeban, ba, hori feria hori barriztatu egin behar dala. Ta, orduan, ba, nor? Ta ba, Bitor ta bestea ta ni ta... ein gendun elkarte bat hori feria hori gaurkotzeko eta holan ein zan. Ein zian kontaktuak, eskatu zian laguntzak... Orduan "Caja de Ahorros Vizcaína" eta... bueno, ba, "Extensión agraria" eta holako organismoak. Eta, bueno, ba konsegidu zan, ba, feria hori... beste itxura bat emon eta beste zer bat.

2. Familia eta harremanak

2.1. Bera jaiotzean, ama hil; bizimodu pobrea

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:01:46. **Bukatu:** 00:03:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Anttoni jaio eta ordu erdira ama hil egin zen. Anaia nagusia, bera, eta umerik ez zutela izango uste zutelako gurasoek ekarri zuten beste ume bat geratu ziren aitarekin. Anttonik bi urte zituenean, aita berriz ezkondu zen. Bizimodu pobrea izan zuten. Txahalen bat saldutakoan, oinetakoak erosteko dirua izaten zuten. Hamaika urterekin neskame joan zen.

Transkripzioa

- Kontau ia... zuek, ume sasoién ta, zer? Ba, ez dakit ba, olgetan-ta ibiliko zinién ta... ez?

- Asko ez, ume!

- Ez? Biherra orduén, ez?

- Beti biherra. Esango dotsut, hara: neu jaidxo nitzenien, handik ordu erdire nire ama hil zan. Eta aitte geldittu zan, ba, alargun. Eta geldittu gintzezan neure neba nagusidxe, Martzelino, ta neu, ta beste bat, errekogidute euki abiena. Pentsetan abien ez abiela eurek familidxarik eukingo eta ba, [...]. Nik urte bi euki nabezanién, aitte ezkondu zan barrido, beste Larrabetzuko bategaz, ta gure bizimodue izen zan, [... emoten oskuezenién ta] dirurik be ez geunken ta... danak pobriek eta pobriek eta pobriek eta [...]. [Hantxe] bizi izen nintzuan.

- Eta...

- Ezebez! Aitte ta ama be pobriek izen zien ta... Behidxe txahaltxo bat hazi, ta haxe saltzen abienién, ekarten eben hona Durangora, ta haren diruaz abarketa batzuk edo zapata batzuk-eta erosi, ta hantxe bizi, harik eta nere nebie, haunditxuaué izen zanién, harek be eitten eban biherra, kanteretan ta baserrixetan ta kridxau ta ibiltzen zan, ta haren dirutxuaz, bizi. Hamaika urtegaz nik urten neban kridxada, ta holantxe bizi.

2.2. Aznar familiak ordaindu zuen bere heziketa

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/011
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:14:37. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Bera jaio eta minutu gutxira ama hil egin zen. Amamak oilo txabola eta ortua zeuzkan eta perrexila saltzera joaten zen

Berrizera. Aznar familia aberatsak Mallabira bideratu zuen Anttoni eta bere heziketa ordaindu zuten. Etxera itzuli zenean, aita berriz ezkontuta zegoen eta beste mutikotxo bat zuten.

Transkripzioa

-Zuk amamarik eta aittitterik eta ezautu dozu?

-Bai... amama ezautu neban, ta bastante denporan, nere amen ama. Nere ama hil zan neu jaidxo ta miñutu batzutara. Baiña amamak euki eban honakoxe oilo-txabolatxo bat, ez dakizu? Eta holakoxe txabolatxo bat, euki eban, eta hauxe sala hau lakoxe, zeozer handitxuago edo, ortutxo bat. Eta perejila eukitten eban han, zerien. Eta perejila batu, eta txortatxuek egin eta jueten zan Berrizera, perejila saltzen. Ta Berrizen, ba, medikuek eta, Aznarrena... Aznar oin ez dakit bizi dan... baiña Aznar...

-Hori ezauna egitten jat. Medikue, ezta?

-Medikue ez, Don Jose Luis zan medikue. Baiña Aznarrenak bizi zien han, aberatsak. "La marquesa de Berriz"?

-A!

-Bai...

-Haren etxie dotoriena, harek ezautu...

-Harek hazi nindduen ni... harek bieldu nindduen Mallabire, zelan ama barik geratu nitzen jaidxo ta segiduen, ta harek pagau ninduen haztie Mallabidxen, [basarriren baten]. Eta, gero, ba, etorri nitzenien, handi ekarri nindduenien, aitte ezkontute egon zan ta mutiko bat euki abien, [nausidxe], euki abien mutiko bat eta...

3. Lanbideak

3.1. Neskame lanetan ibilia; ama ezkongabea

- **Hizlaria(k)**: Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref**: BRZ-007/005
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:03:44. **Bukatu**: 00:05:54
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Lanbideak » Neskameak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Hamaika urterekin lurretara joan zen neskame, Kapanagarenera. Gero handik Madalenara. Ezkongabea izanda, alabatxoa eduki zuen. Bi urtean amaetxean egon zen, umea hazi arte. Gero, Durangoko abadea zen on Jesusek eta haren neskame Bonik hartu zuten etxean. Fabrikan lan egin eta umea hazi behar.

Transkripzioa

-Nun egon ziñen kridxeda?

-Egon nitzen lurretako zubidxen onduen, Kapanaganien. Eta gero Madalengan be bai egon nitzen.

-Zer palazixon baten edo...?

-Ez. Kapanaganera, zera, arotz bat izen zan. Arotza. Baiña ama alargun euki eban ta, hantxe ta hantxe. Gero handik etorri gintzezan ta Madalengan, Madalenako ermittien onduen, hortxe beste urte batzuk. Eta gero, ba,

neskatue izen neban, solteratan, zerien daguena, San Fauston daguena, eta gero orduen ba...

-Hori, zer da Ibanen...

-Ibanen amama, bai. Marialuisa. Gero haregaz egon nitzen, ba, idxe urte bidxen maternidadien, pixkat bera hazi artien, han egon nitzen. Gero etorri nitzen, ha itxi han, ta biherra eta etxie topetan. [...]. Topau neban etxie, ba, lagun batek, hangoxe Sarriko Don Jesus, ezautuko zendun zuk Don Jesus, abadie?

-Durangokue?

-Bai.

-Ez, ez dakit.

-Oindiño ez da... ez da asko, denpora asko, hil dala, Santa Anako abadie, Don Jesus.

-Nik gaztiago bat bai, zelan deko harek izena... Katekesisa-eta emoten abena... Zelan zan ha?

-Don Jesus Santa Anan egon zan ta harek euki eban kridxada bat, Boni izena eukena, Boni, ta beren amak lantxerik zaintzen eban, beran aman moduen. Eta harekek errekogidu nindun etxera eta hantxe hazi neban umie. Biherra ein ta fabrikatik etorri ta eroan umie ospitalera ta gero eberdidxen barrido errekogidu ta...

3.2. Filmeko trenarekin beldurtu zen Eibarko zineman

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/010
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:14:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Hamaika-hamabi urterekin Eibarrera joan zen Berrizko parrokoaren lobatxoa zaintzera. Berak umea zaindu beharrean, umeak zaintzen ei zuen bera. Lehenengo aldiz zinemara joan zenean, pelikulan azaltzen zen trenarekin beldurtuta, zinematik alde egin zuen. Eibarren erakutsi ei zioten bizimoduaren berri. Hamazazpi urtera arte egon zen han. Gero, etxera itzuli eta lurretan egon zen neskame, Kapanagarenean.

Transkripzioa

-Zu zenbat urtera arte egon ziñen Andikoan, bueno, Sarridxen, bizitzen?

-Nik zenbat urte [euko nebazan], ba, hamaika, hamabi edo holakoxen bat. Ni gazterik hasi nitzen, esan dotsut, ba, lehenengo-lehenengo, Berrizko parrokuak euki eban... Berrizko parrokuak euki eban anaidxa bat Eibarren. Eta harek euki abien ume bat. Eta harexe zaintzen eruen nindduen, haraxe, Eibarrera. Eta neuk umie zaindu biherrien, umiek neu zaintzen nindduen. Egun baten, lehenengoz zinera juen gintzezanien, ba, berak esaten [ostan]: "hamentxe aurrien, hamentxe aurrien ikusiko dogu, hamentxe aurrien ikusiko dogu —eta ez nitzen ni sekula zinera juen ta— hamentxe aurrien ikusiko dou, hamentxe aurrien ikusiko dogu". Eta, bueno, ba! Argittu zan tren bat pelikulan, eta neri buruen sartu jatan oso-osuen geuana datorrela...! Itxi umiori bertan eta urten neban kanpora! Ta danak, jente guztidxe... Ta nik ez naben begiratzen nor daguen be! Orduxerarte ez

naben ikusi persona dezenterik eta Andikoako puntan iñor ez! Eta han esaten ostien: "Egon geldi! ez dator zeugana! Ez dator zeugana!". [Eta nik atzera begiratu trenari], eta ene Jangoiko laztana! Kanpora. Ta itxoin notsan mutiko horri zineko atien kanpun. Ta holantxik jun nitzen. Gero ugezabak eta etxeakoandriek eta esplikau ostien. Durangoko... edo Berrizko parrokuen anaidxie bazan eta jente ona be bai, jente zera, eta harek esplikau ostien bizimodue zelan zan, ta, ba, trenak [holako lekuetan urten] ez dabela eitten eta konejuek be urteten dabiela eta ez dakit eta, baiña... ordukoxe bizimodue! Aitzen dozu? Eta mutil horrek erueten ninduen etxera, eta neuk mutikue zaindu biherrien berak zaintzen nindduen neu. Ta horixe bizimoduori. Eta zenbat urte eukiko nebazan? Hamaika-hamabi goidxe jota hara juen nitzenien, eta gehidxago kridxada! han egon nitzen ni, ba, hamazapi urtera artien egon nitzen Eibarren. Eta gero handik etorri nitzen ta etxien, klaro, falta, ez dakit ba nora [...] aitte [...] operaziñue eindde [...] Galdakanon ta... Galdakanon, Basurton edo... zeren baten.Ta, ba, etxie be ganoraz zaintzeko falta eitten nebala eta ekarri nindduen etxera, eta, ba... Gero hasi nitzen hamen, hona etorri nintzen, lurretara, Kapanaganera, lurretako zubi... Oin ha etxie botata dao, han, Etxebarrian [...].

-Ze... zubi? A! Etxebarrian...

-Etxebarrian kaliekin onduen egon zan. Kanpanagana, arotzeridxe euki eban. Eta holantxik. Eta handixik bizimodue aurrera atara.

3.3. Aitak ikatza egiten zuen Oiz mendian

- **Hizlaria(k)**: Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref**: BRZ-007/016
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:18:44. **Bukatu**: 00:19:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrak
- **Laburpena**: Aitak ikatza egiten zuen Oiz mendian, amaordeak han zeuzkan lur sailetan. Haritza zegoen asko. Oiztik Garaira "karretero"ak (gurdizainak) jaisten zuen ikatza, handik Durangora kamioian eraman behar, Astapera orduko... Lan asko eta irabazi gutxi.

Transkripzioa

-Gure aittek eitten eban iketza.

-Bai, e? nun?

-Egur-iketza, han, Oizen.

-Oizen?

-Amaordiek euki aben han basue. Amabirjiñien basue, honenbeste pagetan eban ermandadan. Ba, pagetan eban, Martzeliñok be laguntzen otsen, eta eitten eban iketza, egur-iketza.

-Eta ze arbola dagoz, ba, Oizen? Oin askorik be ez dago...

-Oin... ez dakit. Orduen egongo zien, zeretik,...

-Pague [...]?

-Pague ta haretxa asko. Haretxa be asko. Behintzet eitten abien, hiru bider edo, [esaten abien]. Baiña zer pasetan jakon? Oiztik Garaire karreteruek bajatu biher. Eta Garaittik Durangora kamioien bajatu biher. Eta hamendik Astapera erun orduko [iketzak jan]. Gizajuek bihera eitten eban, baiña [azkenerako iñok jaten otsan eta beti pobre]. Horixe.

3.4. `Takonesia´ren dendan gertatutakoa

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:20:02. **Bukatu:** 00:21:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Durangora neskame joan zenean, etxekoandreak `Takonesia´ren dendara bidali zuen libra bat olio erostera. Berak ez zekien hori gaitzizena zenik eta dendariari berari galdetu zion ea `Takonesia´ren denda zen hura. Zapatilarekin aurrean hartuta, kalera bota zuen.

Transkripzioa

-Lehenengo Durangora etorri nitzenien kridxada, etxekandriek bieldu ninduen `Takonesie´, `Takonesie´n dendie? [...] hori Aiuntamentuko [aurreko...] hori, estankue eukena?

-A! Basoa? Basoakue?

-Ez, ha ez! Hamen zerien, Artekalien, `Takonesie´.

-Estankue?

-Estankue, bai, estankue.

-Lehen ala oin be bai?

-Lehen be `Takonesie´, hori lehen be `Takonesie´ zan, `Takonesie´n dendie. Ta etxekandriek bieldu nindduen. Hori dendie zan. Ta jueteko horraxa ta ekarteko libra bat oridxo —orduen librie esaten zan ta—, ekarteko libra bat oridxo. Ta juen nitzen, ta fijo ez nekidxen zer zan, `Takonesie´ zein zan. Ta sartu nitzen dendara ta esan notsen: “hau da `Takonesie´n dendie?”. Ta itxurie motie zan izena barik, motie. Hartu nindduen zapatilliegaz aurrien, ta kalera.

-Hasarretu eingo zan.

-Motie izen zan ta... Nik jakin izen baneu motie zala, ba, ez [notsen esango], baiña... “Hau da `Takonesie´n dendie?”, “Takonesie?”, ene Jangoiko lastana! Etara niñuen kanpora! Eta holakuek zenbat...!

3.5. Aitak abarkak nola egiten zituen

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/019
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:37:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Neguan etxean egindako galtzerdiak eta gomazko abarkak erabiltzen zituzten. Garai batean aitak etxean egiten zituen larruzko

abarkak. Behia hiltegiara eramaten zuenean, pixka bat ordaindu eta larrua ekartzen zuen etxera. Ganbaran sikatu eta josi. Nola egiten zituen abarkak. Egurrezko oinetakoak ere ezagutu zituen.

Transkripzioa

-Neguen ze zapata klase ebaltzen zenuen? Abarkak?

-Abarkak! Galtzak etxien eundde.

-Baiña abarkak busti, ezta? Euridxegaz eta...

-Ta gero gomazko abarkak! Lehenengo erabiltzen genduzen etxien eunddako zeraaz, narruaaz, Behidxe hiltten zaniene do, ezta?

konparaziñoan, hamen behidxe ekarten eban aittek mataderorantz, ezta? Eta haren narrue, ba, pagau eitten eban zeozer. Ta ha ekarri etxera ta siketu, jositte kamaran, josi, ta siketu, ta gero etxien ein abarkak.

-Eta busti ez, euridxegaz?

-Bai, euridxegaz, bai, busti, busti, bai, baiña, ba...

-Eta holako egurrezko zapatarik sekula ez dozu erabili?

-Bai, zankuluek, txankuluek.

-Eta zer, abarkie bera barruen sartu, ala...?

-Ez, ba, abarkakin ibiltten gintzezaniene, ba, abarkie eitten...

konparaziñoen, eurek eitten... gure aittek eitten eban, esango dotsut ba, hara, konparaziñoen...

-Zelan?

-Hau... hori... hau holan eitten otsen, joskurie, aitzen dozu? Hamen jo, ta hamendik lotu, zinttakin josi, ta eitten otsen joskurie. Ta gero hau be gehitxuago emon ta, ba, emoten otsen honaiño ta hori dana. Gero, hamen, ein zuluuek zeraaz, untze bategaz, apropos eundeko untze bategaz, ta gero, ba, hortik hari zera pasau, ilobalie pasau hortik ta hamendik, ilobalie pasau, ta gero juntau, narruari berari. Sartzen jakon ure, e? Baiña... Gero, gure nebak be [...] Martzeliñoek eta [...] eta horrek gero izen zien horrek, zeroi. Aitte bizi zan artiene haxe. Penie aitte hil zaniene, kitto. Horrek gauzok ahaztu zien. Nebak ez [eukene]... gazterik hasi zien hamen biherriene ta.

4. Ekonomia eta industria

4.1. Hodiak egiten Durangoko lantegi batean

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/006
- **Iraupena:** 0:00:59. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:06:53
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Bizkaiko lantegiak » Durangaldeko lantegiak
- **Laburpena:** Durangoko lantegi batean ibili zen beharrean. Hodiak nola egiten zituzten azaltzen du. Brea ematen zieten eta beltz-beltz bukatzen zuen. Hamar urte egin zituen han.

Transkripzioa

-Ze fabrian ibili ziñene, ba?

-[Alemanenien].

-Zer zan hori? Zer eitten abiene?

-Zerien daguena, han Matadero onduen daguena...
-Oindiño be badago?
- Bai, "tubos aislantes"... puf! "Tubos aislantes"... puf! [...] hauxe baiño baltzao plantau nitzen... Eitten neban biherra, ba, breagaz, ta alkitranagaz, ba, tuboak zulo batetik sartu... Lehenengo papelaaz eitten abiezan tubuek, ez dakizu?
- Papelaz tubuek?
- Bai, papelaaz eitten abiezan, papel senduaaz, ta gero forretan abiezan hojalatiegaz, bertan fabrikan. Baiña papelaaz egin ta forrau orduko, pasau biher izeten zien breagaz eta alkitranaaz, gogortzeko. Ostantzien...
-Apur bat hartzeko, zera...
-Gogortzeko. Eta harekek pintetan. Hamar urtien edo egin naberen biherra han.

5. Ohiturak eta bizimodua

5.1. Eskolara batere ez

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:53. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Eskolara egun baten bakarrik joan zela dio, baina Berrizera joan behar eta ez ei zen iritsi. Gerora Andikoa auzoan egin zuten eskolatxo bat eliza inguruan.

Transkripzioa

-Ta eskolarik-eta eze be ez?
-E?
-Eskolarik eta ez eze be?
-Eskolarik bapez! Egundun baten jun nitzen ta ez nitzen aillegau; handik Berrizera jun orduko...
-Berrizera juten ziñien?
-Berrizera. Ta ez nitzen aillegau egunez ta ba...
-Ta zenbat kilometro, ba, zenbat kostatzen zan ha? Zenbat ordu oiñez?
-Ba, pertsona nagusidzek beren pausuen, ordubete pasautxo.
-Eta zu zelan juten ziñen, astuaaz edo? Oiñez?
-Oiñez! Eta gero Andikoan egin abien eskolie, gero Andikoan egin abien eskola txiki bat, eta, Andikoako elizie, ezautuko dozue zuek...
-Bai, bai.
-Maite eta Jose hantxe ezkondu zien, Andikoan. Egin abien elizatxo bat eta gero eskolie be bai ta, gero beste modu baten.

5.2. Amabirjinak Andikoako eliza gurutze ondoan gura

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/008

- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:50. **Bukatu:** 00:09:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak,
mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Beti ezagutu du eliza Andikoa auzoan. Atzerago gurutze bat zegoen eta esaten zuten Amabirjinak eliza han egitea nahi zuela. Langileek egunez ekarritako harriak gaez hara eramaten ei zituen Amabirjinak. Egun batez Amabirjinak "karretero"ari (gurdizainari) hauxe esan zion: "aida zuridxe, aida gorridxe, horri begire daguen horri atara begidxe"; esaera horrek familia bati nola eragin zion.

Transkripzioa

-Elixie, baiña, lehendik egongo zan han, ez?

-E?

-Elixie lehendik.

-Bai, nik ezautu orduko. Andikoako elixie izeten zan [...] esate abien, han atzeratxuago, gurutze bat, ta Amabirjiñiek gure izen ebalan han egin elixie. Esaten abien zaharrak, gure aittek eta. Eta herridkek gure izen ebalan beheratxuago egin, ointxe daguen lekuen.

-Gertuago egon dedin.

-Bai, beherago. Eta Amabirjiñiek, obreruek egunez ekarten eben harridxe, Amabirjiñiek erueten ebalan harexen kurutzien ondora. Horrek kontuek izengo die horrek, e?

-Bai, baiña...

-Eta egun baten esan eutsela, karreterueri esan eutsela: "aida txuridxe, aida gorridxe, horri begire daguen horri etara begidxe" esan eutsela Amabirjiñiek. Eta gure etxien aldamenien beti egon zan bat begidxe falta ebana.

-Jesus!

-Bai. Beti egon zan begidxe falta ebana. Eta matrimoniñuek euki abien lehenengo... matrimoniñuek euki eban, ba, seme bat bakarra euki abien. Eta egun baten kuman itxi umiori eta, ba, eurek solora juen zien. Esaten abien, e? Solora juen ziela. Eta etorri zienien, umiek begidxen anpolla bat euki ebalan. Eta harexe anpollie zer zan, begidxe galdu jakon mutikueri. Hangoxe etxekuek, esaten [abienak] "aida zuridxe, aida gorridxe, horri begire daguen horri atara begidxe" esan eutsiela Amabirjiñiek. Hori be kontua izengo da, e? Pentsetan dot nik kontua izengo dala. Baiña han etxien beti egon zan tuertue.

5.3. Urteberriko eta Erregenetako kantak

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/023
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:29:56. **Bukatu:** 00:30:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
- **Laburpena:** Gabonetan ere ibiltzen ziren eskean. Urteberri eguneko kanta. Erregenetako kanta.

Transkripzioa

-Eta abendue ta Urtebarridxe ta holakuek be bai?

-Bai, batzen zien. Bai. "Urte barri-barri, deukenak ez deukenari, nik ez dekot eta neri, badekozu emoidazu, ez badekozu, itxixozu, ta emoten ez dabena txarri belarri".

-Ta Erregetan?

-E?

-Erregetan?

-Erregetan be hoixe, atzera be kantau: "Erregen, erregen, kimeletañe, zazpi intxaur ta zortzi gaztaiñe, apalazioko zaldune, hiru erregetan egune, zotzak eta paluek, estudiantien kontuek, estudiantie sasi-sasi, asko jan ta gitxi ikisi". Hoixe!

-Oin be eitten da...

-Bai, baiña oin modernuago, ta beste grazia batekin...

-Soiñuaz eta...

-Bai, baiña lehenago... [...] askotan kirtena edo holako bat [...].

5.4. Amabirjinaren egunean gonbidatuak etxean

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/025
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:33:32. **Bukatu:** 00:34:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Gabonak nahiko polito pasatzen zituzten, txerria edo konejuak hiltzen zituzten eta. Amabirjinaren egunean gonbidatuak izaten ziren baserrietan. Euren amaordea Larrabetzukoa zen eta handik etortzen ziren gonbidatuak eurenera. Zer jateko izaten zen.

Transkripzioa

-Ta Gabonetan ta?

-Ez, Gabonetan politto. Hiltten abien txaridxe edo konejuak edo zeozer.

-Gabonetan?

-Bai.

-Ariñago ez, San Martiñetan edo ez?

-Ez, ez. Ta Amabirjiñien egunien be, [...] auzuek erueten abiezan konbidauek. Ipintten abien baba zuridxe txorizuagaz ta sahieskidxagaz ta ipintten abien. Morzilla batzuk be ein, ta manietan zien. Ze gurien be gure ama, madrastie, Larrabetzukue zan, ta handik etorten zien inbitauek. Etorten zien. Baiña oingo moduen ez! Baba zuridxe, saiheski zatitxo bateaz ta beste oillasko bat edo konejon bat edo hiltten bazan... bazan... baeuen. Ta arrautza tortillie ta eidekue ta aberatsen kontuek! Gehidxen be, arrozkonletxie ein, ta haxe ipini galdarie bete, ta baba zuridxe edo. Garbantzue izeten bazan be, garbantzue lantzien behingo jatekue, erosi eitten zan ta. Lehenago jentie pobre bizi zan, e! jesus!

5.5. Mari Urrika ikusi zuen, suzko buztan eta guzti

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/030
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:41:06. **Bukatu:** 00:43:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Mari Urrikak Oiz menditik Anbotara joan-etorriak egiten zituen udaberrian eta udazkenean. Oiz mendia baino beherago aitarekin iratan zebilela, berak ikusi zuen Mari Urrika pasatzen. Suzko buztan luze bat ei zeukan. Behiak ere beldurtu egin omen ziren.

Transkripzioa

-Maria Urrika...

-Bai, aber, kontau.

-Maria Urrika etorten zan udabarridxen Oizera, ta udaguenien jueten zan Anbotora. Edo aldrebes esan dot? Bueno, ez dakit, hor eitten eban. Eta pasatzen zan.. zer ote zan haxe? Ni sarritten egon naz... ez dakizu, gauza... su bat... luzie... Ta akordetan naz, Oizko mendidxe baiña beheratuago aittaaz, irie ebaten. Irie jakingo dozu... "helecho", irie. Eta gero etxera ekarteko, kargetan. Ta pasau zan, Maria Urrika esaten otsien, holako luze bat, baiña handik atzetik etorri zan ta, hor, Anbotoko puntako hatxera. [...] hor Oizen atzien ezkutau zan. Behidhek be sustaute [ezkutau ein zien].

-Baiña zuk zeuk ikusitte?

-Neuk ikusitte, bai! Sue, sue! Baiña buztan ta guzti! Ta esaten abien Maria Urrika zala! Gehidxago [...], desaparezidu da ha be. Oin ez da ikusten. Nik esaten dot: ha zer ete zan?! Esaten dot, bakarrik egoten nazenien, ohien lorik ein eziñik edo, "lehenagoko gauzak"! Baiña gure jangoikuek! Zelan edo? Ez dakit ba nik! zelan gauzak kanbidxau dien! Ze ha, ha esaten abien udabarridxen hona jueten zala eta udagoienien hara jueten zala. Eta egun baten neuk ikusi nabien, behidhek kargetan, irie kargetan gauzela gurdidxen. Eta sssssssssssss! Eta hantxe, zeran atzien ezkutau zan! Nik gehidxago ez dot ikusi...

5.6. Erreka ondoan gauza zuri bat ikusi zuen gauean

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/031
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:43:02. **Bukatu:** 00:46:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Garai batean sorginak irteten omen ziren. Behin berari gertatu zitzaiona. Lehengusinarene izara sasian utzi zuen, erreka baten ondoan. Gauen gogoratu zen han utzi zuela eta bila joan zenean, gauza zuri bat ikusi zuen erreka ondoan. Gainera, mugitu egin zen. Etxera alde egin zuen korrika eta Amabirjinari laguntza eskatu zion. Zer izan ote zen?

Transkripzioa

-Ta sorgiñen konturik edo?

-Bai! Sorgiñek, sorgiñek... Sorgiñek hamen sarritten [urteten] zien. Sorgiñek urten eitten abien. Urten eitten abien zerien... Egun baten lehengusiñien ixera bat eukin naben erretentxun, [...] erretentxun ure egoten zan, oin desaparezidu da.

-Kanalen bat egoten zan edo holan, ala?

-Bai...

-A! Errekie igual...

-Ha zeretik etortzen zan. Ez dakizu hori... gure semie... zure arrebie bizi dan... ha ure datorrena Tabiratik? Ha baiño beheratxuago euken harek kanal bat, beste zer bat, haxe ure zan hara juten zana.

-Imazena edo holan?

-Imazen-ta baiño beheratxuagotik, handitxik, Imazen presatik euken harek, San Frantziskoko mojen atzetik pasetan zan ha ure. Ta egun baten, ba, ixerie lehengusiñiena itxi naben ta, sasi ganien eskegitte itxi naben. Eta gabien akordau jaten, ogera juen ta gero akordau jaten. Aiba! Ixerie! Neurie balitze, baiña neurie ez da ta, iñona ixerie, ta bidxer goizien zelan entregauko dotsat nik, ta ogetik jagi ta juen nitzen. Ixerie batzen. Izengo zien ordu bata edo ordu bidxek edo. Juen nitzen. Ta nik ez dakit zer izen zan. Nik ez dakit zer izen zan. Hantxe, errekie onduen, egon zan gauza zuri bat. Honako... holakoxe [...] hori baiño handitxuaoko gauza zuri-zuri bat. Ta eskillarak egozan bajatzeko, ez dakit zu akordetan ziñen, eskillarak egozan errekerak bajatzeko. Ta harekek bajatzen hasi nitzen eta mobidu ein zan gauziori, gauza zuridxori. Emon notsan ariñeketiei, ta etorri nitzen etxera —oniño gatzie, zenbat [eukiko...], oingo aldien gatzie—, etorri nitzen etxera, ta Amabirjiñie —hamen gure kajoiien, Amabirjiñie— ta harexi esan notsan: “lagundu idazu, lagundu —arnasarik be hartu ezindde—, lagundu idazu, lagundu idazu”. Ta [...] ta ez neban gehidxago ezer ikusi. Baiña ha gauza zuridxe zer izen zan? Eta mobidu ein zan! [...]

-Zer, holako gauza...?

-Bai, holakoxe modukue... txakurre edo ez dakit zer izen zan. Txakurren antzekue, baiña haunditxuague zan. Ta mobidu ein zan [haraxe] eskillarak bajatzen hasi nitzenien.

-Joño, ez dakit ba...

-Bai, bai. Nik ordutixik aurrera, edo... nik ez dakit, nik ez dakit. Norberak pentsau hantxe daola ta, ba... Ez dakit nik, [gau sua] edo nik ez dakit zer izen zan, baiña neuk ikusi naben [haxe ixerien...] juen, ta bidxamonien juen nitzen goizetik karakoletara [...] zerien, baiña hantxe mobidu zana zer izen ete zan...

-Ez dakit ba.

-Baiña mobidu ein zan. Edo norberak... norberak eruen abezen /erubazen/ nerbidxuekin pentsau igual. Ez dakit zer izen zan.

5.7. Garia bedeinkatzen zuten San Juan su ondoan

- **Hizlaria(k)**: Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref**: BRZ-008/004
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:04:56. **Bukatu**: 00:06:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** Garai batean baserrietan inor ez zen geratzen San Juan sua egin gabe. Zer kantatzen zuten. Garia eramaten zen su ondora, bedeinkatzeko, eta gero erein egiten zen gari hura.

Transkripzioa

-Ta San Juanetan ta, zeozer eitten zenduen? Sue edo...

-Bai, bai, San Juen suek ein barik iñor ez zan gelditzen, iñor be ez, basarri danok. "San Juen San Juen, arrautza bi kolkuen, beste bi altzuen, lapurrek eta sorgiñek erre, erre, artuek eta garidxe gorde, gorde, gure soluen lapurrik be ez, sorgiñik be ez, ezebez!"

-Ta sue.

-Ta sue, [etxien]. Harexen bueltan...

-Soluari bueltie edo?

-Ez, harexen suan bueltan, ba, errezau. San Juenien. Oin ezebez... Oin be eitten da hemen, erretentxunien eitten dabe!

-Bai, oin be eitten da. Eta baserri inguruetan-ta eitten da.

-Basarridxen, leku askotan. Baiña orduen? Ta erueten abien, garidxe, gari [...] bat, artue beteta ta [...] erueten abien su ondora, bedeinkatzeko. Gero erein ha garidxe.

5.8. Erramu egunean gurutzeak egiten zituzten

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/005
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:06:08. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Erramu egunean gurutzeak egiten zituzten erramuarekin eta ereinotzarekin, bedeinkatu eta soroetan jartzeko. Soroak adina makila erabiltzen zituzten. Nola egiten zituzten. Sorginak uxatzeko izaten ziren.

Transkripzioa

-Ta zuek jarten zenduen hor San Juan inguruen eridxontza arraman bat edo, elorridxe edo?

-Bai, zerien... Hori izeten zan eguen santu... eguen santu edo... "día de ramos", erramu egunien. Bai. Eitten genduzen, ba, zenbat solo geunken, haretxen beste kurutzegidxe esaten gontsen; zenbat solo geunken, haretxen beste makilla zuzen, honen tamaiñokuek, makillak.

-Zegaz?

-Zera, eridxontzen zera, kurutzagidxe. Aparteko zerak izen biher abien, aparteko paluek, horrek paluek [...] aparteko paluek, eta zenbat solo geunken, harenbeste palu eitten zan. Bost solo bageunkezan, bost palu. Eta gehidxago bageunkezan, gehidxago. Eta gero hareri, ba, honan zatitxo bat kendu [alde bidxetatik] ta goiko akaberan, goidxen paluen akaberie baiño beheratuago, zeraaz, zintzelaaz ein erraidxa bat, batetik bestera

zulue, ta hantxe sartu palotxo bat, kurutzie eindde. Hareaz paluaaz eitten zan, beste... konparaziñuen, [hau, ezta, zera?] ta hamendik ein zulue ta palutxo bat sartu ta holan kurutzie ein. Ta ipini, lau zulo bazeunkazen, lau edo bost edo, ipini, ta danak lotu, bueltan-bueltan, goidxen ta behien lotu, ta ipini erromerue ta eridxontza goiko puntan, lotute. Ta ha elizara eruen erramu egunien bedeinkatzen. Bedeinkatu ta, ba, holaxe. Harexek ipini gero, sorgiñek juen ez daittezan soluetara. Ta etxera be bai. Etxien be ipintten zan bentanan baten edo zerien. Ta soluen, ba, bakoitzak bere soluen sartu eta hantxe.

5.9. San Juanetan lizarra etxean; bedeinkazioetarako ohitura

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/006
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:10:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
 - Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena:** San Juanetan lizarra jartzen zen etxean, larrosekin eta San Juan loreekin batera. Erramu egunean gurutzeak bedeinkatzera nola joaten ziren mutikoak. Baserrietan behintzat ez zen egongo ohitura hori betetzen ez zuenik.

Transkripzioa

-Ta ez zenduen jartzen, San Juanetan edo holan, leixarra edo elorridxe edo...?

-Leixarra, leixarra, atien onduen. Hamentxe be bai hori ipintten zan.

-Eta zegatik hori?

-Ba... San Juen... San Juen zalako larrosen zera, poderosue. Leixarra, leixarra, hiru-lau larrosagaz, ta San Juen lorak.

-Etxie [...]?

-Bai, hamentxe ipintten genduen. Ta geuk be bai. Geuk be bai ekarritte, zerien, ogien, buruko zerien, sarritten. Eta hamen nik kuartuen [be Jesus] ta danok dekogu hamen, ezta? Ta "Corazón de Jesus" en zerien, ba, ipinitte, holakoxe arramatxo bat, baiña ipinitte. Oin ez. Oin bedeinkaziñorik be ez dago. Horrek danok kendu zien, baiña lehenago horrek danok zien. Erramu egunien, Erramu egunien elizara erueten ez ebana ez zan zerekue, elizakue. Eta mutikuek euren paluek erun ezindde barregarri ibiltten zien, Erramu egunien, elizara. Eta han bedeinkatu ta etorri ta, ba, errepartidu solo bakotxien. Han hartu biher izeten zendun ure, ur bedeinkatue, elizan, hartu biher zan botillan. Ekarrri ta gero [har bota].

-Ta... mundu guztidxe jungo zan.

-E?

- Mundu guztidxe jungo zan.

-Ha eitten ez zan etxerik ez zan egon, basarririk behintzet. Basarri guztidxetan. Basarriko mutiko guztidxek.

5.10. Inauteri ostean, bijilia barikuetan

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/013
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:26:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Inauteriak pasatutakoan, bariku guztietan bijilia egin behar. Lapikoak eta zartaginak sutako hautsarekin garbitzen zituzten, koipe guztia kentzeko. Bijilia egunetan arrautzak eta baba zuriak jaten zituzten. Letxuga beti ezagutu du, baina bero egunetan edo gari-jotzeetan bakarrik jaten zen. Domeketako jatekoa.

Transkripzioa

-Gero karnabala, ta eguen santu... karnabalak, bariku guztidixetan bijilidxie. Lapikuek garbittu ariaaz ondo, paderie ta lapikue eta, ondo garbittu surteko hautsaaz, koipie euki ez deidxen, asteko koipie euki ez deidxen, ta gero, ba, bijilidxe eitteko. Surteko hautsaaz garbittu zartagiñe edo, esnie egoteko edo lapikue egosteko ta, euki ez deidxen koipien trazarik, ta jaboiaaz. Oin ezebe ez...

-Eta zer jaten zenduen bijilidixan, barikuetan zer jaten zenduen? Arraiña ez, ezta? Ala?

-Ez, arrautzak. Arrautzak, ba, bijilidxe zan, ta babie oridxuagaz.

-Zelan, babie oridxuaz?

-Bai.

-Zelan? Baba...

-Ba baba gorridxe edo, ba, jeneralien baba zuridxe. Goizien ipini egosten uraz, ta oridxo pixkat bota, ta berakatza, ta kipulie, ta haxe. Eta egosten zienien, eberdidxen, beste oridxo pixkateaz, berakatz bateaz, bota, ta bezkaridxe.

-Letxugarik-eta ez zenduen jaten?

-Letxugie egoten zan, baiña...

-Bai?

-Letxugie nik pentsetan dot beti ezautu dotela. Baiña oingo moduen ez, e? Orduen, ba, jaten zan bero eguenien ta gari jotietan ta [...] eta...

-Ensaladie...

-Garidxe jaten abienien, ba, orduen egoten zan pixkat jentie hobetotxuago. Gari jote egunien be ze izeten zan? egun txarra.

-Gogorra biherra, e?

-Bai, bai, gogorra. Biherra gogorra ta orduen emoten abien jaten orduen pixkat hobetotxuago. Ta domeka arratsaldietan, ba, txorizotxo bat sartu lapikuari, zenbat lagun haren beste zatitxo ein ta baba zuridxe. Domeka gabien haxe, baba zuridxe, zatitxo bana txorizue, ta baba zuridxe.

5.11. Gabon gauean gordetako ogi zatia ez da hondatzen

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol

- **Erref:** BRZ-008/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:27:49. **Bukatu:** 00:30:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Gabon gaueko ogi zati bat gorde egiten da hurrengo urterako, gurutzea egin ostean, eta ez ei da hondatzen. Berak beti izan du ohitura hori. Gero, berakatz-zopa egiten denean, ogi zati hura ere bota egiten da.

Transkripzioa

-Eta ogidxe, ogi kuskurre gorde eta...

-Bai, neuk be ondiño gordeta deket Gabon egunekue.

-Eta hori zelan da? Guk sekula ez dogu ein etxien ta...

-Bai, ba, hara: Gabon gabien afaitteko hasi biher dozun ogidxe, harexe ein, ta mosue ein ta kuskurre kendu ta gorde. Ta ha ogidxe ez da urdintzen ta alperrik be ez da galtzen.

-Hori esan dostie.

-Bai, oniño nere armaidxuen egongo da Gabonetako ogidxe, kuskurtxo bat. Ta harek, ba, urdindu be ez da eitten ta ez da alperrik galtzen.

-Kuriousue. Eta zer, trapu baten edo...?

-Ez, ez, ez, ezebez. Ein holantxek kurutzie ta kendu kurruskue, ta jaurti ezer ez daguen lekurae. Haraxe bota ta hantxe. Oniño nere armaidxuen egongo da, pentsetan dot, ogidxe, Gabonetatik, igezko Gabonetakue.

-Igezkue?

-E?

-Igezkue?

-Bai, Gabonetatik, igezko [...]. Zegatik gero hori ogidxori eitten dozu berakatz zopie ein ta haraxe bota.

-Ta zer egon biher da, urtebete gordeta, ala edozein momentuen...?

-Nik gordeta eukitten dot ta gero, ba, Gabonak aillegetan dienien...

-Bai, atzera...

-Atzera etara. Kurruskue gordeta. Eta kurruskutxo bat izeten da, e. Nik kurruskutxo bat gordeten dot.

-Honek ez dauko...

-[...] etxien ta bota ta. Gure aittek hori ein barik... errosaridxue errezetan ta Gabon egunien errosaridxue errezau ta haxe kurutzie ein, bazkaitten edo afaitten hasi baiño lehenago, ta ha gorde. Ta ez da urdintzen.

-Ez, e? Kuriosue.

-Siketu bai, baiña oniño, Gabon bezperetan neuk ikusi neban hortxe. Eta beti gordeten dot, e, beti. Horixe kostunbriori ez jata kentzen.

5.12. Lehen otordu guztietan errezoak

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/021
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:40:44. **Bukatu:** 00:42:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Goizean jaiki eta sukaldera joandakoan, errezatu egiten zuten gosalduek aurretik. Bazkalorduan, bakoitzak bere plateretik barik lapikotik jaten zuten. Orduan ere errezoak. Oraindik ere batzuetan errezatzen du oherakoan. Batzuetan sinisten du Jaungoikoarengan, baina beste batzuetan zalantzak izaten ditu.

Transkripzioa

-Besteik ez eguen ta...

-Jagi ogetik ta nik gure aitte ikusten neban: "ala, danak ezkatzera!". Danok ezkatzera. "Aittaren ta Semiaren", ta hiru "Abe maridxe", ta "Aitte San Antonio [gloriosue, San Isidro] ez dakit zer. Ta armosau baiño lehenago haxe. Etxera juen ta atzera danak bezkaitten ta, total, patel haundi baten, bakotxak beran platera be ez, kazuela haundi baten "durrrrun" bota zaratie eitten dabek babak, ta jan handixek babak, ta lehenengo: "Aitte San Antonio gloriosue, geure ganauengaittik, geure jun-etorridxegaittik, aitte gurie, ta San Isidro gloriosue, [...] ta geure difuntuengaittik eta, ba, errezetan eban. [...]"

-Oin zuk errezetan dozu?

-Ogera jueten nazenien, sarritten aburridute egoten naz ta! En fin, zer ingo dotsezu ba? Batzutan siñesten dot Jangoikuen. Nik elixara juten nazen egunien esaten dot pekatu mortala ein dotela, e? Eta beste batzutan esaten dot: zer! abadiak esaten dabena barriketan, barriketan, barriketan, barriketan pasetan dabie [...] ta kittu, besterik ezer be ez. Batzutan siñesten dot eta beste batzutan, ba, ez dakit nik zer esan be!

6. Iritziak

6.1. Amamaren bakardadea; amaordea gogorra

- **Hizlaria(k):** Larrigan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/013
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:16:44. **Bukatu:** 00:18:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Amaren aldeko amama bakar-bakarrik egoten zen. Berak diru pixka bat ematen zion neskametzatik etorritakoan eta auzokoei ere esaten zion esne apurren bat emateko. Amaordea gogorra zen bere umeekin eta are gogorragoa beraiekin eta amamarekin. Guztira zortzi neba-arreba izan ziren eta familia hazteko dirurik ere ez eta...

Transkripzioa

-Eta, holan, relaziñorik-eta amamaaz-eta euki bai?

-Bai, amama, amama koittae, nere amen ama, egoten zan, bakarrik, bakar-bakarrik, honakoxe kuartotxo baten, [...] bakarrik. Eta, ba, ni kridxadatztatik edo etxera jueten nitzenien, ba, emoten notsan diru pixkat eta esnie be han auzokuek-eta emoten otsien ta esaten notsen emoidoxo ta, ba, neuk pagauko dotsut. Eta, gero, gure madrastie pixkat okerra izen

zan. Gogorra. Berenentzako be bai ta guretzako gogorrague.

-Berenekin be bai?

-Berenentzako be bai. Beren semientzako be gogorra izen zan. Eta gero euki be ein ebazan, zortzi bat edo, familidixen. Bost aizta. Bost aizta bizi gara oindiño. Eta Vitoridixen bizi zan beste neba bat, sei, ta hamen hil zana zazpi eta Martzelino zortzi. Zortzi neba-arreba. Harek hazi egin biher zien! Eta diru bako etxiek [...].

-Solorik-eta asko eukin be ez, igual...

-Bai, soluek bai, baiña soluen be, egin ezik ez dago!

6.2. Amamaren bizimodu tristea

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/017
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:22:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Amama bakar-bakarrik egoten zen. Sorginen eta lapurren kontuak kontatzen ei zituen beti. Euren ama zuen alaba bakarra eta bera gazterik hil zitzaion. Oilategi antzeko etxe ziztrin batean bizi ei zen, gaur egun txakurrak ere biziko ez lirakekeen lekuan. Ezkaratzera artoa botatzen zion, hura urkuldu eta errotara eramanda diru pixka bat lor zezan. Txorokilekin (lokotxekin) sua egiten zuen. Hileta ere oso pobrea izan zuen; Berrizko markesak (Aznar familiak) ordaindu zuen.

Transkripzioa

-Eta zuen amamak konturik-edo kontatzen otsuen? Lehengo gauzak eta lehengo kontuek-eta kontetan abezan zuen amamak?

-Gure amamak? Harek koittauk... Sorgiñek eta lapurrek eta sorgiñek eta sorgiñek eta lapurrek eta... besterik ez eban eukitten koittauk. Zaharra be bazan, ta bakarrik eta... [...] eta... Jesus, maria eta jose, harek eukin eban bizimodue... tristie... tristie... Koittauk bakar-bakarrik. Seme-alabak, nere ama euki eban bakarrik.

-A! bakarra zan zuen ama?

-Nere ama bakarra zan. Nebie. Eta ostantzien bakarrik. Tristie. Lehenako bizimodue tristie da. Bakar-bakarrik bera hantxe. Honako tximini zera bat eukin gora, gora jueteko keiek urtetako... jesus! Etxiek ez dakit zelan [ez eban]... Etxie be izen zan desgraziadu bat, dana bentanak... [...] eta danak... Eta ikusten gendun amama pobre, pobre, ba, ez eukela [...], botaten notsan nik artue. Aitteri ta amari kendu artue, ta bota handik zulotik.

- Nora?

- Ezkatzera, bera eguen ezkatzera. Koittauk urkuldu artue ta txorokillekin sua ein, txorokillak, barruen... artuen barruko zera?

- Bai, bai, bai.

- Ta artue saldu ta, ba, pixkat errotara eruen, ta diru pixkat hartzen eban, ta holantxik. Hari be lagundu ein biher ba! Holantxik. Gure amama [...] barik juen zan, koittauk. Ezkatz... oillotokidxe lakoxe etxe triste baten.

-Asko aldatu die gauzak, e?

-E?

-Asko kanbidxau die gauzak...

-Oin ez dago txakurrik be ez halako lekuen. Txakurrik be ez. Ohie be triste-triste bat, bentana txiki-txiki bat hantxe ta, azkenien ba...

-Ohie be edozelangue izengo zan, bedarraaz eindako ohie edo...

-Bai, bedarra edo ez dakit [zerezkue] zan be! Eta hantxe, koittaue.

Azkenien ez dakit eze hilda ez abien topau. Ni Eibarren egon nitzan kridxada eta handik etorri nitzenien abisau ostien entierrurako ta. Total, lau oholeaz eindde kaja zahar bat, ta entierrue be, ba, Berrizko Markesiek-edo pagau eban entierrue. Orduko bizimodue tristie izen zan, ba. Orduko bizimodue?

6.3. Auzoko gizon bat txabolan preso

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/018
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:22:55. **Bukatu:** 00:24:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Auzoko gizon bat zoratu egin zen eta oilategi antzeko txabola batean eduki zuten preso, beste inora eramateko dirurik ez zutelako. Behin Anttoni ondolik pasatu zen eta ogia eskaini zion. Hurbildu zenean, ileetatik oratu eta sekulakoak eman omen zizkion. Azkenean txabolatik ihes egin eta bere burua errekarra bota zuen. Gaur egun ezin da sinistu orduko bizimodua nolakoa zen.

Transkripzioa

Ez dakit zuk ezautuko zendun, `Onbe´ esaten otsien, `Onbe´, zoratuta euki abena... Familidxie, herentzidxaatik edo... Zoratu ein jakozan mutillek be danak. Ta euki abien, ez dakizu, oillotokidxe? Zoratute egon zan, bai? Ta pagau ezin haren zera, ta euki abien holakoxe zertxo baten, ba, [oholekin] egindde, euki abien gizonori, hantxe preso, ba, kanpuen ezin leikiela euki libre ta. Ta egun baten handixik pasau nitzen ganauekin, ta esan osten: "Anttoni, hona etorten bahaz, ogi zati bat emongo deunat /emongounat/". Ta, ba, orduen, ba, ogidxe oin pastela baiño zerago izeten zan, estimauago. Juen nitzan, heldu ostan handixik bentana ertzetik ulietatik... niri emon ostan palizie! Eta holakoxe zera... Azkenien eskapau euan zeretik, handik kaidxolatik egun baten, ta bota eban bere burue errekarra, eta ez dakizu zelako bakie ein eban gizajuek, beretzako eta auzo guztidxentzako. Oin horrek holan pasau ezkerro? Amabirjiña Kontzeziñokue...! Eske harek gauzak oin siñestu be ezin leikez ein. Harek gauzak? Egun guztidxen bihera ein, gabien madrastiek "tan-tan-tan" taluek, harik eta... uzkurtxo bat [...] ez zan aillegetan gehidxago...

6.4. Jaietan gazta eta ogia hartzeko zain

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol

- **Erref:** BRZ-007/020
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:27:29. **Bukatu:** 00:28:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa
- **Laburpena:** Lehen ez zegoela poztasunik dio. Gaur egungo osteguna gehiago omen da garai bateko jai eguna baino. Andikoan Asentzio egunean egoten zen erromeria. Amabirjinaren egunean gazta eta ogia banatzen zituzten eta ilarak egoten ziren hura hartzeko!

Transkripzioa

-Poztasunik be egongo zan ba!
-E?
-Poztasunik be egongo zan, ba.
-Poztasunik bapez.
-Bapez? Jaidxek edo...
-Bai... Oingo eguena gehidxago zan orduko jai haundidxek baiño. Oin hamen, hor deket Karretona, hor aurrien, ta oin goizeko seiretan hori itxi barik egon da. Lehena izen balitze, danak kartzelara.
-Bai, baiña ez dakit, Andikoan be egongo zien...
-Bapez!
- ... jaidxek edo. Hori, Asentziño egunien...
-Bai, Asentzidxo...
-Asentzidxo egunien edo...
-Asentzidxo egunien. Eta emoten abien Asentzidxo egunien...
-Erromeridxe edo...
-Bezperan, bai, tanboliñe. Eta abemarikuek joten abienien, etxera listo. Bestelan danak inpernure. Oin haixe be desaparezidu. Emoten oskuen gaztaia ta ogidxe, Amabirjiñien egunien, Amabirjiñiek kunpliduaz, honakoxe ogi txatal bat ta honakoxe gaztai txatal bat. Eta haxe hartzen danak estimau! Kolie!

6.5. Gaur egungo behartsuenak garai bateko aberatsenen pare

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/024
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:30:52. **Bukatu:** 00:33:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Garai batean markesak edo pertsonarik aberatsenak baino hobeto bizi dela gaur egungo miserableena dio. Orduan ere baziren etxejabeak, umeak ordaindutako eskolara bidaltzeko gaitasuna zutenak, adibidez. Baina gosea pasa gabeko gutxi egongo zela uste du. Baserrian txerria hiltzen zen eta harekintxe bizi. Ogia etxean egiten zen hamabost egunerako.

Transkripzioa

-Lehenago Markesak baiño, lehenago aberats-aberatsak baiño, oin

miserablerik haundixena hobeto bizi da.

-Bai? Markesak baiño? Berrizeko Markesie ta honek baiño?

-Bai. Ba... Harek be... Bueno, beren etxien ondo biziko zan, baiña... Oin nik jentie aberatsago ikusten dot. Orduen ogi zatidxe botatie pekatu mortala izeten zan, ta oin ikusten dozuz iluntzidxetan zakuen, basurara botateko.

-Baiña ordun be egongo zan etxe... esan gure dot, baserridxetan be aberatsik eta ganau askodunek eta basuek eta...

-Bai, euezan jente.. eukienak, bai, etxaunek eta, errentarik pagau biherrik ez eukienak eta. Horrek bai. Horrek [...] izeten zan. Eukenak, orduen be, eukenak beti [eukiko eban mejoatxue], ba, herriko eskolara juen biherrien handik Durangora, pagaute, ta beste modu baten.

-Esan gura dot, biharra, biharra, lehen, asko, baiña baten batzuk, gosie be ez abiela pasauko, orduen sasoi en be...

-Bueno, gosie... pasau bako gitxi egongo zan, e. Oin, ez dot esaten pobrien moduko... badakizu, konparaziñoan, geu zortzi neba-arreba izen giñen, ta, ba, iñor eitteko be ez, ta zertzeko be ez, ta basarridxen bizi zan apurre, urtien txahaltxo bat hartu ta saldu ta harixi begire, beste txarritxo bat hazten bazan... ta danen artien laurden bana edo, txarri laurden bana edo, lauren artien-edo hil ta haixe. Ta morzillak ein ta ein ta ein ta ein ta [...], porrutan ta kipulatan sartzen otsien, sartu ta sartu ta sartu ta sartu. Eta harexekin bizi. Baiña labako sua ein, etxien ein labako sua ta ha ogidxe hamabost egunien edo, begiratu begiratu [...].

-Gogorra egoten zan azkenerako?

-Gogorra egoten zan, baiña... gosientzako gogorrik ez eguen!

6.6. Arimak, deabrua eta garai bateko sineskeriak

- **Hizlaria(k)**: Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref**: BRZ-008/001
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
 - Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Jaungoikoak zeruan onartzen ez zituen hildakoak familiakoei irteten zitzaizkiela esaten zen garai batean. Euren amaordeak deabrua ikusi omen zuen ore-mahaian ogia jaten. Abadeek ere esaten zituzten halakoak eta beraiek sinistu egiten zuten. Batzuek zioten aberatsak izaten zirela izara zuriekin irteten zirenak ilunpetan, jende behartsua beldurtzearren.

Transkripzioa

-Harek urten eitten abiela, Jangoikuek ez dabezela ametiduten zeruen, ta harek, ba, urten eitten abiela, norberan familidxiari edo norberan zerari. Ta guri be madrastriek esaten oskun diabrue ikusi ebala ore-mahaidxen, diabrue ikusi ebala ore-mahaidxen ogidxe jaten. Ta, ba, bildurretan. Abadiak be, horretantxe beti ibiltten zan ta... geure konfesiñuek ta geure zer horregaz. Ta siñistute egon gintzezan sorgiñek eguezana. Ta gero esaten abien jente zera, jente poderosue, engaiñetiarren, sustetiarren jente pobrie, sustetiarren, jantzi eitten ziela, jantzi eitten ziela urtetako illuntasuneko lekure.

-Sustetako.
-Bai. Horreatik, ba, jentie sustaute eukin giñuzela. Eta izen be izengo da.
Ze, nik, ez dakit ba...

6.7. Garai batean elur eta lei gehiago neguan

- **Hizlaria(k)**: Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref**: BRZ-008/009
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:17:09. **Bukatu**: 00:19:12
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena**: Garai bateko neguak gogorrakoak ziren: elur gehiago egiten zuen eta baita leia ere. Teilatuetatik izotz-kandelak egoten ziren zintzilik.

Transkripzioa

-Lehen, nire amamak beti esaten dau, lehen negue gogorrague zala ta...
-Asko be bai! Harek edurrek eta harek leidxek eta...
-Edurra-eta be bai?
-Oin edurrik ikusi be ez da eitten. Lehena? Lehena edurre asko be... jesus!
Lehen harek kandelak...
-Bai.
-Ez dakit zuk ezautu dozuzen...
-Bai, bai, bai, bai, teilatuetatik...
- Teilatuetatik-eta kandelak. Ta zerien be, kamiñuen be, kristal eindde dana leidxaaz. Oin ez da ikusten holakorik.
-Ta noz hasten zan edurre ta holan [...]?
-Ba, behin zerera ezkerro, San [...]tarako ta Gabonetarako... jesus!
Gabonetarako ahaztuta egoten gintzezan. Ni makiña bat bidar jun naz hamendik, kridxeda egon hamen ta Andikoako puntara, edurraaz ibili ezindde, ta jun ein biher, gurasuek ikusten-ta juen ein biher. Baiña edurtza galantakin hara puntara [...] abarka haundi batzuk galtzakin... Baina oin ez, oniño Anboton be ez da ikusi edurrik. Oin neguek asko be hobiek dauz.
-Bai, epelaguek eta...
-Bai...
-Lehen hotza be pasau eingo zenduen...
-Ene Jangoikue, jesus!
-Erroparik be askorik be ez eta...
-Bai, ortozik eta... Hamaika bider nik... hamaika tristeza pasau dou han basarridxen, bentana zahar batzuk, teilatu guztietatik urten ta etxetik kanpora dana leittute ta dana edurre...
-Kristelik bentanetan eukitten zenduen?
-Bai, kristela...Oholak.
-Oholak?
-Oholak atzetik... Kontrabentanak oholezkuek ta kittu.

7. Politika

7.1. Durangoko lehenengo bonbardaketa

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/019
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:24:52. **Bukatu:** 00:27:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Durangoko lehenengo bonbardaketak laietan harrapatu zituen. Alaba nagusia ohean laga zuen. Ohe azpian sartu zelako salbatu omen zen. Jende asko hil zen bai goizean eta baita arratsaldean ere. Hegazkinak behe-behetik etorri ziren arratsaldean, jendea metrailatzen. Orduko bizipenak.

Transkripzioa

-Gerrak zu nun harrapau zinttun?

-E?

-Gerriek zu nun harrapau zinttun?

-Hamentxe, Durangon. Esango dotsut nun harrapau ginttuzen lehenengo bonbardeuek. Laidxetan ibili gintzezan, hortxe kanposantu aurrien bada, ba, montor bat? Kanposanture doiena hamendik han Kurron ondora, Kurron etxie, [...] Hantxe ibili gintzezan laixetan. Eta alabie, bizi nitzen hamentxe zerien, ta alaba nagusidxe itxi neban ogien, neu laidxetan juenda. Ta etorri zien zerok, abioiok, ta hasi zien botaten, ta [hortxe sartu] gintzezan. Gure neskiek, hor be dana bota abien, dana apurtu, ta gure neskiek urten ta ogepien sartu, ta harexek salbau eban. Baiña hor hil zan... negargarridxe! Kurron etxie, jakingo dozu, Kurrona?

-Ez dakit, ba, hor, zererantza igoten, Kanposanturantzaz igoten?

-[...] igo baiña lehenago, basarri bat badao, ba, harutz goiezela, ezkerretatik? Kurrona esaten dotsiena.

-Baiña basarri-basarriidxe ala halako etxe bat?

-Fabrikien onduen.

-A, bai, bai,

- Haxe basarriidxe Ba hantxe sartu gintzezan, baiña halan ta guzti be, hari bota otsien atze guztidxe, eta hor sartu genduzan. Arratsaldien, ba, ez geunken hamen etxerik, nik be etxie botata neuken, ta hamen etxiok danok zertute ta bildurra be bai, ta arratsaldien juen gintzezan atzera, ba, harexe egongo zala, Kanposantue, errespetauko dabiela ta ez dabiela botako, eta juen gintzezan horraxa danak, horraxa aldera. Etorri zien arratsaldien, behe-behe-behe-behe-behe-behetik, hasi zien amatralletan...! Personak [...].

-Abioiak?

- Bai. Zenbat jente! Ta goizien, goizien hamen, zer harrapau abien! Tristie haxe zan. Tristie gero! Honek, Olea, [...] hortxe behien bizi zienak, hari hil otsiezan mutil bi ta aitte. [Bota otsiezan] etxien. Mutillek koskondute, eskolan ebizenak. Gauzak lehen tristiek ibili die.

8. Aisia

8.1. Etxerik etxe kantuan eta eskean

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-007/022
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:28:49. **Bukatu:** 00:29:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Etxerik etxe kantuan eta eskean ibiltzen zirenean kantatzen zutena: "Eguen zuriko astie, Jangoikuek emona guztidxe...". Bera ez zen asko ibili, baina nebak ibiltzen ziren. Ematen ez zuenari gurdia gora begira ipintzen zioten.

Transkripzioa

-Kantu-kantari be ez ziñien ibiltten? Holan, ez dakit, ba, abendue kantetan, ta honako gauzak, eguen zuridxe ta...

-Bai! "Eguen Zuriko astie Jangoikuek emona guztidxe, eskola maisuek bidaldu gaitu limosna on baten bille" kantetan genduen, baiña...

-Etxerik etxe?

-... iñok ez eban eukitten [...] emoteko [...] ta...

-Orduen be egongo zan baserri onik! Aberatsik be egongo zan...

-[Afaldu, bai. Afaldu] edo patata bat, edo sagar bat edo, baiña [...errezau] zer eitten gendun, ba? Ezebez! Ni [hor] jun be ez asko biherrien ibiltten nitzen etxien. Baiña gure nebak ibiltten zien, hamen hil zana ta; Martzeliño be ibiltten zan. Eguen Zuriko astie ta Santa Ageda ta...

-Santa Ageda be bai?

-Bai. Emoten ez otsenai burdidxe ipini gora begire, erroberekin gora begire. Zuk emon ezik Santa Ageda, horri emon buelta ta ala! [Erroberakin ipini gora begire].

8.2. Andikoa auzoko Asentzio jaiak

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/007
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:10:36. **Bukatu:** 00:12:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Bera gaztea zenean, ez zen egoten dantzaririk Andikoa auzoan Asentzio egunean. Serafinek jotzen zuen danbolina. Txibitonek ematen zuen meza. Meza ostean, Amabirjinaren diruarekin ogi eta gazta bedeinkatuak banatzen ziren.

Transkripzioa

-Ta Asentzidxotan Andikoan dantzaridxe ez zien egoten?

-Ez, ez, ez. Oin... Nik handik urten nabenien —oin ez dakit, baiña—, ni egon nintzen zerien, Asentzidxotan, tanboliñe, Serafin. Ez dakit Serafin nungue

zan? Abadiñokue edo.... Tanboliñe joten eban. Haxe juten zan. Ta, ba, joten eban Asentzidxo... Txibitonek emoten eban mezie, ta haxe juten zan tanboliñe joten. Ta mezien... Meziek urteten ebanien, tanboliñe, ta Amabirjiñiek emoten eban gaztaia ta ogidxe. Sakristauak, Amabirjiñien diruaaz erositte. Holakotxe ogi txatal bat, pentsaizu, hainbestendako. Ta emoten oskun ta, bueno, haxe, ha ogi bedeinkatue ta gaztai bedeinkatue, gauza haundidxe! Ta gero, ba, illuntzerako, oin azkenerako pentsetan dot eitten ziela, baiña dantzaririk ez. Basarri dxek eurek juten zienak, konparaziñoan hamendik Tabirara jutie lantxerik. Orduen ez zan egon... ezpatadantzarid xek eta horrek, bai, Garaidxen, ta egun haundidxetan ta bai, baiña oingo moduen ez. Orduen ez eguen erropa zuririk eta holakorik. Andikoan ez naben ezautu. Bueno, nik gazterik urten neban handik, e, gazterik urten naben.

8.3. Inauterietan ardi larruarekin eta behien mantarekin jantzita

- **Hizlaria(k):** Larringan Bastida, Anttoni
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre Escribano, Aritz - Mendiola, Aitzol
- **Erref:** BRZ-008/012
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:21:32. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
 - Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Inauterietan ardi larruarekin eta behien mantekin jantzen ziren. Elkar altxatzen ibiltzen ziren. Neskak ere ibiltzen ziren, baina batez ere mutilak. Lehenengo, elizara joan behar, hiru meza entzutera. "Tostada egunean" tostadak egiten zituzten, taloen antzera, erreta.

Transkripzioa

-Karnabaletan zeozer eitten zan lehen?

-Bai. Bai... eiten zien. [...] eta, baiña ha pekatu mortala zan kareta hori ta jastie.

-Baiña eitten zan, ezta?

-Bai, bai...

-Nik amamari entzunde dekutset jastien ziela ardi narru bateaz ta...

-Bai, ardi narruaaz ta behidxen mantekin ta... zer? dana... praka barik eta...

-Zelan praka barik?

-Aaai! Gona zaharrakin. Tapetan abiezan gona zaharrekin ta... Behidxen, behidxen zerekin, mantiaz eindde dana bueltan-bueltan ipinitte ta... holantxik.

-Ta zetan ibiltzen zien?

-Ba, bata bestie altzetan ta...

-Mutillek ala neskak be bai?

-Neskak be bai. Neskak gitxi, e? Zegaittik neskak, jastien zienak, kastigauak izeten zien. Ez dakizu? Mutillek jun ta [...]. Mutillek gehidxago izeten zien... Karnabalak beti izen die karnabalak. Ta elixara lehenengo jun biher, hiru meza entzuten: bat sorgiñen kontra, ta bestie, ba, erromeridxe gaberako ta bestie mezie entzuteko.

-Hiru bider?

-Hiru meza entzun biher.

-Zuk beste barbarik ezautzen dozu karnabal esateko? Aratostie edo...

-Aratostiek, zerak... tostada egune.
-Ze egun izeten da hori karnabaletan?
-Karnabalak pasaute. Karnabalak izeten da Eguen Santu inguruan. Eguen santu bezperan, karnabal, ta tostada egune.
-Orduen eitten zenduezan tostadak?
-Bai, bai. Orduen, Andikoan, aunke sea arto urunagaz, eitten zien tostadak.
-Eta rebozaute eta holan, oingo moduen?
-Bai zera! Ein... erre... tablien ganien...
-Taluen antzera...
-Bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Herriko eskolara joaten zen (BRZ-001/002)

Ume gehienak komentuko eskolara joaten ziren, baina bera herriko eskolara joaten zen, aita errepublikanoa zelako. Maistrak jo egiten zituen, baina ezin izaten zen etxean ezer esan. Gerra hasi zenean, eskolak itxi egin zituzten.

2. Francoren tropen etorrera (BRZ-001/003)

Gerra hasi zenean, umea zen artean, baina ondo gogoan omen du. Aitak ihes egin zuen. Francoren soldaduak mendi gainean egon ziren. Nafarrak ziren, euskaldunak. Mairuak etorriko zirela eta neska gazteei beldurra sartzen zieten. Egun baten behera etorri eta jatekoa eta edatekoa eman zieten, baina Julianaren ama ez zen fidatzen. Julianaren anaia gazteagoa soldaduengana joanda egon zen trintxeretan eta beraiek ez zekiten umea non zegoen.

3. Gerra garaiko bizipenak (BRZ-001/004)

Gerra garaiko bizipenak. Jende asko preso hartu zuten herrian. Beldurra. Isilik egon behar. Aita politikari handia omen zen, errepublikanoa. Orduan bi aukera zeuden, alde batekoa edo bestekoa. Hegazkinak etortzen ziren. Bi lagun hil ziren Durangoko bonbardaketan eta goizeko lauretan egin behar izan zuten hileta.

4. Errepublika sasoian amak gurutzeak ipini zizkien (BRZ-001/006)

Errepublika aldarrikatu zutenean, elizak botatzen ari zirela eta amak gurutzeak jarri zizkien paparrean, kristauak zirela adierazteko.

5. Bonbardaketan, abadearen bedeinkapena, hilko zirelakoan (BRZ-001/008)

Ez dago gerra baino gauza txarragorik. Hildako asko. Jendea etorri zen euren baserrira, baina han ere berdin botatzen zituzten bonbak. Durangoko bonbardaketa. Babesleku batean ezkutatzen ziren. Abade batek euren azkena zela eta bedeinkapena ere eman zien.

6. San Blasetan Abadiñora erromeriara oinez (BRZ-001/011)

Gaztetan Olakuetara joaten ziren erromeriara, dantzara. San Blasetan Abadiñora oinez, bost egunean jarraian. Etxeratzeko ordua izaten zuten, baina ez zuten betetzen eta beti mehatxuka ibiltzen zitzaizkien etxean. Batera eta bestera asko ibiltzekoa izan da.

7. Umetako jolasak; mutilekin harrapaketan (BRZ-001/012)

Umetako jolasak. Panpinak nola egiten zituzten. Afariketako jolasten zuten. Mutilekin ere ibiltzen ziren harrapaketan: batzuk lapurrak izaten ziren eta besteak guardia zibilak.

8. Gerraren kalteak (BRZ-001/013)

Gerra sasoiaren txarto pasatu zuten. Hildakoak, preso hartutakoak... 1941ean, berriz, gosea.

9. Sorgin-kontuak, umeak beldurtzeko (BRZ-001/015)

Osaba batek sorgin kontuak kontatzen zizkien, beldurtzeko. Iluntzen zenean ez zen argirik egoten inun eta orduan irteten omen ziren sorginak. Auzoko emakume bat sorgina eta lapurra zela esaten zieten.

10. Sakamantekasen inguruko sinesmenak (BRZ-001/016)

Sakamantekasen inguruan esaten zituzten kontuak. Sinistu egiten zituzten denak. Orduan inork ez zizkiela gauzak behar den bezala esplikatzen eta ez zirela ondo bizi dio.

11. Ama pandero-jotzailea eta kantaria (BRZ-001/019)

Amak asko kantatzen zien eta oso ahots ederra zuen. Kanta asko zekizkien eta erraz ikasten zituen. Erromerietan panderoa jotzen zuen. Baina aita kontrakoa zen, ez zitzaion gustatzen.

12. Umetako zereginak baserrian; kaletarrek jo (BRZ-001/022)

Umetan baserrian izaten zituzten zereginak: ganadua zaindu, ura edo egurra ekarri, artoa joratu... Kalera errekaduak egitera ere joan behar izaten ziren, baina ez zuten nahi izaten, kaletarrek jo egiten zituzten eta. 16-17 urterekin kontuak aldatu ziren.

13. Pinu landareak erein eta saldu (BRZ-001/023)

Pinu landareak ereiten zituzten eta gero milako paketeak egin eta landareak saldu. Diru asko irabazten zen orduan.

14. Umetan elurretan jolasean (BRZ-001/025)

Umetan gustura jolasten zuten elurretan: zakuarekin goitik behera jaitsi, panpinak egin... Garai batean elurte handiak egiten zituen. Eibarrera esneak eramaten zituzten saltzeko, eta ezin treneraino iritsi elurra zenean.

15. Aurrerapenak ekarritakoak (BRZ-001/026)

Garai batean ez zegoen ia hondakinik; ez zegoen plastikorik. Aurrerapenak ekarri zituen gauza horiek. Hala ere, aurrerapena gauza ederra dela dio. Ezkondu arte ez zuen irratirik izan.

16. Amama ama erditzean hil zen (BRZ-001/027)

Aitari Angel `Arna´ esaten zioten. Mallabian jaio zen, baina umetan joan zen Berrizera bizitzera. Ama berriztarra zen, zortzi egun zituela ama barik geratutakoa. Garai batean emakume asko hiltzen zen erditzean. Garai bateko bizimodua gogorra. Herriko medikua. Gizarte Segurantzarik ez zegoen.

17. Abarkak sasi artean gorde eta zapatak jantzi kalerako (BRZ-001/029)

Lokatzaz betetako pista zuten etxetik kalera jaisteko. Abarkekin joaten ziren eta kalean zapatak jantzi, dotore ibiltzeko. Abarkak sasi artean uzten zituzten ezkutatuta.

18. "Estarta", gurdiaekin pasatzeko bidea (BRZ-001/030)

"Estarta" zer den. Ganaduak gurdiaekin pasatzeko bidea. Gurdi-bidea. Bera gaztetxoa zela egin zuen errepidea Aldundiak. Gero, kotxeak ere joaten ziren noizbehinka eta berritasuna zen hori beraientzat. Garai batekoek gaur egungo bizimodua ikusiko balute!

19. Sarriko emakume baten hil-kutxa eramaten gertatutakoa (BRZ-001/031)

Norbait hiltzen zenean, eliz-bidetik eraman behar izaten zen hilerrira, lepoan hartuta. Bidean zeuden gurutzeetako bakoitzean erresponstu bat egin behar izaten zen. Behin Sarriko emakume baten hil-kutxa eramaten ari zirela, abadeak ez zuen erresponsturik egin, emakumea behartsua zelako. Julianaren aitari ez zitzaion ondo iruditu eta berak errezatu zuen. Biharamunean Larrinagako kartzelara eraman zuten guardia zibilek. Orduan denak zirela pobreak dio Julianak.

20. Garai batean trumoi eta oinaztu itzelak (BRZ-001/033)

Garai batean trumoi eta oinaztu itzelak egoten ziren. Oinaztarriek jendea hil ere egiten zuten. Kandela bedeinkatuak jartzen ziren. Etxetik urrun aizkora bat jartzen zen, ahoz gora, oinaztarriak tiratzeko. Arrosarioa egunero errezatzen zuten, baina trumoi zenean ez zuten errezo berezirik egiten.

21. Purgatorioko arimei errezatzen; goizeko seietako mezara (BRZ-001/034)

Amak egunero errezatzen zien purgatorioko arima koitaduei. Orain purgatoriorik ez dagoela eta amak zenbat alferreko lan hartu zuen pentsatzen egoten da. Mezak ordu askotan egoten ziren, baina goizeko seietako mezara joaten ziren, argi egiteko lasto-eskutada isiotuta. Koskortu eta gero ere joan behar izaten zuten. Suarekin ibili arren, orduan ez zirela mendiak erretzen dio.

22. Amari Eibarrera bidean irteten zitzaion "mamua" (BRZ-001/035)

Gogoan du mendian sua egiteko guardia zibilei baimena eskatu zietela behin. Ama eta beste emakume bat astoarekin Eibarrera joaten ziren. Bidean mamua irteten zitzaizela eta beldurrez egoten ziren. Aitak guardia zibilei baimena eskatu zien "mamu" hari aurre egiteko. Auzoko gizon bat zen, lapurretan ere ibiltzen zena. Aitak belauniko jarriarazi eta damutu eragin zion, baina inori ez zion esan sekula nor zen.

23. Ermuko Errotabarri errotakolana (BRZ-001/040)

Ermuko Errotabarrira ura "Forjas Ermua" inguruko errekatik joaten zen. Senarrak bertan lan egin zuen hasieran; gero, hura itxi zenean, Zubiondon. Errekatik porlanezko ubidetxoan joaten zen ura errotara eta antapara betetzen zen. Gurpila bueltaka hastean, martxan jartzen zen errota. Senarrak laguntzen zion lantegitik etxeratzean, baina berak zuen errotaren ardura. Lan gogorra zen, pisu handia erabili behar izaten zuen eta. Mallabiar guztiak ezagutzen zituen orduan, asko joaten zitzaizkion eta. Nola "uruntzen" zen errota-harrietan.

24. Errotaren inguruko azalpenak (BRZ-001/042)

Errotan beheko gurpila burnizkoa zen. Ura sartzean, bueltaka hasten zen eta goiko harriak martxan jartzen zituen. Denborarekin gastatu egiten ziren harriak. Zaintzeko, harriak zorrotzu eta pikatu egin behar izaten ziren. Senarrak egiten zituen lan horiek. Alde batean garia eta bestean artoa egiten zituzten, baina ohikoena artoa zen. Bezeroek artoa bertan uzten zieten eta hurrengo egunean irina jasotzera joan.

25. Jendeak irin fina nahiago (BRZ-001/043)

"Urundu" berba erabili du, baina "eidxo" ere esaten zuten. Zenbat eta gehiago estutu, irina finagoa irteten zen, baina gutxiago. Askok hori nahi izaten zuten, fina hobea zen eta. Jendeak irina taloak eta morokillak egiteko edo txerriari botatzeko erabiltzen zuen. Asko gastatzen zen orduan. Jende talde handiak joaten ziren errotara astoekin. Mallabiko bat karroarekin joaten zen.

26. Errotariaren irabazia (BRZ-001/046)

Errotak zarata handia ateratzen zuen, baina ohituta zeuden. Martxa handiagoa emandakoan, zarata handiagoa. Hamar kilotik bat eurentzat hartzen zuten; hori izaten zen euren irabazia. Irin hura saldu egiten zuten gero.

27. Haurdun egonda ere, errotan lanean (BRZ-001/048)

Haurdun gelditu zenean, berdin-berdin lan egiten zuen errotan eta pisu handia erabiltzen jarraitzen zuen. 40-50 kiloko pisuak ere egoten ziren. Baserritarrek laguntzen zioten. Neguan egoten zen lan gehien. Euren etxea hotza eta umela zen. Ermua eta Eibar umelak direla dio.

28. Arto alea zakuetan errotara (BRZ-001/050)

Garai batean arto klase bat egoten zen. Zaku handietan eramaten zituzten baserritarrek arto aleak errotara, ondo urkuldu ostean. Lehenengo lana pisatzea izaten zen.

29. Zahia oiloentzat (BRZ-001/052)

Zahia gariaren edo artoaren azala izaten da. Irina galbahean pasatzean, goian geratzen zen zahia eta hura kendu egiten zen. Beraiek oiloei botatzen zieten. 50-100 oilo zituzten.

30. Gabonetarako ilusioa (BRZ-001/056)

Gabonetan anai-arreba guztiak elkartzen ziren etxean eta erromeria itzelak egiten zituzten. Oilaskoa, karakolak, torradak... jaten zituzten. Ilusio handia izaten zuten; gaur egun hori galdu egin da, edozer jan dezakegulako, nahi dugunean.

31. Gizonekin dantza egitea bekatu mortala (BRZ-001/060)

Senargaiarekin ibiliz gero edo dantza lotuan eginez gero, konfesatzera joan behar. Bekatu mortala zela esaten zieten. Gaur egun bestelako askatasuna dago, nahi dena egiteko. Lehen purgatorioarekin beldurtzen zituzten eta orain ez dela esistitzen diote. Ez du federik abadeekin.

32. Ezkongabetan haurdun geratzen ziren emakumeen zoritxarra (BRZ-001/063)

Gurasoek ez zieten azalpenik ematen bikote-harremanen inguruan. Denak ere ezjakinak izaten ziren; lagun artean hitz eginda jakiten zituzten sexu kontuak. Emakume ezkongabe bat haurdun geratzen bazen, lotsaizuna izaten zen berarentzat eta familiarentzat. Gaur egun balitz, berak bakar-bakarrik izango lukeela umea dio.

33. Abizena jatorrian Gerediagaoruemazaga (BRZ-002/002)

Imanol Oruemazaga Bazeta. Abizena berez Gerediagaoruemazaga dela dio, Gerediaga ermitaren gainekaldean dagoen Orue baserrian dute jatorria. Hango baserriko bat Berrizko Mazaga baserrira ezkondu zen. Senar-emazteen abizenak elkartu egin zituzten eta hurrengo urrats batean Gerediaga kendu zioten abizenari.

34. Berrizko Abadetxean jaioa (BRZ-002/004)

Berrizko elizaren ondoan jaio zen, Abadetxean. Amaren osaba bat abadea zen eta ama hura zaintzera etorri zen Axpetik. Hilerrri aldetik bigarren etxea zen beraiena. Oraindik ere Jesusen bihotzaren irudia omen dago atean, bere haurtzaroan bezalaxe. Aita Garaikoetxekoa zen.

35. Aitak palaz jokatzeko aukera, operan abestera joanda (BRZ-002/005)

Aita harakina zen eta Zaldibarren zeukan harategia. Guridiren `Mirentxu´ opera Bilbon estreinatzeko koru bat sortu zuten eta aita ere eraman zuten, abesten ona zelako. Han pilotan jokatzeko aukera izan zuen eta horrela hasi zen palaz jokatzeko. Bilbon eta Madrilen jokatu zuen `Berriz´ izenarekin. Garai hartan modan zegoen herriaren izenarekin jokatzeko.

36. Aita pala jokalaria profesionala (BRZ-002/006)

Aita pala jokalaria profesionala izan zen. Bigarren mailako atzelari onena zen eta bera jartzen zuten mugarritzat, lehenengo mailara igotzeko. Ezkondu ostean utzi egin zuen; antza denez, amari gehiegizkoa iruditu zitzaion pilotalekuko giroa (oihuak, irainak...).

37. Perosiren Meza abesten zuten hiru ahotsetara (BRZ-002/007)

Berrizen beti egon da pilotarako zaletasuna. Berasaluzetarren aitona `Txikito de Mallabia´. Imanolen aita tenorea zen, `Txikito de Mallabia´ bigarren

tenorea eta Berrizko medikua baxua. Perosiren meza abesten zuten hiruren artean hiru ahotsetara, berak organoarekin lagunduta.

38. Errepublika sasoiaren "goia" eta "behea" Berrizen (BRZ-002/009)

Berrizen "goia" eta "behea" zeuden sasoi batean: goia eliza ondotik gorakoa eta behea Olakueta ingurua. Olakueta inguruan sortu zen industria eta bizimodua ere burgesia txikiaren antzekoa ei zeukaten. Errepublika sasoiaren Imanolen aita zinegotzi izan zen, "goitarrek" aukeratuta. Alkatea ANVkoa zen. Bazeuden alderdi politikoak, baina indar gutxi zuten sasoi hartan.

39. Markesari esker salbatu zen aita heriotza-zigorretik (BRZ-002/010)

Gerra sasoiaren errefuxiatu asko etorri zen Gipuzkoa aldetik. Gobernuak zerbitzu bat jarri zuen haiei jaten emateko. Udalak "Abastos"eko arduradun moduan ipini zuen Imanolen aita. Bilbon zegoen batean atxilotu eta heriotza-zigorra ezarri zioten. Amaren osaba abadea oso maitea zuten Berrizko markesaren etxean eta amona ere oso etxekoa zen. Hari esker salbatu zen aita.

40. Berrizko markesak (BRZ-002/011)

Berrizko markesen inguruko kontuak. Emaztea alargun ezagutu zuen berak; kanpotarra zen. Udara pasatzera urtero joaten ziren Berrizera. Elizaren albo batean beraientzat leku berezia zeukaten.

41. Berrizen jende asko atxilotu zuten gerra sasoiaren (BRZ-002/013)

Aita zinegotzia izan zen Berrizen Errepublika sasoiaren. Abertzalea zen, baina ez zegoen EAJn afiliatuta. Jende asko atxilotu zuten gerra sasoiaren, baita jende arrunta ere, errefuxiatuei jatekoa emateagatik bakarrik. Ezagun bat aipatzen du. Batzuk fusilatu ere egin zituzten.

42. Aitari ezarritako bi heriotza-zigorren "arrazoiak" (BRZ-002/014)

Aita gerra sasoiaren "Abastos"eko arduradun moduan ipini zuen Udalak, errefuxiatuentzat jatekoa bideratzeko. Horretarako, 5000 pezeta ematen zizkieten. Atxilotu zutenean, bi heriotza-zigor ezarri zizkieten, bata frankismoaren kontra egiteagatik eta bestea Udalaren dirua euskal gobernari ematea leporatuta. Diru-kontuak jasotzen zituen libreta Bilbon zeukan, baina inork ez zuen begiratu.

43. Aitaren itzulera, kartzelan egon ostean (BRZ-002/016)

Aita 1939an itzuli zen Berrizera, hiru urte eta gehiago kartzelan egon ostean, kilo asko galduta eta oker-oker eginda. San Pedro bezperan askatu zuten Oviedon eta San Pedro egunerako Berrizera joan nahi zuen, ezpata-dantzan ari ziren bitartean eliza ondoan agertzeko. Baina ez zen goizean iritsi, tren bat galdu zuelako Bilbon. Arratsaldean, iritsi zenean, izugarritzko harrera egin zioten.

44. Aitak pasatako kartzelak; Aita Bolinaga Burgosko kartzelan (BRZ-002/017)

Aita zer kartzelatan egon zen. Lehenbizi Larrinagan, Bilbon. Gero, probisionalki kartzela moduan prestatu zuten Upo-mendi barkuan, Deustun. Handik

Burgosera eraman zuten, handik Astorgara eta, azkenik, Oviedora. Burgosen egon omen zen okarren. Abade euskaldun bat zegoen bertan: aita Bolinaga. Nolako sermoi gogorak egiten zituen.

45. Aita kartzelan zegoenean, komunikazio gutxi (BRZ-002/018)

Aita kartzelan egon zenean, ez zuten eskutitz bidezko komunikaziorik, dena ahozkoa zen. Larrinagako kartzelara osaba joaten zen normalean; tartean behin ama ere bai. Burgosera amaren lehengusu pasiotar bat joan zen. Bestela ez zuten aitaren berririk izaten. Lekuz aldatzen zutenean handik edo hemendik jakiten zuten, baina ez beraiek abisatuta.

46. Aita kartzeletako koruan kantuan (BRZ-002/019)

Aita Burgosko kartzelan zegoenean, zuzendariaren semea hil zen frontean. Burgosko katedralean egin zioten hileta eta Imanolen aitak, beste batzuekin batera, Perosiren Meza kantatu zuen. Kamioietan eraman zituzten, eta herritarren iruzkinak entzun zituzten: "¡pero si no tienen rabo!". Gerora, Astorgan ere koruan kantuan jarraitu zuen aitak. Han Aste Santuko prozesioetara atera zituzten. Jendearen ikusmina.

47. Oviedon presoak hondakinak ateratzen (BRZ-002/021)

Oviedo zeharo apurtuta geratu zen gerra sasoian. Presoak jartzen zituzten hondakinetatik adreiluak ateratzen. Aita lan horretan zebilela, gizon batek ezagutu egin zuen, anaiaren antz handia zuela eta. Imanolen osaba kantari ona zen eta, Milanen ikasten egon ostean, Kubara joan zen. Antza denez, han ezagutu zuen gizon horrek.

48. Abadetxetik Ganekoetxera eta handik Sarria auzora (BRZ-002/023)

Aita preso egon zen sasoian, Abadetxean bizi ziren, amaren osaba abadearekin. 1941ean, osaba hil zenean, handik alde egin behar izan zuten eta Ganekoetxera joan ziren. Euren baserria eta Berrizko beste asko Manso de Zuñiga familiarenak ziren, baina pixkanaka baserri horiek saltzen joan ziren. Kontratu batek zioen Oruemazagatarrak bizi ziren artean, ez zituztela Ganekoetxetik botako, baina ez zen kontratua errespetatu. Orduan, Sarria auzoan zuten beste baserri batera joan ziren bizitzera.

49. Arrierrekaren aberastasuna; errotak (BRZ-002/026)

Berrizko Arrierrekan euren baserriaz gain (Errotabarri), beste hiru errota zeuden gutxienez. Eurena baino gorago zegoen Errotatxun errota desegin eta zentrala egin zuten. Durangoko Mendizabal lantegi ezagunarentzat argia bertatik ematen zen.

50. Errotabarri baserrian denetariko lanak egin behar (BRZ-002/027)

Errotabarri baserrian zeuden erreteroeak ez zuten handik irten nahi, errota negozioa zelako. Epaitegira jo zuen aitak eta epaileak jarritako baldintza gutxienez bost urtean baserria berak erabiltzea izan zen. Ondorioz, gogor lan egin behar. Aita idiekin goldaketan nola ibiltzen zen. Amak bazuen baserriko lanen berri. Berak, etxean zegoen denboran, denetarik egin behar. Seminarioa joan aurretik azkenengo lana Oiz mendian segarekin ira ebakitzea izaten zen.

51. Morcillo Bilboko obispoarekin harremana (BRZ-002/028)

Gasteizko seminarioan zegoela, uda batean apaizgaiak Saturraranera eraman zituzten hamabost egun pasatzera. Gazteak ziren eta bikain pasatu zuten, baina bera etxean baserriko beharretan ari zirenekin akordatzen zen. Hurrengo urtean Morcillo Bilboko obispoari eskutitza idatzi zion bere egoera azalduz. "Herri Gaztedi" ren sorrerako mugimenduetan Bilbon elkartu ziren batean, obispoarekin hitz egiteko aukera izan zuen eta harremana sortu zen euren artean. Luze hitz egin omen zuten.

52. Langile-herri batera joan nahi zuela esan zion obispoari (BRZ-002/029)

Abade egiteko sasoia iritsi zenean, apaizgai guztiei banan-banan galdera bera egin zien Bilboko obispoak: ea zerk egingo lieken ilusioa abade-etxera joandakoan. Berak langile-herri batera joan nahi zuela esan zion, izan ere, bazekien bera Ondarroara eraman nahi zutela, organista lanera. Bidebietara (Basauri) bidali zuen eta oso gustura egon zen bertan.

53. Obispoa aldatzean, Basauritik Ondarroara (BRZ-002/030)

1955ean Morcillo obispoak Bidebietara bidali zuen, berak hala eskatuta, baina hamaika hilabete besterik ez zituen egin han. Obispoa aldatzean, Gurpide obispoak Ondarroara bidali zuen. 1956a zen. Udalak 15.000 pezeta ordaintzen zituen organista lanagatik, baina hala ere negarrez joan zen, Basaurin oso gustura zegoelako.

54. 11 urterekin seminaria joateko erabakia (BRZ-002/033)

Ez daki nondik sortu zitzaion abade joateko bokazioa, baina berak erabaki zuen. 11 urterekin Bergarako seminaria joan zen. Uda etxean pasatu eta seminaria joan aurreko egunean beti arrautza frijitua patatekin afaltzeko. Gurasoek beti galdetzen zioten ea gustura zebilen.

55. 1943an gose handia pasa zuen Bergarako seminarioan (BRZ-002/034)

1943an Bergarako seminaria joan zen. Gose handia pasatu zuten. Behin Elgeta alderako bidean zehar paseatzera eraman zituzten; sagasti bat ikusi eta sekulako triskantza egin zuten. Jangelan seiko mahaietan egoten ziren. Lapikoan lekaleak baino salda gehiago. Txandatu egiten ziren mahaia zerbitzatzeko. Han urtebete egin ostean, Arteako (lehen Castillo-Elejabeitia) seminaria joan zen eta handik Gasteizkora.

56. Gerraosteko gosea Errotabarrira joandakoan amaitu (BRZ-002/037)

Ogi-gosea edukitzen zuen beti eta berarentzat oparirik onena amak egindako ogia izaten zen. Gerraostean gose handia pasa zuten, Berrizko Abadetxean bizi ziren sasoiaren. 1944an joan ziren Errotabarrira bizitzera. Baserria nolakoa zen eta nolako inpresioa egin zion seminariotik etorri zenean. Hara joan zirenean kendu zuten gosea.

57. Aitak errota martxan jarri eta bezeroak erakartzea lortu (BRZ-002/038)

Aita gizon abila izan zen eta, ideiarik eduki barik, aurrera atera zuen errota. Etxea eta errota apurtuta utzi zizkieten eta, gainera, jendeak txarto ikusten zituen, erreteroa bota egin zutela eta. Pixkanaka hasi zitzaizkien bezeroak etortzen eta azkenean Garai aldeko guztiak erakartzea lortu zuen, aitak oso irin fina egiten zuelako. Lehenbizi alea galbahean pasa, zikin guztiak kentzeko, eta gero toberara. Errotarriak. Errotaren inguruko azalpenak.

58. Guardia zibilen onespenearekin, gauez errotan lanean (BRZ-002/039)

Gerraostean errotak itxita egon ziren. Durangon garia ehotzeko baimena zuten bakarrak "Lapikona" eta Imaz lantegiak ziren. Gerora, tranpak egiten hasi zen jendea, garia ezkutuan ehotzen. Guardia zibilak garai batean astebeteko ibilbideak egitera behartzen zituzten eta, gainera, pasatako lekuetan sinadura behar zuten, handik pasa zirela ziurtatzeko. Errotabarrira ere maiz joaten ziren eta batzuetan lotan geratzen ziren. Haien onespenearekin isilpean errota erabiltzen zuten gauez. Errotariak baserriarekin egiten zuen tratua: hamarretik bat errotariarentzat. Astoekin etortzen ziren baserriarriak.

59. Etxeko txakurra, gurasoak plazatik itzultzeko zain (BRZ-002/040)

Larunbat guztietan gurasoak Durangora joaten ziren "plazakoa egitera", karroa hartuta. Etxeko txakurra goiz osoan Garai aldera begira egoten zen eta hamaika eta erdiak aldera bidera ateratzen zitzaien gurasoei. Handik etxeraino karroaren aurrean saltoka joaten ei zen.

60. Inguru askotatik Arrierrekako errotetara (BRZ-002/041)

Garai aldeko jendea joaten zitzaien Errotabarrira errotara. Mallabia aldetik ere joaten ziren Arrierrekako errotetara, Anportara adibidez.

61. Arrierrekako ura ondo aprobetxatuta (BRZ-002/042)

Erreka oso aberatsa zen Arrierreka, ur askokoa. Horregatik jarri zituzten "saltoak" bertan. Oiz mendian zeuzkaten ur-deposituak. Gainera, dena lotuta zegoen: Errotatxutik zetorren ura euren antaparara joaten zen, handik errekarra eta ehun metrora beste antapara batera sartzen zen. Antapara urtero garbitu behar izaten zen, hondar askoko lekua zen eta.

62. Artoa, ondo aprobetxatuta (BRZ-003/006)

Artoaren garaua errotara eramaten zuten; txokorrak jolaserako erabiltzen ziren jaietan; artoaren orriak abereei ematen zizkieten; malutak Ondarroan amuetan ipintzeko erabiltzen zituzten. Arto bizarrekin ezer egiten zutenik ez dauka gogoan.

63. Tabakoa erein, lehortu eta erre (BRZ-003/007)

Tabakoa ereiten zen baserrietan. Gero lehortu egiten zuten. Bere etxean ez du ezagutu. Adineko jendea ezagutu zuen orriekin eta etxeko tabakoarekin zigarroak egin eta erretzen. Banaka batzuek pipa erabiltzen zuten. Hamabost urte ingururekin zigarroa erre zuen baina harrezkero ez.

64. Seminarioko latinoak, filosofoak eta teologoak (BRZ-003/009)

Seminarioan lehenengo bost urteetan zeudenei latinoak esaten zitzaaien, latina ikasten zelako. Beste hiru urtez, filosofia ikasten zuten eta azken lau urteetan teologia. Seminarioa ordaindu egin behar izaten zen; baten batek beka emanda joan zen bera.

65. Seminarioan futbolari onak (BRZ-003/010)

Arropak norberak eramaten zituen eta garbiketako gauzak ere bai. Sotana lehenengotik janzten zuten seminarioan; futboleant asko jokatzen zuten eta urtero txapelketa egiten zuten. Gogoan dauka fraka motzekin jokatu zutenean, kontrola egiten zirela, frakak belaunetara inoakoak izateko. Setien gotzainaren kontra jokatu zuen behin. Seminarioan zegoen garaian, Alaves lehenengo mailan zebilen eta partida bat irabazi egin zioten. Bere taldea oso ona zela dio. Abarketekin jokatzen zuten.

66. Seminarioko irakasleak gogoan (BRZ-003/011)

Jose Luis Ansorena irakaslea dauka gogoan, onenetakoa beretzat. Idazketa sakratuko irakasle bi aipatzen ditu, era zaharrekoa bata, era berrikoa bestea.

67. Seminarioan euskaraz, ezer ere ez (BRZ-003/012)

Seminarioan akademiatar bat zeukaten, ikaskideek sortutakoa, euskara lantzeko. Karrera amaierako sermoia gazteleraz egin behar izaten zuten. Euskaraz bere burua alfabetatu zuen.

68. "Jaunaren sehaska inguruan", lehen antzezlan euskaraz Ondarroan (BRZ-003/013)

1957an antzerkia euskaraz egin zuten Ondarroan, Gabonetan, "Jaunaren sehaska inguruan" obra, Agustin Zubikarairena. Baimena eskatu behar izan zuten, lehenengo "Información y Turismo" ministerioan eta gero poliziari, eta behartu egin zituzten gazteleraz ere zerbait egitera. Guardia Zibilek kontrolatzen zuten. "GAO" (Ondarroako talde artistikoak) izan zen antolatzailea eta ondoren, Kresala elkarteak bihurtu zen. Leku askotara joaten ziren antzerkia egitera.

69. Antzerki emanaldiak egiten herririk herri (BRZ-003/014)

Zubikaraik idatziriko hainbat antzerki egin zituzten; lehen aipaturikoaz gain, "Jaunaren bidetan" eta "Kresaletan" obrak. Leku askotan egin zituzten emanaldiak. Autobus bi joaten ziren; bakoitzak bere ogitartekoa eramaten zuen afaltzeko.

70. Ibilaldian ikastolako zinta moztu zueneko (BRZ-003/015)

Ondarroako Ibilaldian, berari eskatu zioten zinta mozteko, eta ikastolako laguntzaile guztien izenean moztu zuela dio. Jende askok kuota bat ordaintzen zuen ikastola bultzatzeko.

71. Kili-kili aldizkaria banatzearen, kartzelara (BRZ-003/017)

Kili-kili aldizkaria egitearen, kartzelara egon zen. Apaizek egiten zuten eta zabaltzen ere bai. 1969an sarekada bi egin zituzten, bata Sestao inguruko

langileen artean eta beste bat abertzaleen artean. Bere etxean erregistroa egin zutenean, Kili-kili aldizkariak topatu zituzten eta Euskal Herriko mapa irudikatuta agertzen zenez, epaiketa egin zioten. Urtebeteko kartzela zigorra ezarri zioten.

72. Gerra ostean, doktrina euskaraz eta sermoiak erdaraz (BRZ-004/001)

Ondarroara heldu zenean, doktrina euskaraz ematen hasita zeuden. Bertako parrokoak ez zekien ia erdaraz baina sermoia erdaraz eman beharra zeukan. Medikua tradizionalista zen eta eragin handia zeukan hizkuntzei zegokienean ere.

73. Aste Santuko kontzertua (BRZ-004/002)

Tipleak zeuden bera heltzerako, eta berak hogeita hamarreko talde bat hautatu zuen. 1957ko Aste Santuan kontzertua egin zuten, elizako abesbatzarekin eta orfeoiarekin batera. Handik sortu zen gabonetako antzerkia.

74. Ikastolaren sorrera (BRZ-004/003)

1957an egin zuten euskarazko antzerkia lehenengo aldiz frankismo garaian, gabonetan. Giro horretatik sortu zen ikastola. Euskaltzaleak etxeetan batzen hasi ziren. 1964 inguruan hasi zen ikastola, haurtzaindagi modura. Hasiera zelakoa izan zen kontatzen du. Berriatuako udalak baimena eman zuen eta tituludun irakaslea lortu zuten.

75. Umerik ez zutenen babesa ikastolari (BRZ-004/004)

Elkarte ekonomikoa sortu eta solairu oso bat erosi zuten, oinarrizko hezkuntza martxan jartzeko. Zailtasunak izan zituzten. Herritarren mugimendua izan zela dio. Umerik ez zuten herritar askok kuota ordaintzen zuten.

76. 1967an sortu zen ikastola (BRZ-004/005)

Ikastolaren lehenengo urteetako lokalak zein izan ziren azaltzen du. 1964an sortu zen Kresala taldea, Txomin Agirrerren "Kresala" liburuaren mendeurrenaren harira. 1967an sortu zen ikastola. Legeztatzea zelakoa izan zen dio.

77. Ikastolen gizarte segurantzaren (BRZ-004/006)

Hasieratik ordaindu zieten irakasleei. Ikastolak berak sortutako gizarte segurantzaren zeukaten.

78. 1969an atxilotu egin zuten (BRZ-004/007)

Lehenengo urteetan, irakasleak fitxatuta egoten ziren baina tituluarekin defendatzen zuten beren burua. Ikastolen kontua mugimendu politikoa izan zen. Horren harira, 1969an atxilotu egin zuten, lehenengo salbuespen legea atera zutenean. Sarekada bi egin zituzten Bizkaian.

79. Espainiar banderak estaltzearren, isuna (BRZ-004/008)

Ondarroako koartelera eraman zuten atxilotu zutenean. Pilarika egunean, Guardia Zibilen eguna izaten zen eta meza berezia ospatzen zuten, elizan ikurrak ipinita. Egun hartan hileta suertatu zen eta espainiar banderak estali zituzten. Horregatik, 25.000 pezetako isuna jaso zuen eta, adostuta zeukaten moduan, ez zuen ordaindu.

80. Zamorako apaizentzako kartzelan (BRZ-004/009)

Isuna zuten apaizak sarekadan atxilotu egin zituzten. Txomini zer gertatu zitzaion kontatzen du. Hilabete egin zuten Zamorako apaizentzako kartzelan. Pilotan aritzeko modua topatu zutela kontatzen du.

81. Kartzelaldi gogorra eta bizipen politak (BRZ-004/010)

1969an atxilotu egin zuten eta kartzelaldi gogorra bizi izan zuen. Norbait yoga egiten lehenengo aldiz hantxe ezagutu zuen. Gauero desfilea egiten zuten, Eusko Gudariak abestuz.

82. Kili-kili aldizkariak izatearren, epaiketa (BRZ-004/011)

1968ko kartzelaldia laburra izango zela bazekitenez, ondo samar hartu zuten. 1969koa gogorragoa izan zen; epaiketa egin zioten, Kili-kili aldizkariak izatearren, eta hiru urterako kartzela zigorra ezarri zioten.

83. Epaiketa arintzea lortu (BRZ-004/012)

1969an jende asko atxilotu zuten eta Indautxura eraman zituzten. Epaietak arintzea lortu zuten. Urtarrilean kartzelan sartu eta maiatzean epaiketa izan zuen. Funtzionarioek hogeita lau orduz zaintzen zuten.

84. Burgosko epaiketako emakumeei kantuan (BRZ-004/013)

Burgosko epaiketako emakumeei batera egon zen kartzelan. Patioan beste batekin batera abestu egiten zieten emakume haiei. Kanta abesten du.

85. Txema Unzueta abokatu (BRZ-004/014)

Epaiketaren biharamunean, etxera bidali zuten. Txema Unzueta izan zuen abokatu. Hiru urteak bete zituen kartzelan.

86. 1973ko sarekada Ondarroan (BRZ-004/017)

Apaizak epaitzeko gotzainaren baimena behar zen. 1973n sarekada handia egin zuten Ondarroan, beste Salbuespen Lege batengatik. Sarekadetan beti apaizen bat atxilotzen zuten. Ondarrutar bati gertatutakoa kontatzen du.

87. 1973ko sarekadako arduraduna (BRZ-004/018)

1973an Montejurrara joaten zen emakume karlista bat ere atxilotu zuten sarekada hartan. Capitan Hildagori buruzkoak kontatzen ditu. Bera ez zuten ukitu baina herritar asko egurtu zituztela dio.

88. Ondarruko patroï bat torturatu zuten (BRZ-004/019)

1973ko abenduko egun batean, lanera zihoala atxilotu zuten eta Bilbora eraman. Bera atxilotzeko asmatu zuten istorioa kontatzen du. Ondarruko patroï bat torturatu egin zuten.

89. Poliziaren montajea (BRZ-004/020)

Añoberos gotzaina bisitan joan zitzaionean, torturaren berri eman zion Imanolek eta gotzainak ez zuten Imanol epaitzeko baimenik eman. Torturatu zuten ondarrutar patroiarri epaiketa arin egin zioten eta bera testigu eraman zuten. Poliziek asmatu zuten montajea oso txarra zenez, biharamunean etxera bidali zuten ondarrutarra.

90. 1975eko sarekadan 82 urteko emakumea beldurrez hil (BRZ-004/021)

1975ko Salbuespen Legearen harira, berriz atxilotu zuten Imanol. Koldo Arriola hil egin zuten orduan. 82 urteko emakume baten etxera joan zen polizia eta atea bota eta metrailetekin sartu zirenean, momentuan bertan hil zen emakumea.

91. Meza politikoak eta Espainiako himnoa elizan (BRZ-006/002)

Guardia zibilak norbanako gisa joango ziren mezatarra. Bestela, Pilarika egunean, beraien egunean, izaten zuten meza. Udalaren mezetara Guardia Zibilen burua joaten zen eta meza politikoak ere egiten ziren. Kontsakrazioan Espainiako himnoa jotzen zen. Berak hori kendu egin zuten eta sarrera-irteeretan bakarrik jarri. Meza ere orduz aldatu zuten momentu batean, jada meza politikoetara herritarrik ez zelako joaten. Zenbaitek sekula ez zion Imanol deitu, beti "don Manuel".

92. 1964 inguruan hasi ziren mezak euskaraz (BRZ-006/003)

Vatikanoko II. Kontzilioak aldaketa nabarmenak ekarri zituen. Ordura arte mezak jendeari bizkarra emanda eta latinez ematen zituen apaizak. 1964 inguruan hasiko ziren mezak euskaraz. Garrantzitsua izan zen Lapurdin Belokeko monasterioan beneditarrek euskarazko materiala prestatzen egindako lana. Sortu ere egin behar izan zuten materiala. Kantak euskaraz aurretik ere abesten ziren.

93. Garai batean meza "entzun" bakarrik; abadeak eta sermoiak (BRZ-006/005)

Meza latinez eta jendeari bizkarra emanda ematen zenean, herritarrek ez zuten mezan parte hartzen, entzun bakarrik; "meza entzun" esaten zen. Sermoiak euskaraz edo gaztelaniaz izaten ziren pulpitutik. Mezak bertako hizkuntzan emateko aukera jarri zenean, meza batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz. Ondarroan zeuden abadeak eta bakoitzaren sermoiak.

94. On Manuel abadearen "komunitate-aitortzak" (BRZ-006/006)

Konfesioak bakoitzaren hizkuntzan egiten ziren. Ondarroako elizan lau aitorleku zeuden. Zer abade egoten zen bakoitzean. Umeak ilaran jartzen ziren konfesatzeko. On Manuel nekatu egiten zen umeen konfesioak entzuten eta aitorlekutik irtenda absuluzioa ematen zien denei.

95. Elizak seigarren mandamentuari ematen zion garrantzia (BRZ-006/009)

Garai batean elizak garrantzia handia ematen zien seigarren eta bederatzigarren mandamentuei, sexu-harremanekin lotutakoei. Emakume bat ezkondu gabe haurdun geratzen bazen, markatuta geratzen zen. Hortik dator genero berdinekoen arteko harremanak ez onartzea ere.

96. Primo Zengotitabengoaren jabetzak (BRZ-009/002)

Inguruko zenbait etxe Primo Zengotitabengoarenak ziren. Hotela dagoen lekuan lantegia zegoen. Lau arotz eta hiru "armero", anaiak. Horietako bat Afrikan hil omen zen gerran. Primoren alaba: Aurea Zengotitabengoa. Felipe Alberdirekin ezkondu zen.

97. Felipe Alberdiren inguruko kontuak (BRZ-009/004)

Felipe (Alberdi) Ganekoetxean jaio zen. Etxe aurreko bolatokiaren parean "Palazio zaharra" esaten zioten etxea zegoen. Kanpotik egurrezko eskailera zuen. Felipe `Berdugo´aren aita trenbideetako nagusia zen. Feliperen lehenengo emaztea Eskoriatzakoa zen eta bi seme-alaba izan zituen harekin. Gero Aurea Zengotitabengoarekin ezkondu zen. Aurearen ama on Luis Mari Gaztelurrutia abadearen arreba zen. Gazterik hil zen eta senarra, Primo Zengotitabengoa, alargun geratu zen bi alabarekin: Aurea eta Dominga. Dominga moja joan zen, misioetara edo, eta ez zen gehiago itzuli.

98. Bidazpi eta Bizkargan etxeak (BRZ-009/006)

1934an hasi ziren Bidazpi etxea egiten. Aurretik, 1929an, depositua egin zuten eta 1931n ura ekarri. Bizkargan etxea egiten ibili ziren lehenengo.

99. Gerra sasoiko liskarra udaletxeko bileran (BRZ-009/008)

1931n Angel Alberdi zen Berrizko alkatea. Garai batean udaletxea eta eskola non zeuden. Gerra sasoian bertan egin zen bilera batean Evaristo `Maketo txikia´ren eta Felipe Alberdi `Berdugo´ren artean sortutako liskarra.

100. Etxean egindako ogia, artoa eta tremesa (BRZ-009/012)

Labea zuten etxean eta ogia egiten zuten. Artoak ere erretzen zituzten eta tremesak ere egiten zituzten. Felipe Alberdiren semeak Madrildik etortzen zirenean beraien etxera joaten ziren eta tripakada ederra egiten zuten.

101. Bidazpi etxea egiten ibili zen 1934an (BRZ-009/014)

Inguruko etxeak (Bidazpi eta Bizkargan,) berriak dira. Ura jarri zutenean egin ziren. Hainbat jabetza Markinako Urquijori utzi zizkiotela kontatzen du. Bera ere ibili zen Bidazpi etxea egiten 1934an. Lehen data ere jarrita zeukan, baina kendu egin zioten.

102. Bidazpi etxea; beheko sua etxeetan (BRZ-009/017)

Bidazpi etxea nahiko azkar amaitu zuten eta jada 1935 ingururako etorri ziren bertara bizitzera. Haizete handi batzuek teilatua eramane zioten, baina beraiek jarri zuten berriro, idiekin ekarrita. Etxearen inguruko azalpenak. Garai batean etxeek beheko sua zuten. Hormastegi inguruetakoa jatetxe ezagunena zen eta ez ei zuen beste surik.

103. Berrizko lehenengo Batzokia (BRZ-009/019)

Errementariaren lantokia zegoen lekuan eraikina jaso eta bertan jarri zuten lehen Batzokia gerra aurrean. Primo Zengotitabengoari eskatu zioten lehenbizi, baina hura karlista zen. Hala ere, ondo konpontzen ziren: Karteruenean karta-jokoan jarduten zuten elkarrekin. Primok politikaz esaten zuena.

104. Aitita karlistadetan; Santa Cruz apaiza Betzuenen (BRZ-009/020)

Karlistadak. Aitita, Julian Albizuri, Gipuzkoatik (Loiola inguruko Albizuri baserritik) Betzuenera etorria zen. Santa Cruz apaiza Betzuenen eduki omen zuten gordeta. Aititak orduan bizitakoak. Preso hartu eta Santoñan eduki zuten kartzelan hiru urtez. Hezetasun handia zegoen kartzelan eta haren ondorioz hil zen.

105. Dolores Ibaruri Berrizko Batzokian (BRZ-009/022)

Dolores Ibaruri Berrizko Batzokian egon zenean Jose Mari ere bertan egon zen, haren mitina entzuten. Euskaraz hitz egin zuen. Jende asko egon zen. Gallartakoa zen.

106. Gerrako ibilerak; Mola jeneralaren heriotza (BRZ-009/025)

Gerra zibilean Mungia batailoian ibili zen. Durangoko abokatu batzuek osatu zuten batailoia. Ondarroan hasi zuten beraiek gerra, Jose Antonio Agirrerekin batera. Toledon eman zion amaiera gerrari. Gerrako bere ibilerak eta bizipenak. Mola jenerala hil zutenean Sollubean zeuden. Francok Mola hiltzea nahi zuela dio, kargua berak hartzearen.

107. Ezkontza biko familiak (BRZ-011/003)

Lehen ohikoa zen ezkontza bikoak izatea. Ama hilez gero, beste batekin ezkontzen zen aita.

108. Zaldibartarra sentipenez (BRZ-011/004)

Eskolara Zaldibarrera joaten zen, baita mezetara eta gainontzeko gauzetara ere. Elizaz Zaldibarkoa da Antzua, eta sentipenez ere zadibartarra da Azpitarte.

109. Maria Valeriana maistrak izena aldatu (BRZ-011/006)

Bere maistra Maria Valeriana izan zen, erdalduna. Izenarekin izandako gorabeherak kontatzen ditu, maistrak izena aldatu baitzion. Anekdota barregarria kontatzen du.

110. Bilboko Karmeldarren komentuko espetxean (BRZ-011/007)

Karmeldarren komentua, Bilboko Karmelo kalean, espetxe moduan ipini zuten gerra garaian eta hantxe topo egin zuen Maria Valeriana maistrarekin. Aita eta beste asko zelan egon ziren kartzelan kontatzen du, eta bere ustez nork salatu zituen ere bai.

111. Aita eta beste asko preso (BRZ-011/008)

Aita preso eraman zuteneko zehaztasunak ematen ditu. Zaldibartik eta ingurutik hemezortzi lagun batera eraman zituztela kontatzen du.

112. Errefuxiatuen taberna (BRZ-011/009)

Segundo Sarriguarte gerra garaian salatu zutela kontatzen dute. Errefuxiatuek bere tabernan jaten zuten. Antzuan hiru familia eibartar egon ziren babestuta. Haiei buruzkoak kontatzen ditu.

113. Abertzaleei botoa ematearren, aita preso (BRZ-011/010)

Aita, gerra garaian, abertzaleei botoa eman izanagatik salatu zuten. Aita eraman zutenekoa kontatzen du.

114. Aitarengana kartzelara bisitan (BRZ-011/011)

Aitari deliturik ez zioten topatu; ez zioten epaiketarik egin eta libre utzi zuten. Aitarengana bisitan joaten zen eta edateko ura eramaten zion.

115. Bisitariak eta presoek orroka berba egin behar (BRZ-011/012)

Gregoria izeneko emakume bat kartzelan egon zen, Larrinagan. Patxi "Aboro" ere Larrinagan egon zela kontatzen du. Aita bisitatzera joaten zenean, zain denbora asko ematen zuen eta oso denbora gutxi egoten zen aitarekin. Orroka berba egin behar izaten zuten.

116. Aita kartzelatik ateratzeko, oiloa eta txitak opari (BRZ-011/014)

Aita libre laga zuten. Evaristo Zabalak `Berdugo´ari oparia lagatzeko gomendatu zien, aita libratzeko eragin zezan, eta oiloa txitekin laga zioten. Anaia frankistekin ibili behar izan zen gerran.

117. Antzua baserrian errentero (BRZ-011/015)

Antzua baserrian errenteroak ziren. Amantegi administrariak boto paperak bidali zituen markatuta. Algortan bizi zen konderen bat zen baserriaren jabea. Errepublikaren garaian errenteroei baserriak eskuratzeko erraztasunak emateko legea atera zutela kontatzen du Placidaren senideren batek.

118. Baserriaren administratzailea kontu eske (BRZ-011/016)

Errenteroak beldurrez egoten ziren, markatutako botoa ez aintzat hartzeko. Amari administratzailearekin gertatu zitzaiona kontatzen du.

119. Karlisteri buruz berba egitearren, mehatxua (BRZ-011/017)

"Karlisteri denak dira dominante batzuk" esan zuen Placidak kalean, aitari entzunda, Julian irakaslearen aurrean, eta hark mehatxatu egin zuen. Ez zuen inoiz ikusi ilea moztu zioten emakumerik.

120. Senarra atxilotuta eta Derion lanean (BRZ-011/020)

Landin izeneko familia ezagutu zuen Placidaren senarrak, Derion errepublikarrekin zegoenean. Bilbon medikuak ziren. Placidaren senarra ertzain ibili zen. Gero, Bilbon atxilotu egin zuten, institutuan, eta Deustura eraman. Celestinak kontatzen zuen senarra tiroz hil ziotela.

121. Gerra hasi zenean, Bilbon neskame (BRZ-011/022)

Gerra hasi zenean, albistea jaso zuten neba etxera etortzekoa zela, baina ezin izan zuen etorri. Bilbon neskame zegoen eta etxera joan zen.

122. Gerrako hegazkinak pasatzen zirenean (BRZ-011/023)

Gerra garaian, iloba bat zeukaten etxean laguntzen. Hegazkinak pasatzen zirenean, beldurtu egiten ziren. Belar-metaren azpian zeukaten zulo batean sartzen ziren, babesleku modura. Pasarte barregarriak kontatzen ditu.

123. Eibartar errefuxiatuak etxean (BRZ-011/024)

Ganbaran hiru familia eibartar izan zituzten, errefuxiatuta. Gerra aurrean familiako bezeroak ziren. Txahala estraperloan hil zuten.

124. Tuneleko babeslekua eta frankisten sarrera (BRZ-011/025)

Frontea gerturatu zenean, Tia Katalinarekin tunelera, babeslekura, joan zen Placidaren ahizpa bere urtebetetze egunean. Frankistak zelan sartu ziren ikusi zuten. Biharamunean, hiru erreketek agertu ziren Zaldibarrera eta hurrengo egunetan ogi zuria ematen zieten.

125. Uribeko auzo-eskolan instrukzioa (BRZ-011/026)

Placidaren ahizpa, frankistak sartu ostean, Uriben ibili zen eskolan eta hango bizipenak kontatzen ditu. Instrukzioa eginarazten zieten.

126. Gerra garaian, errenteroak etxetik bota (BRZ-011/029)

Errentero asko etxetik bota zituzten gerra garaian. Antzua baserriko jabea kanpotarra zenez, ez zuten joan beharrik izan.

127. Morroi, batetik bestera (BRZ-012/002)

Eskolan zortzi urtera arte ibili zen eta, ondoren, bederatzi urterekin, Kanpazarrera joan zen morroi. Negarraldiak egiten zituen. Hiru urtez egon zen. Handik Angiozarrera (Bergara) joan zen morroi. Handik Sorraluzera, trintxerak egitera.

128. Umetako oroitzapenak: eskola eta jolasak (BRZ-012/005)

Miotako eskolara joan zen. Maistrak erdaraz egiten zuenez, ez zuten askorik ulertzen. Pilotan aritzen ziren. Umetako lagunak izendatzen ditu. Intxaurrekin jolasean zebilela, lagunarekin borrokan egin zuen. Jolasa azaltzen du.

129. Limoi-ura banatzen eta ikatza saltzen Sorraluzen (BRZ-012/006)

Sorraluzen limoi-ura banatzen aritzen zen, "The Soda Water" Berrizko lantegiaren biltegi batean. Korneta jo eta ikatza saltzen zuen.

130. Soraluzeko bonbardaketak (BRZ-012/007)

Gerra hasi zenean, Soraluzen zegoen. Elosuko tontorretik bonbardaketa ikusi zuen. Ilordo menditik kainoi fabrika bonbardatzen zuten gorriek. Astero etxera joaten zen, amari dirua ematera.

131. Jauna jatearren, bekatari (BRZ-012/008)

Elizara ez zen askorik joaten. Lehenengo jaunartzea egin aurretik, jauna janda zeukalako, bekatari sentitzen zen.

132. Berriz okupatu zutenean, etxera (BRZ-012/010)

Gerra hasi zenean, Soraluzen geratu zen. Nazionalek Berriz hartu zutenean, etxera joan zen, baina ez zegoen inor, familiakoak Santanderrerraino joan zirelako gurdi eta guzti.

133. Kotxea Soraluzera blindatzera (BRZ-012/011)

Berrizko kotxe bat Soraluzeko kainoi fabrikara eraman zuten blindatzera. Lehertu egin zuten gero.

134. Soraluzera tropa "moroak" sartu zirenean (BRZ-012/012)

Soraluzera tropak sartu zirenekoa kontatzen du. Bergaratik moroak sartu ziren eta gorriek treneko bagoietan ihes egin zuten. Berari esan zion moro batek: "tú, rojo separatista, a ti matar".

135. Etxeetako gauzak errekitatzen Soraluzen (BRZ-012/013)

Etxetik joan zirenei gauzak errekitatzen aritu zen Soraluzen. Koartelera eramaten zituen.

136. Falangistak eta "txapel gorriak" herrian (BRZ-012/015)

Gogoan du falangistak eta "txapel gorriak" kalean ikusi izana, baita herrikoak ere. Izenak esaten ditu. Desfileak egiten zituzten.

137. Bere anaiak gerran (BRZ-012/016)

Emilio eta Luis bere anaiak Kirikiño batailoian ibili ziren. Eulogio, beste anaia bat, Ebron hil zen, soldadu zegoela. Justo, beste anaia bat, berriz, langileen batailoira eraman zuten.

138. Soldadutza Afrikan eta Bizkaian, sei urtez (BRZ-012/019)

Soraluzetik soldadu eraman zuten, gerra bukatuta zegoela. Afrikan egon zen eta hiru urtera lortu zuen etxerako baimena. Gero Bizkaian egon zen soldadu. Urduñan kuartelean egoten ziren.

139. Soldadutzako pasarteak (BRZ-012/020)

Soldadutzan zegoela, Afrikan bizi izandakoak kontatzen ditu. Juan Otadui eta Zaldibarko Felix ere han ibili ziren berarekin.

140. Ama aina etxean bertan (BRZ-012/022)

Bere amak aberatsen semeei ere bularra ematen zien etxean.

141. Kanpazartik etxera Gabonetan (BRZ-012/023)

Kanpazarren morroi egon zenean, Gabonetan itzultzen zen etxera. Arrasatera joaten zen esnea saltzera. Pasarte bat kontaktzen du.

142. Gerra osteko parrandak (BRZ-012/024)

Gaztetxotan egiten ziren antzerkiak gustatzen zitzaizkion. Makien garaian, gerra ostean, Kanpazarren eta Angiozarren egindako gaiztakeria kontaktzen du.

143. Lagunarteko parrandak (BRZ-012/025)

Lagunartean zeintzuk ibiltzen ziren kontaktzen du. Pasarte barregarria kontaktzen du. Gerra ondorengo parrandak aipatzen dituzte.

144. Bonbardaketetako hegazkinak pasatzen (BRZ-012/031)

Otxandioko bonbardaketaz ez zuten askorik entzun, baina Durangoko eta Gernikako bonbardaketez bai. Hegazkinak pasatzen ziren Soraluzetik. Emazteak kontaktzen du Elorrion babeslekura joaten zirela.

145. Gerra garaian Soraluzen lanean (BRZ-013/001)

Hamalau urterekin Soraluzen hasi zen lanean, gerra garaian, berriztar askorekin batera, gerrarako baliabideak egiten. Gerra bukatutakoan, lantegiek jaitsiera handia izan zuten.

146. Beharginak, denak sozialistak (BRZ-013/002)

Ladrilleroen etxean jaio zen, baina gero beste etxe batera joan ziren bizitzera. Beste familia bati buruzkoak. Aititak Alfa lantegirako lan egiten zuen. Gerra aurreko politika konturik ez daki. Beharginak denak sozialistak zirela dio.

147. Berrizko eskolak (BRZ-013/003)

Eskolara udaletxe zaharrera joaten zen, Don Leon maisuarekin. Errepublika garaian jauregian jarri zuten eskola eta hara pasatu ziren. Andikoa auzoan, bertan zegoen eskola.

148. Goitarrak eta behetarrak borrokan (BRZ-013/004)

Errepublika garaian, plaza, bolatokia eta frontoia egiteko bozkak antolatu zituzten, bi aldiz, herriaren goialdean ala behealdean egin erabakitzeko. Goitarren eta behetarren arteko ika-mikak.

149. Beheko eskolako maisuak (BRZ-013/006)

Beheko eskolara jaitsi zirenean, maisu erdalduna izan zuten. Zati batean Olano ere izan zuten maisu. Urtiagak eta Olanok Urtiola izeneko akademia izan zuten Eibarren.

150. Frontoian egun guztian (BRZ-013/007)

Frontoia egin zutenean, eguna hantxe pasatzen zuen lagunekin. Goizeko seietan jaikitzen ziren pilotan jarduteko. Gainontzeko jolasak.

151. Gramola eta karta-jokoa (BRZ-013/009)

Igandeetan emakumeak jokora joaten ziren. Izenak esaten ditu. Etxetik erromeria ikusten zuten. Gerra aurrean, gramolarekin ipintzen zuten musika.

152. Aita errazionamendu bila Bilbora (BRZ-013/012)

Herritarrek lan egiteari utzi zioten, frontea gerturatu zenean. Aita errazionamendua ekartzera Bilbora joaten zen, Periko Errotakoarekin. Umeak ziren eta ez ziren gehiegi konturatzen.

153. Ihesi lehenengo, gurasoak kartzelara gero (BRZ-013/013)

Zallara ihesi joan ziren familia guztia, Zezilio taxilariarekin. Aita eta ama eraman zituztenean, lau neba-arreba geratu ziren. Handik etorri zirenean, ezer ez zeukatela geratu ziren. Neba-arrebak neskame eta morroi joan behar izan ziren.

154. Soldaduak etxean (BRZ-013/014)

Lehenengo Bilbora eta gero Zallara joan ziren ihesi gerra garaian. Jesusen emaztea ez zen inora joan; bere etxean soldadu zaurituak artatzen zituen medikuak.

155. Gerra garaian morroi (BRZ-013/015)

Morroi egon zenean egiten zituen lanak aipatzen ditu. Xentimorik ez zuen ikusi urtebetea. Handik Soralezera joan zen lanera.

156. Aita eta ama kartzelan (BRZ-013/016)

Gurasoak kartzelan egon zirenean, amarengana Saturraranera joan ahal izan zen. Aitari ezin izan zion bisitarik egin. Etxe batetik bestera ibili zen morroi. Ez dauka gogoan ama zein egunetan itzuli zen. Ama bihotzekoaz eta zahartuta itzuli zela dio. Hiruna urte egin zituzten gurasoek kartzelan.

157. Gurasoen kartzelako kontuak (BRZ-013/017)

Saturrarango kartzelako kontuak kontatzen zizkien amak. Aita Iruñeatik Galiziarra eraman zuten eta han bizitakoak kontatzen zizkien.

158. Gerra garaian herri giro eskasa (BRZ-013/018)

Aita eta ama kartzelan zituela, ez zuen lagunik izan. Morroi zegoen eta ez zuen inor ikusten. Denak beldurtuta ibiltzen ziren. Gogoan du berba zatarrak esan zizkiotenekoa.

159. Gerra bukatutakoan, Berrizbeitiara bueltan (BRZ-013/019)

Gerra bukatutakoan, Berrizbeitiara itzuli ziren aitarekin eta amarekin, baina etxea ez zegoen batere ondo eta ez zeukaten ezer.

160. Gerra aurretik, bizimodu ona; ondoren, miseria (BRZ-013/020)

Gerra aurretik, ondo bizi ziren etxean. Debara joaten ziren hondartzara, maiatzaren lehenean Eibarrera joaten ziren... Gero, miseria ezagutu zuten.

161. Aita kartzelatik bueltan, denekin ondo (BRZ-013/021)

Aitak kartzelatik bueltan ere umore onarekin jarraitu zuen. Aitita errekadista zen eta diru asko zeukan gerra aurrean, baina ezer gabe geratu zen gero.

162. Maizterrak etxeetatik bota zituzten (BRZ-013/025)

Gerra garaian maizterrak atera egin zituzten etxeetatik. Hainbat adibide ematen ditu.

163. Soldaduen egonaldia baserrian (BRZ-013/026)

Jesusen emazteak kontaktzen du milizianoak, gudariak apaiza eta medikua egon zirela etxean gau batez. Frankistek egonaldia egin zuten etxean.

164. Hildakoak lurperatuta mendian (BRZ-013/027)

Jesusen emaztearen etxe inguruan, hildako soldaduak lurperatu zituzten, baina ez daki nortzuk ziren. Ez omen zituzten inoiz atera. Zein ingurutan dauden azaltzen du.

165. Durangoko bonbardaketa (BRZ-014/002)

Bere ahizpa zutabe batek jo zuen Durangoko bonbardaketan komentuan. Bonbardaketaren egunean ohean zegoen eta akorduan daukana kontaktzen du. Lehengusina bat bonbardaketan hil zitzaion.

166. Eskola garaian, bazkaltzeko ogia eta txokolatea (BRZ-014/006)

Zazpi urterekin hasi zen eskolan eta hamalau urtera arte jarraitu zuen. Oinez joaten zen. Bazkaltzeko, ontza bat txokolate eta ogia eramaten zuen; noizbait urdaia ere bai.

167. Eskolako maistrak (BRZ-014/009)

Komentuko maistrak izendatzen ditu eta bakoitzari buruzko aipamenak egiten ditu. Makila erabiltzen zuten.

168. Eskolan amantal zuria eta abarketak (BRZ-014/010)

Eskolan ez zuten uniformerik erabiltzen. Amantal zuria janzen zuten, zenbaki banarekin. Eskola barruan abarketekin ibiltzen ziren.

169. Eskolako antzerkiak eta gela iluna (BRZ-014/011)

Eskolan antzerkirik ez zuten egiten, baina besteena ikusi bai. Zati bat interpretatzen du. Ikasi beharrekoa ez bazekiten, gela ilunera bidaltzen zituzten. Gelakideak izendatzen ditu.

170. Euskaraz berba egiteagatik, eraztuna (BRZ-014/012)

Pianoa jotzen zuen batek eta kantuz ere asko aritzen ziren. Hasieran, euskaraz abesten zuten, baina gero debekua etorri zenean, euskaraz berba egiteagatik eraztuna jartzen zieten.

171. Olgetan txirikiletan, sokarekin eta tortolosekin (BRZ-014/013)

Olgetan txirikiletan edo sokarekin ibiltzen ziren. "Al cocherito, lere" abesten zuten. Tortolosekin eta kanikekin ere ibiltzen ziren.

172. Gerran fusilatu zituzten berriztarrak (BRZ-014/014)

Gerran fusilatu zituzten berriztarrak. Felipe Urtiaga ezagutu zuen. Fusilatu zituzten hirurak ezagutzen zituen. Haiei buruzko iritzia ematen du.

173. Milizianoekin topo egin zuenekoa (BRZ-014/015)

Gerra garaian, ama Aborora joaten zen babeslekura. Ahizparengana Gaztelura joan zen eta ezkutalekuan egon ziren biak. Milizianoekin topo egin zuenekoa kontatzen du.

174. Milizianoak baserrian lapurretan (BRZ-014/016)

Gerra garaian, aita basoan egoten zen etxea zaintzen, ama Aboron eta bera beste neskatala batzuekin ezkutuan. Zaldia, gurdia eta zakuak kentzen saiatu ziren milizianoak. Etxean ezkutatuta geratu ziren.

175. Milizianoek bizikleta eta behiak eraman (BRZ-014/017)

Milizianoek nebari bizikleta kendu zioten. Behiak kendu zizkieten beste batzuei. Gerra garaian, bizilagunek ere ez zuten alde egin etxetik.

176. Durangora saltzera (BRZ-014/018)

Soroan aritzen zen lanean eta Durangora eramaten zituen barazkiak saltzeko, trenbidean zehar, otzara buruan hartuta. Astoarekin eta gurdiaekin ere ibili izan zen gero. Buruan sorkia ipintzen zuten.

177. Gudariantzat esnea (BRZ-014/020)

Gerra garaian, erreketek sartu aurretik, udaletxera esnea eramaten zuten, lehenengo komitera eta gero Pantaleonenera. Soberakina txahalei ematen zieten.

178. Parranda gerra garaian (BRZ-014/021)

Errefuxiatuak ez zuten eduki etxean. Irratia zeukatzen baserri batera joan zen, Perdiletzara, eta erromeria ederra egin zuten. Gaupasa egin, meza entzun eta zaldiaekin eta gurdiaekin Markinara joan zen.

179. Irratiarekin parrandan eibartarrekin (BRZ-014/022)

Gerra garaian gaupasa egin zutenean, erromerian, eibartarrek ekarritako irriarekin, nortzuk ibili ziren kontatzen du. Pantaleonenean gramola zegoenean, dantzan ibiltzen zen.

180. Senarra gidari gerran; anaiak preso Santoñan (BRZ-014/023)

Gerra bukatu eta gero ezagutu zuen senarra. Gidatzen zekienez, janaria banatzen ibili zen leku askotan. Teresaren anaiak Santoñan preso egon ziren.

181. Gerra garaian, herritarrak esne eske (BRZ-014/024)

Gerra garaian, esne bila etortzen zitzaizkien batzuk etxera. Orduko pasarte barregarria kontatzen du.

182. Preso zegoen neba, jarrera onagatik etxera (BRZ-014/025)

Gerra garaian, Bittor neba preso zegoela, udaletxera paperak eskatu zituzten eta jarrera ona zeukala jarri zutenez, etxera itzuli zen.

183. Okindegian eta ura etxeetara eramaten (BRZ-015/002)

Urte batzuetan okindegian lan egin zuen. Urte askoan, ura topatu eta etxeetara eramaten aritu zen, bere kontura.

184. Lehenengo Errepublikaren eragina (BRZ-015/003)

1770ean baserrian mojak bizi ziren eta haiena zen etxea. Lehenengo errepublika proklamatu zutenean, mojei etxea kendu egin zieten. Bere jaiotetxearen eta ingurukoen berri ematen du. Primo de Riveraren garaian alkate zegoenaz berba egiten du.

185. Errepublika, batzuentzat ona, besteentzat txarra (BRZ-015/004)

Errepublika batzuentzat ona eta besteentzat txarra izan zela dio. Bere osaba, Fausto Aranzibia, alkateordea zen orduan. Juan Manuel Oruemazaga zinegotziari buruz berba egiten du.

186. Soldadutza urtebetekoa zen (BRZ-015/007)

Soldadutza Burgosen eta Donostian egin zuen urtebetez.

187. Goitarrak eta behetarrak, agindu nahian (BRZ-015/009)

Elizara Berrizera joaten ziren umetan eta geroago Zaldibarrera. Goitarren eta behetarren arteko tirabirak kontatzen ditu, agindu nahiagatik. Ama Marta Olano zuen.

188. Gerrara soldadu derrigorrez, bi bandoetan (BRZ-015/010)

Gerrara eraman egin zuten eta hiru urte egin zituen. 1937an Bilbora joan zen, "Rebelión de la Sal" izeneko gudarien batailoiarekin. 1936an Solaburu inguruan hainbat lagun hil zituztela dio, baita bertan lurperatu eta gero atera ere.

189. Gudari moduan hasieran (BRZ-015/011)

Gerra garaiko kontuak. Gudari ibili zenean, hasieran, Legution eta Intxortan ibili zen.

190. "Rebelion de la Sal" batailoia (BRZ-015/012)

Sarasola zen bere batailoiko komandantea. Berarekin batera "Rebelión de la Sal" batailoian zeuden berritarrak izendatzen ditu.

191. Bonbardaketak han eta hemen (BRZ-015/013)

Solaburun hil zituztenak gudariak ziren, erreketeeek hilda. Erreketeak San Juandik pasatu egin zirela dio. Mallabian bonbardaketa jasandakoak kontatzen ditu. Iruzubietara (Markina-Xemein) joan ziren gero. Gernikako bonbardaketa menditik ikusi zuen.

192. Errepublikarren aldeko soldaduak erreklutatzeraz (BRZ-015/015)

Guardia Zibila joaten zen etxeetara, errerepublikarren aldeko soldadu moduan jendea erreklutatzeraz. Karlistak zeintzuk ziren esaten du.

193. Karlistak herrian geratu ziren (BRZ-015/016)

Felipe Alberdi Madrilen bizi zen, gerra hasi zenean. Karlistak herrian bertan geratu ziren. Jende askok alde egin zuela dio. Milizianoekin derrigorrean ibili ostean, frankistek eraman zuten.

194. Preso karlistak askatu zituenekoa (BRZ-015/017)

Gerra garaiko kontuak. Gernikatik Galdamesera joan ziren. Han agintari ipini zuten. Elizan preso karlistak zeuden eta handik atera zituen, ezagunak zituelako. Boluetan pasa zituzten egun batzuk, Pedro Belaskoren etxean. Falangean afiliatu eta frontera ez joateko esan zion hark.

195. Erreketeekin Algortara (BRZ-015/018)

Erreketeengana joan zen beste batekin batera eta Algortara destinatu zituzten. Batailoia antolatzen ari ziren. Salatu egin zuten eta preso hartu. Epaiketa irabazi egin zuen. Donostiara eta handik Gasteizera bidali zuten.

196. Errekete, militar eta langileen batailoiko preso (BRZ-015/019)

Gasteizen zegoela, garia batzeko boluntarioak eskatu zituzten eta joan egin zen. Han, militar sartu zen eta Burgosera eraman zuten. Murgian ere egon zen eta ezagun asko ikusi zituen. Valentziara destinatu zuten eta okin lanetan aritu zen. Norbaitek "Muera Franco" idatzi zuen horman eta langileen batailoira eraman zituzten denak.

197. Langileen batailoian Avilan eta Segovian (BRZ-015/020)

Langileen batailoian hiru-lau hilabete egin zituen, Avilan eta Segovian. Alferezak handik atera zuen eta soldadu destinatu zuen Burgosen.

198. Lleidan frankisten sukaldari (BRZ-015/021)

Frankistekin militar zela, Burgosen egon eta gero, Fragara eraman zuten eta handik Lleidara, Bartzelonako presidentearen jauregira. Sukaldari aritu zen han. Pasarte barregarria kontatzen du.

199. Gerra bukatu arte, sukaldari (BRZ-015/022)

Frankistekin Lleidara joan zen. Eibarko tenientea, Txarola izenekoa, izan zuen bertan. Gerra bukatu arte sukaldari aritu zen. Batetik bestera eraman zuten. 1939an Malagan bukatu zuen zeregina.

200. Herrira itzulitakoan, miseria eta isiltasuna (BRZ-015/025)

1939an itzuli zen Malagatik etxera, San Pedro egunean. Ama ez zen inora joan ihesi; anaia Frantziara. Miseria topatu zuen herrira itzulitakoan.

201. Aita ez zuten preso eraman (BRZ-021/003)

Tomasen aita, Ildefonso, preso egotetik nola salbatu zen kontatzen du.

202. Durangoko bonbardaketa begien aurrean (BRZ-021/005)

Durangoko bonbardaketa zelakoa izan zen kontatzen du. Pagopean etzanda egon zen aitarekin.

203. Aita soinujolea (BRZ-021/007)

Aita soinujolea zen eta Batzokian jotzen zuen tarteka.

204. Julian maisu falangista (BRZ-021/008)

Itaurrean aritzen zen aitarekin eta eskolara gutxi joaten zen. Lehenengo udaletxean eta gero Odiagarekin ibili zen. Julian izan zuen maisu, elorriarra, falangista. Gogorra zela dio.

205. Soldadutzan soinujole (BRZ-021/010)

Soldadutzan soinujole moduan hartu zuten eta gizenduta etxeratu zen. Pirinioetan eta Etxalarren ibili zen.

206. Errefuxiatuak etxean gerra garaian (BRZ-021/013)

Gerra aurretik, taberna zeukaten etxean eta eibartar asko joaten zen kantura; emakumeak ere bai. Errefuxiatuak izan zituzten etxean, hogeita bat lagun, ganbaran.

207. Frontea etxean bertan (BRZ-021/015)

Santamainan trintxerak daudela dio. Esku-bonba topatu zuen, baita hildakoen gorpuak ere. Frontea bertan izan zuten, etxe ondoan. Ibarrangelura joan zen orduan familia guztia, abereak hartuta. Amama eta bere neba geratu ziren etxean, zaurituak zaintzen.

208. Ibarrangelura ihesi (BRZ-021/016)

Gerratean etxetik alde egin zuten, abere eta guzti. Bere osaba karlista bat Ibarrangelun zegoen eta haren etxean hartu zuten babes. Etxera itzulitakoan, hildakoa zegoen etxean.

209. Jose Maria Ugaldea nola hil zuten (BRZ-021/017)

Etxe ondoan karlistak egon ziren eta tiroak botatzen zituzten. Jose Maria Ugaldeari gertatutakoa kontatzen du; hil egin zuten.

210. Gerra garaian lurperatutako hildakoak non dauden (BRZ-021/018)

San Juan auzoan hildakoak milizianoak zirela dio. Moro bi lurperatuta daudela oraindik dio. Beste hainbat izendatzen ditu. Berrizen beste hainbat ere badaudela lurperatuta entzun izan du.

211. Aita kartzelan eta etxea prezintatu nahi (BRZ-022/004)

Bere aita Karrantzan harrapatu zuten, trintxerak egiten ari zela eta kartzelaratu egin zuten. Amama eta amamaren neba baserrian topatu zituzten, gizonetzko bat etxea prezintatzera joan zenean. Isunak ipini zizkieten.

212. Gerra ostean, familia batzuk etxetik bota (BRZ-022/006)

Gerra ostean, etxetik bota zituzten familia batzuek etxe jabeek. Beraiek ere berriz ordaindu behar izan zuten etxea.

213. Espiak eta isunak (BRZ-022/009)

Berriztar batek beraien txakurra hil zuen, beraien etxe barruan zeudenen berbarik ez zuelako entzuten. Gero aitari isuna ipini zioten, etxean jendea hartzearren.

214. Kartzelako fusilamenduak (BRZ-022/014)

Aitak kontatzen zien kartzelan egunero bat fusilatzen zutela eta tiroak entzuten zituztela.

215. Janaria gorde behar soldaduek ez eramateko (BRZ-022/016)

Gerra garaian, janaria gorde behar izaten zuten, soldaduak joaten zirelako eta ezer ordaindu ez. Durango zela erre zuten kontatzen du.

216. Izeko Carlton hotelean lanean (BRZ-023/002)

Bederatzi anai-arrebatatik bakarra ezkondu zen, Iñakiren aita bakarrik. Bere izeko Tomasa moja zen, baina errepublika garaian etxeratu eta ez zen berriz komentura joan. Carlton hotelean lan egiten zuen, Iñakiren aitita preso sartu zutenean.

217. Osaba Elias abadea, soldadu joan behar (BRZ-023/003)

Bere osaba Elias abadea izan zen. Frankistak Berrizen sartu zirenean, parrokoak ez zion meza ematen utzi. Orduan, soldadu bidali zuten. Gerra amaitu bezperan, meza ematea lortu zuen Eliasek.

218. Gerra garaian babeslekura (BRZ-023/004)

Gerra garaian, babeslekura nola joaten zen gogoratzen du.

219. Batzokira joaten zirenak (BRZ-023/006)

Aitita trenbideetako langilea zen. Plazido Arriaga zen EAJko lehendakaria. Aitita Batzokira joaten zen; han nortzuk batzen ziren kontatzen du.

220. Aita abereekin ihesi Deriora (BRZ-023/008)

Osabaren bizikleta bonbardaketan apurtu zela kontatzen du. Osaba Eliasek kontatu zion Berrizera sartu aurretik, erreketek mendian zebiltzala. Aita ordurako joanda zegoen ihesi, abereekin, Derioraino. Errepublikaren aldekoekin soldadu joateko bere bila ibili zirela kontatzen du. Etxerako bidean ia fusilatu egin zuten.

221. Aitita preso eraman zuten (BRZ-023/014)

Aitita etxetik eraman zuten eta preso sartu. Aldamenekoak belarrondoan lapurtu ziela kontatzen du.

222. Aitita kartzelan Galizian (BRZ-023/016)

Bere aitita abertzalea zelako eta landa batekin izandako tirabirengatik sartu zutela preso kontatzen du. Bilbotik Galiziara eraman zuten kartzelara. Berarekin batera kartzelan egon zirenen berri ematen du.

223. Berriztarrak Jerusalemera XIX. mendean (BRZ-023/017)

1940an itzuli zen aitita kartzelatik. Senideen berri ematen dute. Jerusalemera joan ziren berriztarren bidaiaren berri ematen du.

224. Benito `Trumoi´ eta Pakoren gertaerak (BRZ-023/022)

Herriko ezagunen berri ematen du; Benito `Trumoi´, Pako... Pasarte barregarriak kontatzen ditu.

225. Burdina estraperloan (BRZ-023/023)

Pasarte barregarria kontatzen du. Juan `Txaparro´k burdina salduz atera zuen bizimodua, estraperloan.

226. Luisko aguazilari `Madril txiki´ ezizena (BRZ-023/026)

Luisko aguazilari `Madril txiki´ ezizena ipini ziotenekoa kontatzen du.

227. Osaba Bittor frontera (BRZ-023/029)

Osaba Bittor 1937an aitarekin trintxerak egitera joan zen apirilean. Frontera eraman zuten. Norbaitek esan zien gazteetako bat, bizardun bat, hilda ikusi zuela.

228. Romualdo Etxeberria heriotzara zigortua (BRZ-025/001)

Aita debarra zen. Eibarrera ezkondu zen eta 1935ean Berrizera joan zen familiarekin bizitzera, lan kontuengatik. 1936an komitean sartu zen eta horregatik eman zioten heriotza zigorra.

229. Gerratik ihesi Gordexolara (BRZ-025/003)

Gerra hasi zenean, etxetik bota zituzten eta ihesi joan ziren Gordexolara. Han bi urte inguru eman zituzten. Aitak Derion lan egiten zuen. Aita etxean ezkutuan egon zen hasieran.

230. Gordexolatik itzulita, etxerik gabe (BRZ-025/004)

Gerratean, Gordexolatik itzuli zirenean, ez zieten etxerik eman. Ama erreklamatzera joan zen eta "gauzak aldatu egin dira" erantzun zioten.

231. Aita ezkutuan, ama lanean, umeak bakarrik (BRZ-025/005)

Gerra sasoiari, bi anaiak egunero joaten ziren amarekin udaletxera, sinatzera. Aita ordurako Derion ari zen lanean eta ezkutuan ibiltzen zen. Felipe alkatea eta Angel idazkaria egoten ziren udaletxean. Ama, Lina, lanean aritzen zen Eibarren beste bi emakumerekin.

232. Gordexolatik itzulita, etxea nola lortu zuten (BRZ-025/006)

Gerratean, baimena jaso zutenean, Gordexolatik Berrizera itzuli ziren. Zinegotziren baten bitartez lortu zuten etxea. Bizikleta lantegiaren gainean etxebizitza bi zeuden eta han nor bizi zen kontatzen dute.

233. Amaren eta alkatearen arteko eztabaida (BRZ-025/007)

Gerra sasoiari, ama udaletxera joaten zenean, aita non zegoen galdetzen zion alkateak, Felipe Alberdik. Amak harekin izandako eztabaida kontatzen du. Amama eta amaren arteko eztabaida bat ere kontatzen dute.

234. Aita ezkutuan pneumoniarekin (BRZ-025/008)

Gerra sasoiari, aita ezkutuan egon zenean, pneumonia pasatu zuen eta amak sendatu zuela dio. Ordukoa kontatzen du zehatz.

235. Aita ezkutuan eta denak beldurrez (BRZ-025/009)

Gerra sasoiari, aita ezkutuan zegoela, Bernardina izeneko eibartarra joaten zen etxera umearekin. Umeak aita ikusi zuen ohepean. Beldur sakona sentitzen zuten. Ama Eibarrera joaten zen lanera.

236. Alkatearen beldurrez, antzerkitik alde (BRZ-025/010)

Gerra ostean, Antonino Hurtado eta Don Roman maisuarekin antzerkia egiten zutenean, herriko agintariak egoten ziren lehen ilaran. Felipe alkatearen keinu batek beldurtu eta ihes egin zuen.

237. Frankistekin eskolan, kantuak eta instrukzioa (BRZ-025/012)

Eskolan frankistekin kantarazi eta instrukzioa eragiten zieten. Txapel gorria jantzita joaten ziren karlisten familietako mutikoak.

238. Gordexolako egonaldia (BRZ-025/013)

Gerra sasoiari, Berriztik ihesi joan zirenean, Gordexolara kamioiren batean joan zirela uste du. Bilboko izeko-osabek lagundu zietela kontatzen dute. Gerra ostean ere lagundu zieten. Gordexolan aireplano arin bat oso gertu ikusi zuten.

239. Eskolan euskaraz egitearren, komunak garbitzera (BRZ-025/014)

Maisuek debekatu egiten zieten euskaraz egitea. Eraztuna beharrean, giltzaren sistema asmatu zuen irakasleak. Astearen bukaeran, giltza zuenak komunak garbitu behar izaten zituen. Odiaga irakasleak bandera eramanez zien.

240. Aita-amak sozialistak (BRZ-025/015)

Aita, Romualdo, Berrizera itzuli zenean, beharginekin ibiltzen zen. Casa del Pueblo-ko banderaduna izaten zen ama. Aitita Meltxor, amaren aita, sozialisten lehendakaria zen Eibarren eta Alfako sortzaileetako bat.

241. Karlistak lasai gerra hasitakoan (BRZ-025/018)

Karlistek ez zuten alde egin herritik. Urriaga alkate egon zen garaian, ez zieten ezer egin. Alkateak jende asko batu zuen komitean.

242. Txistua joz, trena martxan ipini zuenekoa (BRZ-025/020)

Umetako gaiztakeria kontatzen du Enrikek, txistua joz, trena martxan ipini zuenekoa.

243. Gerra garaian, tunelean babeslekua (BRZ-025/021)

Gerra garaian, tunelean zeukaten babeslekua eta zakuekin ixten zuten sarrera. Nortzuk joaten ziren kontatzen dute. Frontoiarenean azpialdean ere babeslekua zegoen.

244. Gerra garaian, etxetik ihesi, eta anaiak soldadu eta morroi (BRZ-026/004)

Gerra garaian, etxetik ihesi egin behar izan zuen. Berriztik irten aurretik, hiru anaia nagusiak soldadu joanak ziren eta Agustin Soralezaren morroi zegoen.

245. Gerrarengatik, herritik kanpora (BRZ-026/005)

Aita, Pedro, bidezaina zen. Familiarekin alde egin zuten herritik.

246. Karrantzan hil zen amama (BRZ-026/006)

Gerrarengatik, ihesi egin aurrekorik ez dauka gogoan. Ihesi joan zirenean, hegazkinak entzuten zituzten. Gurdiak eta behiak eramanez zituzten. Karrantzako akordua dauka: amama eurekin eramanez zuten eta hantxe hil zen.

247. Itzuleran, ez lanik eta ez etxerik (BRZ-026/008)

Beste batzuk orain telebistaz ikusten diren moduan joan zirela etxetik ihesi dio. Aita lanetik bota zuten eta etxerik gabe geratu ziren. Oizarten egon ziren denboraldi batez eta Loitzartera joan ziren gero.

248. 1936ko hauteskundeetako pasarte (BRZ-026/009)

Bonbardaketa tokatuz gero, aita gorde egiten zela gogoan du. 1936ko hauteskundeetako pasarte kontatzen du.

249. Aita hilketaz akusatuta (BRZ-026/013)

Oizarte baseritik Loitzatera joan ziren. Aitak lana galdu zuen, zigor moduan. Hilketaz akusatu zuten, baina bere defentsan atera ziren batzuk. Etxe batetik bestera ibili ziren.

250. Anaia bat gerran hil zen (BRZ-026/014)

Loitzaten zeudela, Eulogio anaiaren heriotzaren berri ematen zuen gutuna jaso zuten. Urduña inguruan hil zen, gerran soldadu zebilela.

251. Ama Eibarrera, barazkiak saltzera (BRZ-027/002)

Gerra hasi zenean, hiru urte egiteko zegoen. Zein etxetan jaio zen kontatzen du. Aita eibartarra zen. Ama Eibarrera joaten zen barazkiak saltzera, hasieran astoarekin eta gero trenez.

252. Aita Orbea lantegiko langile (BRZ-027/003)

Aita hamalau urterekin Orbea lantegian hasi zen lanean eta hantxe lan egin zuen, kartzelan sartu zuten arte. Etxean entzundakotik baino, kanpotik entzundakotik daki gehiago aitaren berri.

253. Aita fusilatuta (BRZ-027/008)

Amak 1937ko egutegia gorde egin zuen, aita irailaren 11n fusilatu zutelako, beste Berrizko biekin batera. Aitaren gorpua lurpetik atera zutenean, nola identifikatu zuten kontatzen du.

254. Franco hil eta gero ere, beldurrez (BRZ-027/010)

Gerrako alargun izateagatik, eskaera egin zuteneko gorabeherak kontatzen ditu. Franco hil eta gero ere, amak beldur handia zeukala dio.

255. Presoak bisitatzen Santa Claran (BRZ-027/012)

1939an Santa Clara kartzelara eraman zuen herritar batek, tren geltokiko nagusiak, eta Sabina kartzelan ikusi zuela gogoan dauka. Goiko eskolako irakasleetako bat erdalduna zen eta harekin ibili zen hilabete batzuek.

256. Osaba Evaristo kartzelara, falangista izan arren (BRZ-027/017)

Aita hartu eta kartzelatu egin zuten; handik Derioko hilerrira eraman zuten, fusilatu eta han lurperatu zuten. Bere osaba Evaristo, hori jakindakoan, udaletxera joan zen eta alkatearekin borrokan egin zuen. Evaristo kartzelatu egin zuten eta heriotza zigorrarekin egon zen Larrinagan. Berriz ere guardia zibilek eraman zutenekoa kontatzen du.

257. Zaldibarko mojen komentura mezara (BRZ-029/002)

Zaldibarko mojen komentura joaten ziren sarri mezara, Berriz baino gertuago zuten eta. Uholde batzuetan zazpi moja ito ziren. Komentua desagertu egin zen gero.

258. Izara zuria, abisu gisa (BRZ-029/003)

Aita Agustin `Torre´ eta ama Benita Garro. Amamaren baserria mendi alderago zegoen eta, errekaduren bat zuenean, etxe azpian izara zuria zabaltzen zuen.

259. Berrizko eskolan ibili zen (BRZ-029/006)

Berrizko elizaren aurrean zegoen eskolan ibili zen. Behean neskak, goian mutilak. Sakristaua eta alaba bizi ziren bertan eta herriko telefono bakarra zuten. Udaletxea ere bertan zegoen, kontzejua. Maria Leibar zen eskolako maistra; senarra Leon. Ez ziren euskaldunak.

260. Eskolan arrosarioa errezatzen zuten (BRZ-029/008)

Larunbat arratsaldeetan arrosarioa errezatzen zuten eskolan, lantzean batek. Josi ere egiten zuten. 13 urtera arte ibili zen eskolan.

261. 1934ko iraultza Eibarren bizi izan zuen (BRZ-029/009)

13 urterekin Eibarrera plazara joaten hasi zen. 1934ko iraultza nola bizi izan zuen. Alfan pistolak banatu zituzten eta kalean pistolak eskaintzen etorri zitzaizkien. Berari ere eman zioten pistola, baina errekarra bota zuen. Eibarko plaza nolakoa zen; taberna ere bazegoen. Erreka pasatzen zen azpitik. Goizean goiz hartzen zuen trena Zaldibarren, Eibarrera joateko.

262. 1934ko iraultza; etxera itzultzeko lanak (BRZ-029/010)

1934ko iraultzak Eibarren harrapatu zuen. Etxera itzultzeko ez zuten trenik eta Ermurantz abiatu ziren, trena han hartzeko asmoz. Bidean "guardia de asalto" a zen lehengusu batekin topo egin zuen eta hark lagundu zien bide zati batean. Ermuan Eitzagara hartu zuten eta trenaren tuneletik pasata joan ziren etxeraino, oinez. Beste senide bat mikeletoa zen eta Eibar eta Ermuko muga zaintzen egoten zen. Iraultza egunean bala asko ikusi zuten lurrian.

263. Mendian ikurrina zabaldu eta "Gora Euskadi" (BRZ-029/011)

Gaztetan Ariatzu mendira joaten ziren; `Goazen mendirik mendi´ abestu eta ikurrina zabaltzen zuten "Gora Euskadi askatuta" oihukatuta. Kantaren zati bat abesten du: "Haize osasuntsuaz bizitza indartzera, aberri guztiari agur egitera".

264. Aita atxilotu zuteneko kontuak (BRZ-029/016)

Gerra sasoiari aita atxilotu zuteneko kontuak. Luis aguazila etorri zitzaion bila. Ez zekiten nora eraman zuten eta amak Durangoko kartzelan aurkitu zuen. Gero Bilbora eraman zuten, Carmelo-ra. Amari ez zioten baimenik ematen eta bera joaten zen kartzelara aita bisitatzera.

265. Eibarrera azokara joateko, "salbokonduktoa" behar (BRZ-029/018)

Eibarrera azokara joateko "salbokonduktoa" lortzeko, Bidazpira joan behar izaten zen eta Felipe Alberdi alkateak, Manuel Aranak eta Angel Duraldek sinatu behar izaten zuten baimena. Joateko baimena bakarrik ematen zioten eta bueltarako beste bat eskatu behar. Oinez egiten zuten bidea; orduan bizikleta zuena markesa izango zela dio.

266. Kartzelara aita bisitatzera zihoala, ia fusilatu egin zuten (BRZ-029/019)

Kartzelara aita bisitatzera joateko, Durangoraino oinez joaten zen eta handik trenean Bilbora. Traste askorekin joaten zen, egun batzuetan Bilboko izebaren etxean geratzen zen eta. Aitaz gain, beste hainbat senide eta ezagun zeuden

kartzelan eta jatekoa banatzen zien denei. Behin bidean kamioilari batek jaso zuen eta ia fusilatu egin zuten, bide bazterrean jarrita. Bilboko izebak bost seme-alaba barkuan erbestera bidali zituen. Lehengusuetako bat Portugalen egin zen abade.

267. Aitak pasatako kartzelak; barkuan preso Bilbon (BRZ-029/020)

Markesak flota handia zuen, baina barku guztiak konfiskatu zizkioten gerratean. Aita Upo Mendi barkuan egon zen preso Bilbon. Bisitatzera joaten zenean, batzuetan aita aurkitu ezinda ibiltzen zen, lekuz aldatzen zutelako barkua; Sestaoraino eraman zuten azkenean. Handik Burgosera eraman zuten aita eta haraino ezin izaten ziren bisitan joan. Bilbon zegoenean astean behin joaten zen. Barkuan egon aurretik "Angeles Custodios" komentuan eta Larrinagako kartzelan ere egon zen. Preso egon ziren beste zenbait ezagun. Emakume batek laguntzen zion askotan aitaren bila zebilenean, baina ez daki nor zen.

268. Milikua presoaren emazteari gertatutakoa (BRZ-029/021)

Kartzelara aita bisitatzera joaten zenean, beste preso batzuen senideekin ere izaten zuen harremana. Agustin Millikuaren emazteak seigarren umea izan berri zuen eta, bera ezin zenez joan, senarrari eramateko gauzak ematen zizkion. Milikuak umea ezagutu nahi zuen eta behin elkarrekin joan ziren trenera. Umearekin pasatako estutasuna.

269. Gerra hasierako oroitzapenak (BRZ-029/032)

Gerra zibila hasi zeneko oroitzapenak kontatzen dituzte Juanitak eta Pilarrek. Lehenengo milizianoak etorri ziren eta gero nazionalistak. Kanoiak jarri zizkieten baserri inguruan. Gerra sasoiko kanta abesten du Juanitak: "Los rojos corren como conejos caminito a Santander".

270. Don Leon maisuaren lezioak eta zigorrak (BRZ-031/002)

Ugarteabalan jaiotakoa da. Maizterrak ziren han. Udaletxe zaharrean zegoen eskolara joaten zen, Don Leon maisuarekin. Laurogei ikasle pasa ziren, mutilak. Zigor gogorrak jasotzen zituzten. Abakoarekin ibiltzen ziren.

271. "Kukue" esaten zioten maistrari (BRZ-031/004)

Gerra hasi zenean, anaia soldadu joan zen eta aita kartzelan sartu zuten. Behiak zaintzen ibiltzen zenez, eskolara gutxi joaten zen. Maistrari "kukue" esaten zioten. Bere gelakideei buruzko kontuak aipatzen ditu.

272. Eskolan irakasle gogorrak (BRZ-031/005)

Hiru eskolatan ibili zen. "Kukue" esaten zioten maistrak jo egiten zuen. Irakasle gogorrak tokatu zitzaizkiola dio. Hainbat pasarte kontatzen ditu.

273. Carmen Torres maistrarekin instrukzioa (BRZ-031/006)

Carmen Torres maistra Bilbotik etortzen zen eta egunkaria irakurtzen zien. Diktaketa egiten zuten eta ondoren instrukzioa egitera behartzen zituzten.

274. Goitarren eta behetarren arteko liskarrak (BRZ-031/008)

Goitarren eta behetarren arteko liskarra kontatzen du. Batzuk pistolarekin ibiltzen zirela dio. Pasarte bat kontatzen du.

275. Goitarrak eta behetarrak borrokan (BRZ-031/009)

Felipe Urtiaga pertsona ona zela dio. Goitarren eta behetarren arteko liskarrak kontatzen ditu.

276. 1931ko hauteskundeetan, oihu politikoak (BRZ-031/010)

1931ko hauteskundeak ospitalean egin zirela dio eta jarrera politiko bakoitzak bere oihuak egiten zituela gogoan dauka.

277. Aita kartzelara zelan eraman zuten (BRZ-031/013)

Frontea pasatu zenean, aitari gurdiarekin eta behiekin udaletxera joateko agindu zioten. Handik egun batzuetara, aitari udaletxera joateko esan zioten eta kamioi batean kartzelara eraman zuten. Aita bisitatzeko baimenik beti ez zuten izaten.

278. Aita kartzelan zela, anaia gerran hil (BRZ-031/014)

Aita kartzelan zegoela, gutuna jaso zuten anaia frontean hil zela esanez. Egund hartan, aita Burgosko kartzelara eraman zutela esaten zuen beste gutun bat jaso zuten. Aitak goizero fusilamenduak entzuten zituen kartzelan.

279. Milizianoen kanpamendua (BRZ-031/015)

Intxortan eta Arraten frontea zegoela, Berrizen kanpamendua zeukaten milizianoek. Anaiak eta biak estutasuna pasatu zutenekoa kontatzen du.

280. Aita zinegotzi (BRZ-031/016)

Aitarekin soroan zebilela, bidezaina etorri zitzaizen aita zinegotzi izendatu zutela esanez. Udaletxera joan behar izaten zuen aitak orduan.

281. Marcelo anaia frontean hil zuten (BRZ-031/017)

Bere anai Marcelo Burdinazko Gerrikoa egiten aritu zen, deitu ziotelako. Etxera etorrita, frontera joatera behartu zuten. Frontean hil zen.

282. Durangoko eta Gernikako bonbardaketak (BRZ-031/019)

Durangoko bonbardaketa ikusi zuen, Zeletatik. Gernikakoa ere gogoan dauka. Frontea Berrizera etorri zenean, babeslekura sartzen ziren. Beldur handia pasatu zuten. Beste herritar batzuei gertatutako pasarteak kontatzen du.

283. Estraperlo garaiko ogi zuria (BRZ-031/020)

Bekorretara lanera joaten zirenean, estraperlo garaian, ogi zuria nahi adina jaten zuten. Pasarte bat kontatzen du.

284. Frankistak herrira sartu zirenean (BRZ-031/021)

Karlistak Berrizen sartu zirenean, ez ziren etxetik mugitu. Olakueta soldaduz beteta zegoen. Biharamunean, kainoiak ipini zituzten eta Oiz alderantz botatzen zituzten tiroak. Milizianoek hartu eta Txikito hil zuten.

285. Urtebetetze eguna babeslekuan (BRZ-031/022)

Bere urtebetetzea izan zen, karlistak Berrizera sartu ziren eguna, apirilaren 25a, eta babeslekuan pasatu zuen eguna. Harrezkero, karlistak egunero batzen ziren udaletxean. Preso eraman zituztenak izendatzen ditu.

286. Aitaren kartzelako bizipenak (BRZ-031/024)

Aita Burgosko kartzelatik Astorgara eraman zuten eta handik etxeratu zen, hiru urteren ostean. Hango bizipenak kontatzen zizkien aitak.

287. Aita kartzelatik betiko gaixorik (BRZ-031/025)

Aitarekin kartzelan zein berriztar egon ziren esaten du. 1940an etorri zen aita etxera eta betiko gaixorik geratu zen.

288. Aitarengana damututa etortzen zirenak (BRZ-031/026)

Kartzelatik atera ondoren, aita gaixorik zegoela, herritar batzuk etxera etortzen ziren bisitan, egindakoz damututa.

289. Amarentzat bizimodu gogorra (BRZ-031/027)

Ama bizi guztia negarrez ibili zela kontatzen du. Bizi guztian errenta ordaindu beharra izan zuen. Aitari isuna ipini zioten. Ama Eibarko azokara joan zen behin eta hamar pezetarekin itzulita, pozik.

290. Olakuetako eskolan Koka irakaslearekin (BRZ-032/006)

Olakuetara joaten zen eskolara. Irakaslea Koka izeneko bat zen baina ez dauka akordu handirik. Kantinarekin esnea eramaten zion. Lau seme-alaba zituen maisuak. Gerraostean beste maisu-maistra batzuk izan zituzten. Partikularretara joaten zen gauzez. Beste eskola partikular batzuk ere bazeudela dio.

291. Bonbak entzundakoan, karkabara (BRZ-032/008)

Ebakuatut ziztutenean, geltokira joan zen amamarekin behi bat eta txahal jaio berri bat hartuta, eta behia kendu egin zieten. Gerra hasi zenean, milizianoak agertu ziren. Otxandioko bonbardaketaz eta Intxortako kontuez entzun zuen etxean. Kanoikadak entzuten zituzten eta karkaban sartzen ziren. Soldaduak pasatzen ikusi zituen, egun batzuetan.

292. Abereak babesten gerra garaian (BRZ-032/009)

Beraien etxeko idiak Otxandiora eraman zituzten. Gerra pasatu zenean, amama joan zen idi bila. Aita Gueñes inguruan zegoen, abereekin, eta laster itzuli zen. Errekisatu egiten zizkieten abereak; astoa okelatarako kendu zieten.

293. Dantzari onak etxean (BRZ-032/011)

Intxortako frontea bukatu arte, ez zuten bizimoduan aldaketa handirik nabaritu. Dantzan aritzen zenekoa kontatzen du. Antzerkiak egiten zituzten,

plaza aurrean. Trikition dantzan egin behar izan zuela dauka gogoan. Aita eta amama dantzari onak zirela dio.

294. Gerra aurrean, aita kartzelan (BRZ-032/016)

Aita gerra aurrean zergatik eraman zuten kartzelara kontatzen du. Egunen bat egin zuela han dio.

295. Aita Derion lurperatu zuten (BRZ-032/017)

Aita hil zenean, ama eta biak joan ziren Deriora eta han lurperatu zuten. Gurutze bat jartzen zieten han hildakoei.

296. Aitaren bila etorri zirenekoa (BRZ-032/018)

Gogoan dauka Luisko joan zela aitaren bila, udaletxera joateko. Osaba batek idiak ekarri zituen Mungiatik eta entregatu egin zituzten, eta handik gutxira izan zen.

297. Durango ketan ikusi zueneko (BRZ-032/019)

Durangoko etxeak apurtuta eta ketan ikusi izana gogoan dauka, amarekin joan zelako oinez osabaren bila. Gaez joan ziren.

298. Aitak alde egin zuen; lapurtu zieten behia etxeratu zuen (BRZ-032/020)

Ebakutzeko abisua jaso zutenean, aitak alde egin zuen eta beste askok ere bai. Txahala egin berri zuen behia kendu egin zieten. Errandon andre batek behi zahar bat eman zien. Aitak hiru behi eta idiak eraman zituen. Amorebieta baino lehenago, behi pilo bat ikusi zituen aitak; etxekoa ezagutu eta etxera eraman zuen.

299. Gerratik ihesi joan nahi baina trenak beteta (BRZ-032/021)

Loitzatetik bi gizonak alde egin zuten. Ama, amama, Arrasateko izeba seme-alabekin, eta etxeko umeak egon ziren etxean. Etxekoek alde egiteko asmoa zeukaten, Frantziara joateko, baina birritan tokatu zitzairen trena beteta eta ezin sartu. Goizaldean joan eta tren guztiak pasatu arte egon ziren. Patxi Abororen etxean egon zen ezkutatuta.

300. Bonbak eta balak etxe inguruan (BRZ-032/022)

Aboron ere soldaduak sartu ziren eta behiak eraman zituzten. Eartean balak topatu zituzten. Zelaian bonba topatu zutenean, dena desmuntatu zuten. Bolborarekin jolasean ibiltzen ziren.

301. Etxera itzuli zirenean (BRZ-032/024)

Etxera itzuli zirenean, babak prestatuta zeudela ikusi zuten baina bota egin zituzten, pozoituta egon zitezkeela esaten zutelako. Aita etorri zenerako, denbora asko pasatu zela gogoan dauka Gregoriok, abererik gabe lanean aritu behar izan zuelako. Aita abere guztiakin bueltatu zen etxera.

302. Ibiltzeko eta aita askatzeko baimen eske behin eta berriro udaletxera (BRZ-032/025)

Ibiltzeko baimenaren bila joaten zen Gregorio idazkariarengana. Gehienetan lortzen zuen baina inoiz eman ere ez. Ez zuen inoiz aita eramango zuten

susmorik izan. Paper kontuekin udaletxera eta parrokoarengana bueltaka ibili behar izan zuen, aita kartzelan zegoenean.

303. Aitarengana kartzelara (BRZ-032/026)

Aita preso zeukaten andre batzuek (zeintzuk ziren azaltzen du) Gregoriori lagundu egiten zioten Bilbora aitarengana kartzelara joaten zenean. Aitari esnea mandatariarekin eramaten zioten.

304. Aita kartzelara, lanpostuagatik (BRZ-032/027)

Aita kartzelara zergatik eraman zuten azaltzen du; Zaldibarko lanpostuarengatik uste dute. Berak aukera izan zuen aitaren lekuan joateko baina ez zuen nahi izan.

305. Milizianoak eta errefuxiatu eibartarrak etxean (BRZ-034/002)

Milizianoak etxean izaten zituzten. Amak janaria ematen zien. Errefuxiatuak izan zituzten etxean, Eibartik etorritakoak. Amak Candida Alberdi zuen izena. Eibartik gramofonoa eta irratia ekarri zituzten errefuxiatuek.

306. Durango bonbardatu zutenekoa gogoan du (BRZ-034/005)

Hainbeste ardura etxean eta seme-alabak ahizparenera, Andikoara, bidali zituen Iñakiren amak gerra garaian. "El Abuelo" hegazkina ikusteko irrikan egoten ziren. Durango bonbardatu zutenean, zela ikusi zuten kontaktzen du.

307. Erreketeak, "italianoak" eta "moroak" herrian (BRZ-034/006)

Berrizera jeitsi ziren eta karlistek hartu zuten herria. Italianoak eta "moroak" gogoan ditu. Erreketeek ordaindu egiten zuten, dirua zeukaten eta.

308. Aita atxilotu eta Durangora eraman zuten (BRZ-034/007)

Aitak zilarrezko txanponak lurperatu egin zituen, makatz baten azpian. Aita non zegoen ere ez zuten jakiten. Aita soroan zebilen atxilotu zutenean. Zazpi atxilotu eraman zituzten Durangora. Arcas aipatzen du.

309. Aitaren kartzelaldia Larrinagan (BRZ-034/008)

Aitak, atxilotuta zegoela, lehengusua ikusi zuen eta laguntza eskatu zion, baina hark ukatu. Larrinagako kartzelara eraman zuten aita gero. Ama laguntza eske joan zitzaien hainbati, baina lasai egoteko besterik ez zioten esaten. Evaristo eta Arcas testigu moduan ondo portatu zirela kontaktzen du.

310. Aita kartzelatik etxeratu zenekoa (BRZ-034/009)

Aita eta besteak irailean aske geratu eta etxeratu ziren, eta ondo gogoan dauka egun hura Iñakik. Zehaztasunez kontaktzen du. Aitarekin batera kartzelan egon zirenak aipatzen ditu.

311. Aitaren lehengusua fusilatu zutenekoa (BRZ-034/011)

Aitak kontatu zien bere lehengusua, Cecilio Zabala, zornotzarra, hil zutenekoa. Gizon batzuei, egunean egunean, prestatzeko esaten zieten kartzelariak eta fusilatu egiten zituzten. Bere lehengusuaren arropak aitak eman zizkion alargunari biharamunean.

312. Bera ez zela Ignacio, Iñaki baino (BRZ-034/013)

Aita etxeratu zenean, zer nolakoak bizi izan zituen kontaktzen du. Gogoan du konfirmatu zenean, Iñaki izena ematera bultzatu zuela aitak, Ignacio izenaren orde. Jaiotze agiria eskatu zuen udaletxean gerora eta Iñaki izena agertzen zen. Seme-alaben izenak erdaraz erregistratu behar izan zituzten, ez zietelako euskaraz erregistratzen lagatzen.

313. Irakasle militarrek (BRZ-034/015)

Frankismo garaian izan zituen irakasleak militarrek zirela dio. Jo egiten zituzten. Instrukzioa jasotzen zuten, plazan.

314. Irakasleak ikasleak egurtu zituenekoa (BRZ-034/016)

Irakasle batekin gertatutakoa kontaktzen du: sagar mutxikin bat nor bota zuen jakiteko, ikasle guztiak banan-banan jo zituen. Beste egun batean pelota bategatik berdin gertatu zitzaion.

315. Gerraren hasieran soldaduak herrian (BRZ-034/018)

Hegazkina jausi zenean, ikusi egin zuen berak ere. Gogoan du nazionalak lurralderen bat hartzen zutenean, kanpaiak jotzen zituztela. Gerra hasi zenean, berehala herritar batzuk soldaduz janzten hasi zirela dio. Hasierako kontuak aipatzen ditu. Amabirjina bat margotu egin zuten.

316. Gerra garaian ibiltzeko baimena baina markatuta (BRZ-034/021)

Ama ortulari ona zela kontaktzen du; aita kartzelan egon zenean, ama egin zen familia osoaren kargu. Amak ibiltzeko baimena lortu zueneko kontakten du.

317. Gerra betean jaio zen ahizpa (BRZ-035/002)

Hamaika urte zituen gerrak irten zuenean. Ametzua baserrian jaio zen. Bere ahizpetako bat Arraten erreketek sartu zirenean jaio zen, gerra betean. Ebakutzeko esan zieten baina amak zioen berak ezin zuela erditu berri inora joan. Laugarrena zen hamabi anai-arrebatatik.

318. Komentuko mojekin eskolan (BRZ-035/003)

Hamar urterekin umezain hasi behar eta eskola laga zuen. Gerra aurretik, komentuko eskolara joaten zen. Urrutitik joaten zirenei, bazkaria ematen zieten debalde. Bigarren errepublika garaian mojei eskola itxi zitetenerako, eskola publikoa eraikita zegoen. Sei urterekin hasi zen eskolan.

319. Marrubi lapurretan harrapatu zituztenekoa (BRZ-035/005)

Komentuko eskolan zein berriztar ibiltzen ziren kontaktzen du. Marrubi lapurretan ibiltzen zireneko anekdota kontaktzen du. Mari Paz eta Maria Dolores ziren irakasleetako batzuk.

320. Ormaztegiko dendako Maria (BRZ-035/008)

Ormaztegin denda zegoen; Maria zen dendaria eta beti ematen zien zer bait opari. Olgetarako Ametzuan moldatzen ziren; Handikoekin ibiltzen ziren.

321. Handikoak, gerran hilak bi alaba eta langile batailoian semea (BRZ-035/009)

Maritxu eta Felisa gerran hil ziren, Handikoak. Jose langile batailoian ibili zen; tabakoa erosi eta zigarroak egin eta gero saldu egiten zituela kontatzen du.

322. 99 baserriren jabe (BRZ-035/010)

Beraien baserriak ugazaba Durangokoa zeukan. Zein zen azaltzen du. Ametzuan zein bizi ziren kontatzen du. Ugazabak 99 baserri zituela kontatzen du, eta ona zela.

323. Artoari eta gariari harea nahastu, entregatzeko (BRZ-035/013)

Erreketeak sartu eta gero, txerririk hiltzen ez zuten lagatzen. Artoa eta garia entregatu egin behar izaten zuten, eta gutxiago entregatzeko, hondartzako harea nahasten zioten.

324. Durangoko bonbardaketaren eguna (BRZ-035/016)

Otxandioko bonbardaketaz ez dauka akordurik baina Durangokoaz bai; egun hura nolakoa izan zen kontatzen du. Handiko ezkaratzean zegoen Durangoko bonbardaketa izan zenean; hegazkinak hironaka etortzen zirela dio. Bera oihuka hasi zen eta etxeoandrea barrez hasi zitzaion; ez zekien bi alaba hil zitzaizkionik Durangon.

325. Hegazkinak zetozenean, babeslekura (BRZ-035/018)

Durangoko bonbardaketa baino lehen, hegazkinak pasatzen ziren eta babeslekuan egoten zen beste ume batzuekin batera. Non zegoen azaltzen du. Bonba txikiak baserriko soroetan bota zituzten.

326. Durangoko bonbardaketaren ondorioz hil ziren bi neska (BRZ-035/019)

Durangoko bonbardaketaren ondorioz hil ziren Handiko bi alabetako bat, Felisa, etxera ekarri zuten zauriturik eta Rosarioren amak egiten zizkion sendaketak. Berak ez zuen ikusi baina haren uluak entzuten zituen. Ahizpa biak neskame zeuden Durangon eta elkarrekin zeuden bonbardaketa gertatu zenean.

327. Ehundaka soldadu karlista etxean (BRZ-035/020)

Ametzuan karlisten batailoi bat bi egunez egon zen. Egun horiek nolakoak izan ziren kontatzen du; aita abereekin etxetik joana zen. Herritarrak izan ziren abisua eman zutenak. Amak umeekin geratu ziren baserriko bi bizitzetan. Karlistek ogi zuria ematen zieten. Sabaietan eta ganbaran lo egiten zuten.

328. Hegazkina sentitu eta zangan sartu (BRZ-035/021)

Beldur handia pasatu zuen gerra garaian. Hegazkinak sentitu orduko, zanga batean etzanda egon zenekoa gogoan dauka. Hegazkin bat jausi zenekoa gogoan dauka.

329. Nazionalak jarritako isuna (BRZ-035/024)

Nazionalak sartu eta isunak eta atxiloketak hasi ziren. Mila pezetako isuna jarri zieten Ametzukoei eta Handikoei. Garia eta artoa entregatu egin behar izaten zituzten.

330. Errefuxiatu eibartarrak etxean (BRZ-035/025)

Errefuxiatuak egon ziren beraien etxean, eibartarrak. Handikora joan ziren eta ez zituzten hartu, eta beraienean egon ziren.

331. Isunak eta atxiloketak (BRZ-035/027)

Isunak herriko batzuei ipini zizkieten. Pedro Juan zaharra elkarrizketatzaileetako baten familiakoen etxera joan zen esatera zigorra jasoko zutela. Etxekoek isuna espero zuten, baina etxeko ama eraman zuten atxilotuta. Isuna ere jaso zuten eta ez zuten ordaindu. Zein emakume atxilotu zituzten aipatzen du.

332. Berriztarrak Saturrarango kartzelan (BRZ-035/030)

Berrizko emakumeak Saturrarango kartzelan egon ziren. Bere izebak ez zekien gaztelerarik. Anekdotak bat kontatzen du, amama plazan saltzen ibiltzen zenekoa.

333. Isilik berba egin behar (BRZ-035/031)

Etxean isilik berba egiten zuten, inork ez entzuteko. Beldur handia zeukaten. Auzoko emakume karlista bat aipatzen dute, bonbardaketa batean poste batera igo eta bonbak botatzeko eskatu zueneko.

334. Fusilamenduek terrorea eragin zuten (BRZ-035/034)

Fusilamenduak gertatu zirenean, jakin egin zuten. Terrorea sentitu zutela dio, beldur itzela.

335. Zergatik eraman zituzten preso emakumeak (BRZ-035/037)

Emakumeak preso zergatik hartu zituzten jakitea erraza ez dela dio. Berak uste du inoiz pentsatu zutena esateagatik izango zela, nazionalak egiten ari zirenakiko kritikaren bat edo.

336. Txapel gorriak opari eskolan (BRZ-035/040)

Eskolan instrukzioa eragiten zieten bere ahizpei. Eskoletan mutikoei txapel gorriak ematen zizkieten. Anaia txapel gorriarekin etorrira, anaia zaharragoak kendu egin zion eta lupetzan zapaldu.

337. Felipe `Txarri´ren emaztea eta markesa gordeta (BRZ-035/041)

Felipe `Txarri´; edo `Berdugoa´; esaten ziotenaren alabekin ibili zen eskolan bera. Gerra garaian, Feliperen emaztea eta markesa gordeta egon zirela dio.

338. Anaia bi intsumiso (BRZ-037/004)

Beste hiru anaia eta arreba bat dauzka. Soldadutzara ez joateko, ihes egin zuten bere anaia bik. Kontrabandistek mendiz pasatu zituzten. Hirugarren

saiakeran pasatu ziren. Sabin eta Iñaki ziren. Sabin mundu osoan ibili izan dela dio. Urte askoren ondoren itzuli ziren.

339. Frantzian errefuxiatu beste bi anaiarekin (BRZ-037/005)

Miren amarekin ibili zen, Iparraldean. Sabin, Iñaki eta bera Perpignan-en egon ziren, eta gogoan dauka han eskolan ibili zela. Euskara ahaztu egin zitzaien. Beste ume askorekin batera egon zen, kolegio batean. Amarekin Hendaian elkartu eta denak etxera etorri ziren.

340. Hiru urte herritik kanpora (BRZ-037/006)

1937an joan ziren Berriztik eta 1940an itzuli. Gose handia pasatu zuten Bartzelonan. Karrantzara joan ziren lehenengo eta handik Bartzelonara, baina ez dago ziur nola egin zuten bidaia.

341. Gerratik itzuli eta etxerik ez (BRZ-037/008)

Gerratik itzulitakoan, ez zieten etxera sartzen laga, eta baserri batera joan ziren.

342. "Berdugua"ren erruz (BRZ-037/009)

Amak ez zuen aitaren fusilamenduari buruz ezer esaten. "Berdugua" deitzen diotenaren kontrako berbak esaten zituen amak.

343. Aitak herritik alde egin ez, eta fusilatu egin zuten (BRZ-037/010)

Aitak ez zuen herritik alde egin, frankistak sartu zirenean. Haren laneko bikoteak alde egin zuen eta bizirik irten zen.

344. Amak alarguntasunik kobratu ez eta lanera (BRZ-037/012)

Amak ez zuen alarguntasunik kobratu inoiz. Baserrietan lan egiten zuen amak, familia aurrera ateratzeko. Arakaldora bidali zuten bera, aitaren etxera, eta gero Elgoibarrera. Ama Katalina Juaristi zen.

345. Erbestean euskara galdu (BRZ-037/016)

Perpignanetik Baionara nola joan zen ez dauka gogoan. Amarekin elkartu zirenean, euskaraz egin zion eta ez zion ezer ulertu. Elgoibarko baserrian ere berdin gertatu zitzaion.

346. Anaia ihesi mugaz bestaldera (BRZ-037/017)

Bere anaietako batek Bidasoa ibaia igerian pasatzeko ahalegina egin zuen, baina harrapatu egin zuten. Azkenik mendiz pasatu zuen muga.

347. Don Justo irakaslearen kolpeak eta zigorrak (BRZ-037/019)

Gerratik itzulita, Don Justo irakaslearekin ibili zen eta egurra ematen ziela dio, gogor jotzen zituela. Eskolan erdaraz egin beharra izaten zuten. Zigortu egiten zituen. Pasarte izugarriak kontatzen ditu.

348. Gerrari buruz `Basarri´k egindako bertso-sorta (BRZ-037/024)

`Basarri´bertsolaria berriztarrekin egon zen langileen batailoian. Handik ekarritako bertso paper bat zeukaten anaiak eta biek.

349. Frontera joatera behartuta (BRZ-038/003)

Aita gerrarako eraman egin zuten, baita osaba ere. Lehenengo Bilboko kontzentrazio-eremura eraman zituzten eta ondoren frontera. Frantziara pasatu zen eta han koinatuarekin elkartu zen. Bere lehengusu bat ere horrela eraman zuten gerrara.

350. Osaba Artxandan hil (BRZ-038/007)

Eduernerren osaba Artxandan hil zela diote. Mutil gaztea eta ona zela dio Eduerne. Amamak gabonetan urtero negar egiten zuela dio, gerrako kontuez gogoratutakoan.

351. Soralezeko errefuxiatuak Orue baserrian (BRZ-038/014)

Orue baserrian Soralezetik etorritako errefuxiatuak zeuden. Eduerne jaioberritan milizianoek janaria eta azukrea ematen zieten.

352. Gregorio Urkijok dirua banatu eta mojak zaindu (BRZ-038/016)

Urkijo eraman zutenekoa kontaktzen dute. Aurrezki kutxako arduraduna zenez, dirua banatu egin zuen etxeetara, galdutzat jota. Mojak zaintzen egon zela kontaktzen dute.

353. Frontea etorrita ere, etxean (BRZ-038/021)

Mari Karmen-eta ez ziren etxetik mugitu frontea gerturatu zenean. Ez ziren beraien etxean sartu. Soldaduak ikusten zituzten gora eta behera. Aita alde eginda eta osaba Pablo Areitioaurtena eraman egin zuten, eta gaixorik hil zen Perpignan-en, Frantzian.

354. Jaio eta berehala, gurdian Larizgoitira (BRZ-039/002)

Arietako Gerbasiok gurdian eraman zuen Larizgoitira Niceta jaio zenean, gerrarengatik ihes egin beharra zeukatelako.

355. Aita adreilugilea (BRZ-039/003)

Aita Lezamakoa zen eta ama Zornotza aldekoa. Errentan hartu zuten etxean, Berrizera etorri zirela. Etxejabea zein zen kontaktzen du. "Ladrilleruena" izeneko etxean bizi ziren; izena aitaren lanbidetik datorkio etxeari. Nola lan egiten zuen kontaktzen du.

356. Aitaren harrobia (BRZ-039/007)

Frantziatik etorri eta gero aitak hareari buruzko jakintza ekarri zuenez, harrobia zabaldu zuten. Sukaldea garbitzeko harea erabiltzen zuten. Harea industriarako ere erabiltzen zen.

357. Aita kartzelan eta furgoneta errekisatuta (BRZ-039/009)

Aitak gerra hasi zenerako, furgoneta bat zeukan eta errekisatu egin zioten. Aita kartzelan Bilbon egon zen eta negar asko egiten zutela han kontatzen zien aitak, baita norekin egon zen han ere.

358. Aitak kartzelatik irten eta Frantziara alde egin behar izan zueneko (BRZ-039/011)

Aita kartzelatik irten zenean, istripua izan zuen; mutikoren bat harrapatu eta hil egin zela kontatzen du. Horren ondorioz, mehatxua jaso zuen aitak eta alde egin behar izan zuen Frantziara. Gurs-eko kontzentrazio eremuan egon zen. Bost urte zituela ezagutu zuen aita. Bitartean, amak adreiluak eta harea saltzen ibili behar izan zuen.

359. Etxera itzultakoan, dena hondatuta (BRZ-039/012)

Beraien etxea nolakoa zen kontatzen du. Etxea hondatuta topatu zuten. Etxejabeek ez zuten bota.

360. Aitaren Frantziako egonaldia eta itzulera (BRZ-039/013)

Lau seme-alabarekin geratu zen ama. Aita etorri zenean, bere lanera bueltatu zen, baina dinamita behar zuenez lanerako, bere izenean ezin izaten zuen lortu. Frantziatik osasun txarrarekin etorri zen eta gazte hil zen. Frantzian arratoiak jateko nola harrapatzen zituzten kontatzen zien aitak.

361. Errepresioarengatik, isilik egon beharra (BRZ-039/016)

Etxearen azpiko aldea kortatzat hartuta zeukaten tropek. Etxean ez zuten gerrako kontuei buruz berba egiten. Jendearen galderak asmo txarrarekin egindakoak izaten zirela uste izaten zuen bere amak. Radio Paris entzuten egoten ziren etxean, isilean.

362. Niceta Ariznabarreta Saturrarango kartzelan (BRZ-039/020)

Nicetak kontatzen zion Saturrarango kartzelan oso gaizki pasatu zuela. Gorrotoarengatik salatu zutela kontatzen zuela dio. Gerora, kalte-ordainak jasotzeko aukera izan zutenean, hilabeterengatik ezin izan zutela ezer kobratu kontatzen du. Kartzelan zorri asko izan zituztela kontatzen omen zuen Nicetak.

363. DIBA: "Durango Aldeko Baserritarren Elkarte" (BRZ-041/003)

Aurrerakoia zen Bittor. Oletako Apieta baserrian orduak ematen zituzten berriketan. Aitzindaria, beti ideia berriekin. Baserritarren kooperatiba bat sortzeko ideia eman zuen. Izena DIBA: "Durango Aldeko Baserritarren Elkarte". Ez zen sasoi ona baserrirako eta korrontearen kontra zebiltzan. Estatutuak egin behar ziren, diru apur bat ipini, eta ezen gauzatu... 1987ra arte. Ereindako haziak denbora asko behar izan zuen ernetzeko.

364. Eñaut Etxamendirekin Donapaleun eta Jorge Oteizarekin Alzuzan (BRZ-041/004)

Leku askotara joaten zen Bittorrekin. Donapaleura Eñaut Etxamendirekin egotera, adibidez. Berotegiak zituen. Hari jarraituz, berak ere ipini zituen Berrizen. Behin Nafarroako Alzuzara joan ziren Oteizarekin egotera. Ez zuen haien arteko solasa ulertzen. Asko aspertu zen.

365. Argia, kapaza eta umila (BRZ-041/005)

Apietan, Oletako baserrian orduak ematen zituzten. Kortako lanak egin, afaldu eta berriketa luzea. Beti ideiak ematen. Gizon argia eta kapaza. Umila, bere buruari garrantzirik ematen ez ziona. Bere jarratzaile amorratua izan zen. Atzenengo hogeitun urtean ez zuten hartuemonik izan.

366. Abadiñoko Feriako sarien norabidea aldatu zuen (BRZ-041/006)

Landare erakusketa bat antolatu zuten Gerediagarekin, Garaiko jaietan. Bittorren ideiak ziren. Ferian, berriz, behirik onenei saria eman beharrean, baserriar aurrerakoienei ematea proposatu zuen, eta hala egin zen. Orturik onenari, kortarik aurreratuenari, baserririk txukunenari... Bittor baserriarra zen; adimen maila handikoa, hori bai.

367. Beti aitzindari izan behar dela, sen hori kontagiatu zion Bittorrek (BRZ-041/008)

Domeketan sarri Lizundia eta biak Bitor hartu eta afaltzera eramaten zuten Legutiora. Bitorrek emaniko ideia gehienak eraman ditu aurrera. Berotegiena, aurretik zuen ideia, baina Bittorrena izan zen bultzada. Etxeak ere egin zituen kooperatiba eran Berrizen, Otxandiokoa ereduari jarraituz. Beti izan behar dela aitzindari zioen hark, eta sen hori kontagiatu zion.

368. Amama guardia zibilekin karlistadetan (BRZ-043/001)

369. Castor Bastida eta Josefa Garitagoitia aitita-amamak (BRZ-043/002)

370. Etxean EAJkoak (BRZ-043/003)

371. Gerra hasi eta Primo Bastida Garitagoitia hil (BRZ-043/004)

372. Osaba Rafael Bastida Amuategi batailoiko tenientea (BRZ-043/005)

373. Osaba Rafael Bastida: preso, trabajadoreetan eta legioan (BRZ-043/006)

374. Osaba Rafael Bastidaren heriotza (BRZ-043/007)

375. Osaba Eladio Bastida Francogaz derrigorrean (BRZ-043/008)

- 376. Felipe Urtiagaren familia eta jatorria (BRZ-044/001)**
- 377. Felipe Urtiaga: ikasketak, lana eta gaseosa enpresa Berrizen (BRZ-044/002)**
- 378. Felipe Urtiaga: Berrizko alkate (BRZ-044/003)**
- 379. Felipe Urtiaga: Sabino Aranaren ezagupidea (BRZ-044/004)**
- 380. Felipe Urtiagak alabak ikasi zezaten gura (BRZ-044/005)**
- 381. Felipe Urtiaga: atxiloketa, kartzela eta epaiketa (BRZ-044/006)**
- 382. Felipe Urtiaga: heriotza zigorra eta fusilamendua (BRZ-044/007)**
- 383. Felipe Urtiaga: Derion lurperatu eta gerora Berrizera ekarri (BRZ-044/008)**
- 384. Felipe Urtiagaren gutunaren irakurketa (BRZ-044/009)**
- 385. Felipe Urtiaga erail ostean familiari ondasunak inkautatu (BRZ-044/010)**
- 386. Berriztarren elkartasuna (BRZ-044/011)**
- 387. Familian gutxi kontatu baina aitita beti presente (BRZ-044/012)**
- 388. Salatu zutenei barkatzeko eskatu zuen Felipe Urtiagak (BRZ-044/013)**
- 389. Aurkezpena eta familia (BRZ-045/001)**
- 390. Umezaroko akorduak (BRZ-045/002)**
- 391. Gurasoen ogibideaz (BRZ-045/003)**
- 392. Miliziano asko Berrizen (BRZ-045/004)**
- 393. Berriztik Andikoara eta handik Durangoko bonbardaketa ikusi (BRZ-045/005)**

- 394. Tropa faxistak sartzean Berrizera (BRZ-045/006)**
- 395. Italianoak, moroak eta erreketek Berrizen (BRZ-045/007)**
- 396. Amaren Eibarko bezero batzuk etxean errefuxiatu (BRZ-045/008)**
- 397. Errota prezintatu eta amari salbokonduktoa ukatu (BRZ-045/009)**
- 398. Aita Atxilotu eta Larrinagako kartzelara (BRZ-045/010)**
- 399. Berrizko fusilatuak eta aitaren lehengusu Cecilio Zabala fusilatua (BRZ-045/011)**
- 400. Aitaren kartzelako akorduak (BRZ-045/012)**
- 401. Eskola frankista: euskara debekatua eta edozergatik jo (BRZ-045/013)**
- 402. Luis Gaztelu-Urrutia parrokoaren zaplastekoa (BRZ-045/014)**
- 403. Garaiko maisuaren jipoi itzelak (BRZ-045/015)**
- 404. Iñaki ez zen "Ignacio" (BRZ-045/016)**
- 405. Felipe Alberdi "Verdugo" (BRZ-045/017)**
- 406. Luis Gaztelu-Urrutia parrokoaren hiletan herritarrik apenas (BRZ-045/018)**
- 407. "18 de Julioko" kanpaiak jo eta maisu zigortzaileari lepotik heldu ziona (BRZ-045/019)**
- 408. Hausnarketa (BRZ-045/020)**
- 409. Berriz gauza txikia zen gerra aurretik (BRZ-046/001)**
- 410. Julian Fondak ekarri zuen lehenengo automobila (BRZ-046/002)**
- 411. Eskolan Coca maisuagaz ikasi erdera apurra (BRZ-046/003)**

- 412. Tio Feliperi (Urtiaga) buruz (BRZ-046/004)**
- 413. Gerra hasi zela milizianoen etorrerarekin jakin (BRZ-046/005)**
- 414. Durangoko bonbardaketak Agerre baserrira bidean harrapatu (BRZ-046/006)**
- 415. Bonbardaketaren ostean familia Agerrera eta aita frentean (BRZ-046/007)**
- 416. Aitari janaria eroatera Larrinagako kartzelara (BRZ-046/008)**
- 417. Aitaren kartzelaldiko akorduak (BRZ-046/009)**
- 418. Kartzelan egon ziren berriztarrak (BRZ-046/010)**
- 419. Felipe Urtiaga Bilbon atxilotu (BRZ-046/011)**
- 420. Felipe Urtiaga nortzuk salatu zuten (BRZ-046/012)**
- 421. Fusilamenduekin falangista haserre eta erreketek kartzelatik irteten lagundu (BRZ-046/013)**
- 422. Gerraostean eraztunaren zigorra eskolan (BRZ-046/014)**
- 423. Falangista jantzita Bilbora desfilatzera eroan zituztenekoa (BRZ-046/015)**
- 424. Juanita: 1936an Eibarren pistola eman (BRZ-047/008)**
- 425. Erreketeak etxean eta aita kartzelara (BRZ-047/009)**
- 426. Martzelo Lejarreta Ebroko batailan hil (BRZ-047/010)**
- 427. Aita bisitatzera kartzelara (BRZ-047/011)**
- 428. Berrizko alkatearen alabari fuilamendura laguntzen (BRZ-047/012)**
- 429. Egunero salbokonduktoa behar (BRZ-047/013)**

430. Komentuko eskolan, berriztarrak eta aberatsen umeak (BRZ-048/002)

Komentuko eskolan ibili zen, beste berriztar neskekin batera. Irakasleak mojak izaten ziren. Aberatsen umeak barneko ikasle moduan egoten ziren. Haien inbidiatan egoten ziren.

431. Eskolako materiala eta eguneroko zereginak (BRZ-048/003)

Tapa jasotzen zitzairen idazmahaiak ziren. Liburua entziklopedia izaten zen. Euskaraz eginda zigortu egiten zituzten. Hamalau urtera arte egon zen. Zabaleko moja bat zegoela dio. Bordatzen ikasi zuen han. Eguneroko errezatu eta meditatzen zuten eta zapatuetan konfesatu.

432. Sagarrak eta makatzak saltzera, Soraluzera edo Bergarara (BRZ-048/005)

Etxean ura zeukaten. Etxeko beharretan denak aritzen ziren. Urkijotarrei esnea saltzen zieten. Makatzak eta sagarrak plazan saltzen zituzten, Soraluzen eta Bergaran, trenaz joanda. Trenak eta txartelak zelakoak ziren kontaktzen du.

433. Baserriaren egitura eta sukaldeko tresnak (BRZ-048/006)

Baserriaren egitura zelakoa zen azaltzen du. Ganbaran eta sabaian zer gordetzen zuten kontaktzen du. Beheko sua ezagutu zuen. Lapikoak eta mahai-tresnak zelakoak ziren aipatzen du. Amama modernoa zela dio.

434. Sagardoa zela egiten zuten (BRZ-048/007)

Sagardoa etxerako egiten zuten. Zela egiten zuten azaltzen du.

435. Gazta eta ogia, etxekoak (BRZ-048/008)

Etxerako gazta amak egiten zuen. Zela egiten zuen azaltzen du. Labea zeukaten etxean. Errotara joaten ziren garia eta artoa ehotzera. Herriko errotak aipatzen ditu.

436. Odolosteak, txorixoak eta pernila (BRZ-048/009)

Txerria hiltzera harakina joaten zitzairen etxera. Lehenengo odolostea egiten zuten, gero txorixoak eta bodegako harrizko ontzian pernila gatzetan gordetzen zuten.

437. Elizan etxe bakoitzak bere lekua (BRZ-048/010)

Elizan etxe bakoitzak bere lekua izaten zuen. "Culto y clero" diru-batzea izaten zen eta umeak bidaltzen zituzten. Norberak bere aulkia ekartzen zuen, inzialekin. Gizonezkoak bankuetan esertzen ziren.

438. Eguneroko jatorduak eta bereziak (BRZ-048/012)

Eguneroko jatorduak eta bereziak zelakoak izaten ziren kontaktzen du. Bijilia beti egiten zuten.

439. Oiloak, postreak eta kafea (BRZ-048/013)

Oiloak gonbidatuak etortzen zirenean jateko hiltzen zituzten. Gatzatua behiaren esneaz egiten zuen. Natillak eta arroz-esnea egiten zituzten. Kafea asko edaten zuten.

440. Neska-mutikoen arropak eta oinetakoak (BRZ-048/014)

Goizago jaikitzen ziren. Komentura oinez joaten ziren. Izeko bat zeukan jostuna eta hark egiten zizkion arropak. Abarkak eta abarketak erabiltzen zituen. Galtzetinak izaten zituzten domeketarako. Mutilak zela jazten ziren kontatzen du.

441. Modako orrazkera, uhin moduko bat (BRZ-048/015)

Bera gaztea zenean, uhin moduko bat erabiltzea zen moda. Kresen ile-apaintzailearengana joaten ziren.

442. Domeketako plana, elizako eginbeharrak, kafesne eta erromeria (BRZ-048/021)

Doktrinara joan, arrosarioa errezatu eta Pantaleonenean kafesnea hartzen zuten. Olakueta erromeria egiten zuten eta Benito izaten zen soinujolea. Tabernak izendatzen ditu. Hiletan ostean, bazkaria egiten zen Ormaztegin.

443. Umetako jolasak eta jostailuak (BRZ-048/023)

Umetan sokan, tabekin... jolasten zuten. Sokasaltoko kanta bat abesten du. Mutilak pilotan aritzen ziren. Zeleminan aritzen ziren (txingoka). Bolotan gizonak eta mutilak ibiltzen ziren. Izekok erositako panpinak izaten zituen.

444. Jaio eta biharamunean, bataioa (BRZ-048/024)

Jose Luis medikuak laguntzen zuen erditzeetan. Bataioa biharamunean egiten zen. Ainak eramaten zuen umea elizara, aita-puntako eta ama-puntakoarekin. Gero bazkaria ematen zieten etxean. Mantoia janzen zieten umeari.

445. Hiletetako ohiturak (BRZ-048/025)

Zazpi urterekin egin zuen jaunartzea, zuriz jantzita. Garizuman parrokiari egiten zuten doktrina. Elizan bereizita egoten ziren andreak eta gizonak. Hiru mailatako hiletak egoten ziren. Bizkarka ekartzen zuten hilotza anderoek; gosari ona ematen zieten aurretik. Lehenengo hilerrira joaten ziren eta hileta egiten zen ondoren. Goizez izaten zen beti, gero bazkaria ematen zieten-eta kanpotik etorritakoei.

446. Medikuek bataiatzen zituen hildako jaioberri (BRZ-048/026)

Jaio eta hiltzen ziren umeak etxean bataiatzen zituzten. Medikuek horixe sinisten zuten, eta orduan, batzuetan beraiek bataiatzen zituzten. Bataiatu gabekoek aparteko lekua zeukaten hilerrian.

447. Bere ezkontza eta arreo (BRZ-048/028)

Jantzi beltzez eta kapelarekin ezkondu zen. Bazkaria karteruarenean egin zuten. Madrilera joan zen ezkon bidaian. Arreo jaso zuen; izarak, mantak, sukaldeko ontziak, koltxillak... Bere gizonak izarak ekarri zituen. Belarritakoak

oparitu zizkion gizonak ezkondu zirenean. Don Bruno abadeak ezkondu zituen. Lagunekin despedida egiten zen eta bazkaria familiakoekin.

448. Norbait hildakoan, kanpaiak (BRZ-048/029)

Norbait hiltzen zenean, kanpaiak desberdin jotzen zituzten andrea, gizona edo umea bazen. Auzoko kanpaiak ere jotzen zituzten.

449. Baserriko tresnak eta elikagaiak (BRZ-048/031)

Behiei izena ipintzen zieten. Arranak, zintzarriak, Abadiñon erosten zituzten San Blasetan. Zaldiak han saltzen zituen bere aitak. Eztia etxean egiten zuten baina kendu egin zituzten erleak. Sagarrak, makatzak, okeranak... denetarik izaten zuten. Sasimedikuak egoten ziren.

450. Baserriko tresna bakoitza zertarako zen (BRZ-048/032)

Laia, goldea, area, narra, burdin-area, txilindroa, aitzurrak, aizkorak, arraitzurra... zertarako erabiltzen ziren azaltzen du.

451. Herriko artisauak eta lanbide zaharrak (BRZ-048/034)

Kriaduek eta kriadek kanpoko lanak egiten laguntzen zieten. Errementaria bazegoen herrian, Felix; uztargilea ere bazegoen; abarketagilea Andikoan zegoen eta harginak asko zeuden. Harriak Oizen egoten ziren. Goruetan ez zen bere etxean egiten. Arranak eta otzarak egiten zituenik ez zegoen. Etxean ikusi izan du ikatza egiten. Kinkilleroak ibiltzen ziren etxerik etxe saltzen; galiziar bat ibiltzen zen eta beste andre bat telak saltzen.

452. San Juan bezperako kanta eta eskerako ohiturak (BRZ-048/038)

San Juan bezperan sua egiten zuten. Kanta abesten du. Urteberri egunean kantuan ibiltzen ziren. Eguen zuri batzen ibiltzen ziren mutilak. Santa Ageda batzeen akordurik ez dauka.

453. Umetako beldurrak, iluntasuna eta automobilak (BRZ-048/039)

Ilun-ilun egoten zen etxerako bidea. Behin gertatutako pasartea kontatzen du. Automobiletan sakamantekasa ibiltzen zela esaten zieten, eta autoa ikusiz gero, ezkutatu egiten ziren.

454. Beheko sua, su txikia, lapikoak, potinak eta harraska sukaldean (BRZ-049/005)

Ezkaratzetan zer egoten zen kontatzen dute. Beheko sua kendu ere ez zuten egiten; su txikia (hornilloa) ere izaten zuten. Lapikoak gorriak izaten ziren eta lurrezko potina azak egosteko erabiltzen ziren. Harraska bat zeukaten eta oremahaiaren azpian, kantinek izaten zituzten urez beteta. Galtzak suaren gainean lehortzen zituzten.

455. Edalontziak, mahai-tresnak, platerak eta potinak sukaldean (BRZ-049/006)

Edalontziak konpartitu egiten zituzten. Mahai-tresnak oraingo modukoak izaten ziren. Platerak lurrezkoak izaten zituzten. Lurrezko potinak aipatzen dituzte. Logelan eskuak garbitzeko altzaria izaten zuten.

456. Logelak zelakoak izaten ziren (BRZ-049/007)

Logelak zelakoak izaten ziren kontaktzen dute.

457. Auzoko eta inguruko errotak (BRZ-049/008)

Ganbaran artoa eta baba gordetzen ziren; sabaian, berriz, lastoa. Ogia etxean egiten zuten. Uharte-errotara joaten ziren. Errotabarri, Uharte-errotak, Boluzahar eta Anporta ziren herriko errotak. Laba-sua astero egiten zuten. Erabiltzen ziren neurriak aipatzen dituzte: anega, kuarta, kantina...

458. Ermandadeak zertarako izaten ziren (BRZ-049/009)

Esnea etxerako izaten zen eta txahala saldu egiten zuten. Ermandadeak zertarako ziren azaltzen dute. Normalki gizonak joaten ziren, baina tarteka aitaren partez joaten zen Edurne.

459. Etxea eta norbera babesteko konjuruak (BRZ-049/010)

Etxeak babesteko San Juan lorea, lizarra eta larrosa gorria ipintzen zituzten kanpoko atean. Hurrengo urtean sua pizteko erabiltzen zen lore-sorta hori. Ur bedeinkatua bariku santu egunean hartzen dute komentuan, urte osorako. Oinaztuetatik babesteko kandela pizten zuten, Kandelario egunean bedeinkatutakoa.

460. Etxean egindakoan, monjorra eta ereinotz adarra (BRZ-049/011)

Etxea egindakoan, bedeinkatu eta monjorra emoten zen, jatordua. Teilatuan ereinotz adar bat ipintzen zuten.

461. Mezetako ohiturak eta bereizmenak (BRZ-049/012)

Elizan familia bakoitzak norbere aulkiak izaten zituen. Umetan, belauniko jartzekoa egoten zen. Umeak, gizonak eta andreak non egoten ziren azaltzen dute. Don Isidro apaizari buruzkoak aipatzen dituzte. Meza egunero egoten zen, zortzietan. Hileko lehenengo barikuan eta domeketan joaten ziren mezetara. Doktrinara eta arrosarioa errezatzera ere joaten ziren.

462. Eskolan euskaraz egitearren zigorra (BRZ-049/013)

Andikoako eskolara joaten ziren, neska eta mutil batera. Erdaraz egin behar izaten zuten; txapa bat ematen zieten euskaraz egiten bazuten eta zigorra jasotzen zuten gero (beranduago irten, kartela etxera eraman...). Maisu-maistra gehienak kanpotarrak izaten ziren.

463. Garizumako ohiturak eta prozesioa (BRZ-049/015)

Garizuman baraua (ez gosaltzea) eta abinentzia egiten zituzten. Mezak goizez izaten ziren. Prozesioa zelakoa izaten zen eta zela janzen ziren kontaktzen dute.

464. Norbait hildakoan egin beharrekoa, pausoz pauso (BRZ-049/016)

Jaunartzerako jaisten ziren parrokiara. Norbait hiltzen zenean, abadea etxera etortzen zen, gorpua garbitu eta mojen abitua janzen zieten (erositakoa), anderoek hilkutxa hilerrira eraman eta hileta elizkizuna egiten zuten. Hilkanpaiak zelakoak izaten ziren kontaktzen dute.

465. Ume jaioberriaren bataioa (BRZ-049/017)

Umeak jαιο eta berehala bataiatzen zituzten. Ainak eramaten zuen umea, aita-puntako eta ama-puntakoarekin. Faldoia janzten zitzaion, gerrikoa, kuttuna eta txapeltxoa. Opariak egiten zitzaizkion umeari.

466. Jaunartzea zelakoa izan zen (BRZ-049/018)

Sei-zazpi urterekin egin zuten jaunartzea. Soinekoak zelakoak ziren kontaktzen dute, baita eguna zela pasatu zuten ere. Pazko inguruko domekan egiten zen. Txokolatea jan zuten jaunartzea egin ostean.

467. Txerri-bodan auzokoak elkarrekin (BRZ-049/022)

Txerri-boda egiten zuten etxean. Auzoak elkartzen ziren. Odolarekin odolosteak egiten zituzten, arratsaldean txerria zatitzen zen eta gero afaria egiten zuten denek batera. Anisa eta koñaka edaten zituzten. Txorixoak gatzetan lagatzen zituzten. Irarekin erretzen zuten txerria, ziria sartu eta labanarekin hiltzen zen.

468. Auzoko jaiak, erromeriak eta orduko jantziak (BRZ-049/024)

Kaferik ez zuten hartzen, baina ezkondu eta gero, kafesnea bai. Asentzioetan jaiak zela ospatzen zituzten kontaktzen dute; auzokoek aureskua egiten zuten eta erromeria egiten zen iluntzean. Domeketan Durangora edo Olakuetara joaten ziren erromeriara. Dantzarako mutilek eskaera egiten zieten. Gona eta zapatak janzten zituzten; abarkak Ormaztegin lagatzen zituzten. Mutilen janzkera aipatzen dute. Andre nagusiek zapia erabiltzen zuten buruan; sorora joandakoan, andrek kapela eta mauka luzea erabiltzen zituzten. Galtzak ardi-lanarekin egiten zituzten.

469. Orduko errezoak (BRZ-049/025)

Etxean aitak agintzen zuen gehienetan. Mahaian errezoak aiteitak eta amamak gidatzen zituzten. Zer errezatzen zuten kontaktzen dute.

470. Ezkontzak eta arreoak (BRZ-049/031)

Beraien ezkontzari buruzkoak kontaktzen dituzte. Bata, haurdun geratu zen eta horregatik ezkondu ziren; amamak ulertu zuen ondoen. Bestea, ez zen haurdun ezkondu. Beltzez jantzi ziren. Arreoa astoan eramaten zuten gizonen etxekoek. Gurasoen arreoaz berba egiten dute. Ezkon-bazkariko menua azaltzen dute. Ezkondu zituzten abadeei buruzkoak. Ezkontzara oinez joaten ziren, takoiekin. Andikoan ezkondu ziren. Familiakoak bakarrik izaten ziren gonbidatuak.

471. Hiru mailatako hiletak (BRZ-049/033)

Hiletak hiru mailatakoak izaten ziren eta kanpaia-jotzerakoan adierazten zen, baita hiletako apaiz kopuruan ere. Elizan bereizketa handia egoten zela diote. Aberatsek butaka izaten zuten elizan.

472. Markesaren etxea, familia eta laguntza (BRZ-049/034)

Markesa ezagutu izan dute. Bietako batek kontaktzen du, ama umea zela gaixotu egin zela; medikuak laguntza eskatu zion markesari, eta ebakuntza egin zioten etxean. Markesaren familia eta etxea zelakoak ziren kontaktzen dute.

473. Andikoako ikastolan euskaraz (BRZ-050/002)

Andikoako ikastolan ibili zen. Bai berak eta bai aurrekoek dena euskaraz ikasten zuten. Esaten zen behin Hormastegi pasatuz gero, gaztelaniaz egin behar zela.

474. "Arnaia" etxearen egitura (BRZ-050/005)

Sei neba-arreba ziren: hiru mutil eta hiru neska. Gela bana zuten etxean. Behean asto- eta txahal-korta. Etxeak mehelina zuen, badaezpada, sutea izanez gero ere, alde bat babesteko.

475. Aitak abarkak egiten zituen ganaduaren larruarekin (BRZ-050/006)

Etxean ganaduren bat hiltzen zenean, zezina egiten zen. Larrua zabal-zabal eginda jartzen zen, sikatzen, eta gero harekin abarkak egiten zituen aitak. Nola egiten zituen. Abarkak lehortzen baziren, gauean sekula-belarra sartzen zitzaien barruan eta goizerako umelduta egoten ziren. Geroago gomazko abarkak etorri ziren, kotxeen gurplekin egindakoak. "Txapiñuek".

476. Garbitokia Andikoan; "edarra-mutile" (BRZ-050/009)

Andikoako garbitokia. "Edarra-mutile". "Txarrue". Eibar inguruko harrobi batetik ekarritako harri-lauzak. Etxerako ura.

477. Gerra sasoian arbia saltzera Bilbora (BRZ-050/010)

Ganadua zuten etxean. Etxeko gaiak saltzera Eibarrera, Durangora edo Bilbora joaten ziren. Ilar zakukadak eramaten zituzten Eibarrera. Gerra sasoian gosea zegoen eta naboia (arbia) saltzera joaten zen Bilbora, Durangotik tranbia hartuta.

478. Berrizko eskolak; Andikoako eskola (BRZ-050/011)

Andikoako eskola. Sei urte ingururekin hasi zen bertan. Gero Durangora joan zen, maristetara. Berrizko Kontzejua: udaletxea, eskolak, telefonoa eta kartzela. Beste auzo-eskolak geroagokoak dira. Beraiek eskola auzoan bertan zutenez, ez zuten herriko jenderik ezagutzen.

479. Aitagarrebak martxan jarritako forja (BRZ-050/015)

Bere aitagarrebak, Bibiano Gaztelurrutiak, eskopeta-lantegia zuen Eibarren. Gerra sasoian, bonba batek lantegia apurtu zien eta, orduan, forja jarri zuten Berrizen. Gerraostean Eibarrera itzultzea pentsatzen zuten arren, azkenean bertan geratu ziren. Soldadutzatik etorri zenean, hantxe hasi zen lanean Emilio. Forjan denetarik egiten zuten. Hasieran eskopetentzako piezak asko.

480. Forjako langileak eta soldata; apopiloak (BRZ-050/018)

Bera forjan lanean hasi zenean, zazpi langile ziren, denak bertakoak. Gero kanpoko jendea etorri zen eta errentan egoten ziren. Eibarren etxe askotan egoten zen kanpoko jendea, egoera txarrean. Gaur egun 90 langile inguru daude forjan. 1940an 12 pezeta inguru kobratuko zituen.

481. Fondako menua bi pezeta eta erdian (BRZ-050/020)

Berrizko jatetxeak. Bera lanean zebilenean, Fondan bazkaltzen zuten. 2,50 pezeta izaten zen menua. Lehenengo salda eta gero baba gorri platerkada. Sasoi batean kokoa atera zitzaion babarrunari. Orduko kontuak. Julian Urtiaga eta emaztea ziren Fondaren arduradunak.

482. Berrizko limonada fabrika markesarena (BRZ-050/022)

Berrizko limonada fabrika. Markesa eta bilbotar batzuk omen ziren jabeak. Berrizen ez zegoen urik eta Larizgoitik hartzen zuen ura markesak.

483. Garai bateko Olakueta: garbitokiak, gasolindegia, denda... (BRZ-050/025)

Berrizko garbitokiak. Gasolindegia. Denda. Olakueta nolakoa zen. Ospitalea egon zen "Kaleja"n, baina berak ez zuen ezagutu.

484. Laubidetan gurdi-bidea besterik ez zegoeneko kontuak (BRZ-050/026)

Elorrio, Markina, Zaldibar eta Durangorako bidegurutzea dagoen lekuan "Laubideta" esaten zion aitikak. Garai batean ez zegoen errepedierik, gurdi-bidea bakarrik eta dena kakatzaz beteta egoten zela esaten zuten. Astoekin errotara joaten zen jendea eta astoak kakatzatik atera ezinda ibiltzen ziren.

485. Andikoako baserriak aberatsagoak; herri-basoak (BRZ-050/027)

Aitita Andikoakoa zen. Olakuetakoa jendea edukitzen zuen morroi. Sasoi hartan goiko baserrietakoak aberatsagoak omen ziren; basoak, abereak... zituzten. Bertako arrazakoei "herri-behiak" esaten zieten. Herri-basoak Udalarenak izaten ziren eta enkantean ateratzen zituzten. Gerora saldu egin ziren baso horietako batzuk.

486. Maiordomoaren eginbeharrak (BRZ-050/029)

Etxejabeek Kofradia osatzen zuten eta maiordomo batzuk izendatzen zituzten urte bakoitzerako: Sarriako bat eta Andikoako bat. Maiordomoaren eginbeharrak.

487. Maiorazkoen betebeharrak (BRZ-050/031)

Normalean seme edo alaba nagusienari uzten zitzaion baserria oinordetzan. Maiorazkoa gero bikote aberatsaren bila ibiltzen zela esaten zuten, izan ere, anai-arrebei dirua eman behar izaten zien gero. Maiorazkoari jartzen zitzaion beste baldintza bat: anai edo arreba ezkongabea etxean hartzea eta haren mantenuaz arduratzea. Maiorazkoek edo etxe jabeek askotan bizimodu txarra izaten zuten: beti zorrak ordaintzen. Mutilaren etxera ezkontzen zen neska ere sarri hango etxeoandreairean mendean egon behar.

488. Andikoako erromeria; "aramaitakoa" (BRZ-050/034)

Garai batean eliza ondoan egiten zen erromeria. Gero auzoetan ere bai. Bera mutikoa zenean Andikoan egiten zen erromeria eta gogoan du hara joaten zela begiratzera. Sakristauaren etxeokoei taberna antzekoa zuten eta kanpaiak jotzeko ardura ere beraiena zen. "Aramaitakoa" goizean, eguerdian eta gauean jotzen zen. Mutilek "aramaitakoa" oraindik ez jotzeko eskatzen zioten, harekin erromeria bukatu egin zen eta. Mutilak bola-jokoan ibiltzen ziren. Neska-mutilen janzkera.

489. Probak San Antonio jaietan (BRZ-050/035)

Inguruetako zer jaitara joaten ziren: Andikoako Asentzioak, Urdaixako jaiak, Garaikoak... San Antonio jaietan probak egoten ziren. Pedrojuan jatetxearen aurrean probak (demak) jokatzeko ziren errepidean. Kotxeren bat zetorrean, itzaroteko esaten zioten. Non gehiago egiten ziren. Zerrategiko oholekin ixten zuten. Neskak ere joaten ziren, baina gutxiago.

490. Gerra sasoiko ibilerak (BRZ-050/038)

Gerra sasoiko ibilerak. Bi aldeetan ibili zela dio. Lehenengo Markinan ibili zen trintxerak egiten. Handik mendiz Lekeitioraino joan ziren. Durango bonbardatu zutenean, hegazkinak ikusi zituzten pasatzen eta kea ere bai. Batzokikoak ziren beraiei agintzen zietenak. "Asturianoek" edozein hiltzen zutela dio. Mojak zaintzera bidali zituzten komentura. Karteruenean jaten zuten eta gustura.

491. Berrizko Batzokia, gerra aurrean sortua (BRZ-050/039)

EAJkoei "Bizkaitarrak" esaten zitzaizkien. Batzokia Errementariarenean zegoen. Gerra aurretik sortutakoa zen. Mutilek ezpata-dantza ikasten zuten Batzokian. Nortzuk ibiltzen ziren irakasle lanetan. Hitzaldiak ere entzuten zituzten. Urteko kuota. Bozketa.

492. Gerran trintxerak egiten; Arana Goiri batailoian (BRZ-050/040)

Gerra sasoiaren mojen komentua zaintzen egon ziren, Trintxerak egiten ere bai, Markinan eta Larrabetzun. Aitzurrarekin egiten zituzten. Bonbardaketa izan zen Markinan eta Ama birjina hondatu zuten. Iruzubietatik gora alde egin zuten eta biharamunean Lekeitiora iritsi ziren. Elizpean egon ziren pare bat egunean. Handik Bilborantz. Arana Goiri batailoian sartu ziren orduan. Leon Salaberria ermuarra zen batailoiko buru. Santander alderantz joan ziren gero.

493. Santanderren preso hartu zituzten (BRZ-050/043)

Nazionalak harrapatu zituzten Santanderren eta kamioietan Laredora eraman zituzten. Sekulako irainak botatzen zizkieten. Fusilatu egingo zituztela uste zuten. "Cara al sol" abesteko esan zieten, baina beraiek ez zekiten zer zen ere. Handik batzuk Bilbora eraman zituzten eta beste batzuk Santoñako kartzelara.

494. Gerra zibilean preso hartu zituzteneko bizipenak (BRZ-050/045)

Gerra sasoiaren Soto-Iruzen egon zeneko kontuak. Santoñako kartzelatik Santander kapitalera eraman zituzten. Gosez irten ziren eta ogia, ardoa eta esne kondentsatua hartu zituzten. Zenbaitzuen aitak, tartean berea, oinez

joan ziren mendirik mendi eurak bisitatzera. Gerratean hiru urte egin zituen etxetik kanpo.

495. Nazionalen errepresioa kartzelan egon zirenean (BRZ-050/046)

Gerra sasoiari preso egon zireneko bizipenak. Italiarrak joan eta gero komandante batzuk etorri ziren. Kartzelatik ateratzen ziren guztiak fusilatu egin zituztela jakin zuten eta beldurrez egon ziren. Behin lagun bati komandantziara deitu zioten eta aurpegia apurtuta itzuli zen. Gernika eta Durango nork bonbardatu zituen galdetu zioten. Gero berari deitu zioten eta berak erdizka eman zituen erantzunak, kolperik ez jasotzearen.

496. Santanderretik Iruñera nazionalekin (BRZ-050/047)

Gerra sasoiari preso egon zireneko bizipenak. Santanderretik sarjentu batekin Iruñera joan behar zirela esan zieten. Ogia, esne kondentsatua eta ura hartu zituzten. Ezagun bat ikusi zuten eta etxekoei euren berri emateko eskatu zioten. Iruñeko kuartel batera eraman zituzten. Castillo plazan falangistak eta karlistak. Militarren txapela. Neskak, "margaritak". Orduko bizipenak.

497. Franco Iruñean, frankista nafarrei harrera egiten (BRZ-050/048)

Gerra zibileko kontuak. Nazionalak Iruñera eraman zituzten eta han militar jantzia eman zieten, desfileatu egin behar zutela eta. Besteak beste, Franco etorri zen nafarrei ("Los conquistadores del Norte", Lemoako frontean ibilitakoak) harrera egitera.

498. Castillo plazako ekitaldian hoteleko balkoia erori (BRZ-050/050)

Franco etorri zen Iruñera frankista nafarrei ("los conquistadores del norte") harrera egitera. Castillo plazan izan zen ekitaldia eta berak ere desfilean parte hartu zuen. Franco kioskoan. Jendez beteta ingurua. Hotel bateko balkoia erori egin zen, gainean emakumezko asko zegoenez, pisua hartu zuelako. Zintzilik geratu ziren neskek eta beraiek begira, ea zerbait ikusiko ote zuten.

499. Teruelen zauritu egin zuten; han zegoela amaitu zen gerra (BRZ-050/051)

Nazionalak Teruelera bidali zuten soldadu. Zauritu egin zuten bertan (La Muelan). Han zegoela bukatu zen gerra. Handik Valentziaraino oinez joan ziren. Terueleko bizipenak. Alfambran egon ziren. Gogor hartu zituzten, "rojos separatistas" zirela eta; mugimendu txikiena eginez gero, hil egingo zituztela esan zieten. Bilboko komandantea. Gaez zaintza egiten pasa zuten estutasuna. 1939ko urtarrilaren 10ean zero azpitik 38 gradu egin zituen.

500. Gerrako zauriaren ondorioz, jan ezinda (BRZ-050/053)

Gerran zauritu zutenean, Terueletik Zaragozara bidali zuten. "Banco Hispanoamericano" ospitale bihurtuta zegoen. Ospitalean laguntzen zebilen neska batek gurasoei idatzi zien, ez zegoela larri zaurituta esateko. Handik Burgosera. Trenean mareatu egiten zen. Soldadu batek jatekoa eman zion, baina ez zen konturatu masaila apurtuta zuela. Operatu egin zuten gero. Nolakoak pasa zituen. Handik irtendakoan berriz frontera bidali zuten.

501. Forjako lana (BRZ-050/061)

Forjan bertan egiten zituzten makinak. Burdina Labe Garaietatik ekartzen ziren trenean. Forjako lana. Durangaldeko forja bakarra zen, baina inguruetan bazeuden gehiago Zaldibarren, Ermuan, Eibarren... Lagun zituen beste forjariak.

502. 1854ko etxea (BRZ-051/002)

Bizitza biko etxea zen. Ezkatz bi zeuden. 1854koa da etxea, Maria Josefa Agirrek egina; taberna ere ordukoa zen.

503. Tabernako sukaldea zelakoa zen (BRZ-051/003)

Amak txapa (ekonomika) noiz ipini zuen kontatzen du. Tabernan lanean etxeakoak aritzen ziren hasieran; gero, neskak ekarri zituzten lanerako. Lapiko gorriak eta beltzak izaten zituzten, baita tupinak ere, beheko suaren gainean ipinita.

504. Hileta motak (BRZ-051/004)

Hiletak eguerdian izaten ziren; zelakoak izaten ziren kontatzen du, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoak zelakoak ziren.

505. Ormaiztegi etxea eta ingurua (BRZ-051/005)

Platerak zuriak izaten ziren. Koilarak ez ziren oraingo modukoak. Edalontziak bana izaten zituzten. Etxeak Ormaztegi izena du. Labaderoa eta labea non zeuden azaltzen du. Amak zelako plantxa erabiltzen zuen kontatzen du. Oilotokia zelakoa zen azaltzen du.

506. San Juan eguneko loreak eta patana (BRZ-051/006)

San Juanetan lizar adarra ipintzen zen atarian. San Juan egunean patana eta loreak zabaltzen ziren lurrean bideraino eta zortzi-bederatzi egunera jaso eta gorde egiten ziren, hurrengo urtean erretzeko.

507. Bijilia eta baraua (BRZ-051/008)

Barikuetan bijilia egiten zen urte osoan zehar. Barau ere egiten zutela entzuna du. Gabon egunean eta eguazten santuz ere hala zela dio.

508. Txorizoak egiten (BRZ-051/010)

Txorizoak zela egiten zituzten kontatzen du.

509. Ilantia kafeari (BRZ-051/011)

Kafea atxikoriarekin hartzen zuten. Ilantia sartzen zitzaion, zaporea emateko.

510. Eskolako urteak; Maria Umearen eguna (BRZ-051/013)

Azaroaren 21ean kolegioko prozesioa egiten zuten, Maria Umearen egunean. Ikasgaiak aipatzen ditu. Joskintzan aritzen ziren. Dena erdaraz izaten zen. Berrizko mojen izenak aipatzen ditu.

511. "Pista Americana", "Batalla", abasoloka... (BRZ-051/014)

"Pista Americana", "Batalla", abasoloka, zelemina, txirrinkola, txirikila... jolasak azaltzen ditu.

512. San Pedroak (BRZ-051/016)

Olakuetara joaten ziren erromeriara, dantzara. San Pedroetan dantzaldia izaten zen ekitaldi nagusia; erroskerak egoten ziren umeentzat. Prozesioa egiten zuten.

513. Aste Santuko kokoak (BRZ-051/017)

Aste Santuan batzuk koko janzen ziren, Kurutzekoa elkartekoak. Gehienak zuriz janzen ziren eta ama birjina eramaten zutenak beltzez.

514. Prozesioak (BRZ-051/019)

Lehenengo gurutzea, gero apaizak, gero santuren bat... Jendea aldamenetik joaten zen binan-binan. Umeak atzean joaten ziren, maisu-maistrekin; azkenengo, herritarrak. Bakoitzak bere aulkia izaten zuen elizan.

515. Lehenengo dantzarietakoa; dantza taldearen sortzaile (BRZ-051/028)

Lehenengo dantzarietakoa izan zen Herminia; Eguberri egunean egiten zuten dantza. Kantua abesten du. Non dantzatzen zuten kontaktzen du. Gero, hogeita bat urte zituela, dantza taldea sortu zuen. Izenak ematen ditu. Acción Católica andrek egin zizkieten jantziak. Gero, beste batzuk egin zituzten, urdinak, markesak lagundurik.

516. Dantza taldearen laguntzaile zen markesa (BRZ-051/029)

Tratu ona zeukaten markesarekin; udalak ez zienez laguntzen, markesari dantza egiten hasi ziren eta hark emandako diruarekin egin zuten aurrera. Mutilen taldea Serafin Amezuarena zen. Entseguak non egiten zituzten kontaktzen du.

517. Harremana Markesarekin (BRZ-051/031)

Markesak terrazan ematen zien merienda dantzarietara. Maria Teresarengana joaten ziren. Udala baino hobeto portatu zela dio. Markesaren familiarekin harreman handia izaten zuten.

518. Umea jaio eta bataiatu; aita-puntako eta ama-puntako (BRZ-051/036)

Umea jaiotzen zenean, ura eta esponjarekin garbitzen zuten. Bataiorako zela janzen zuten azaltzen du. Emakumea haurdun zegoelarik, kandela bat eramaten zitzairen mojei eta haiek kuttuna eta beste gauzatxo batzuk ematen zizkieten. Bataiatu gabeko umeak aparte lurperatzen zituzten. Aita-puntako eta ama-puntakoek Pazko Egunean mokotza eta goxokiak eramaten zizkieten umei.

519. Jaunartzea (BRZ-051/038)

Jaunartzea zelakoa izaten zen kontatzen du. Sermoia eta doktrina euskaraz izaten zirela dio. Ama-puntakoak jaunartzerako arropa eta aita-puntakoak zapatak oparitzea ohikoa izaten zen.

520. Anbotoko Mari eta "Mariurriken zulue" (BRZ-051/045)

Sorginen kontuak kontatzen zizkieten. Anbotoko Mari nondik pasatzen zen eta "Mariurriken zulue" non dagoen kontatzen du.

521. Auzoetako eskolak (BRZ-051/047)

Maisu-maistrak kanpokoak izaten ziren gehienak. Eskolak non zeuden azaltzen du. Auzoetan euskaraz egiten zuten eskolatik kanpora.

522. San Juanetako ospakizunak (BRZ-051/053)

San Juan suak bezperan egiten ziren. Elizondoan egunean egiten ziren. Auzoetan egiten zen. Zahagi zaharra ipintzen zuten metaren gainean erretzeko. "San Juan San Juan" kanta abesten zuten.

523. Errege bezpera (BRZ-051/054)

Errege bezperan etxez etxe joaten ziren; karrozak irtetzen zuen opariekin. Erregeak zaldi gainean joaten ziren.

524. "Etxeko ama mondrongo" koplak (BRZ-051/055)

Santa Ageda bezperan gizonezkoak ibiltzen ziren. "Etxeko ama mondrongo" koplak abesten du. Letaniak errezatzen zituzten eguen zuri egunean, baten bat hiltzen bazen.

525. Errotak, lantegiak eta dendak (BRZ-051/057)

Errotak izendatzen ditu. Gaseosa eta bizikleta lantegiak. Forja zaharra eta zerratokia. Dendak, zein zeuden azaltzen du.

526. Medikuari hilero ordaintzea (BRZ-051/059)

Medikua Jose Luis zen. "Igalak" zer ziren azaltzen du; hilero ordaintzen zen kuota moduko bat. Neskamea zeukan medikuak. Sakristana ere pasatzen zen etxeetatik urtero.

527. Umeentzako lotarako errezoa (BRZ-051/063)

Umeentzako lotarako otoitza abesten du.

528. Mendizabalen desamortizazioa eta Andikoako Kofradiaren sorrera (BRZ-055/002)

Andikoako Sakristauena etxean jaio zen Antonio. Kofradiarena zen etxea. XIX. mendean, Mendizabalen desamortizazio dekretua ezarri zenean, elizarenak ziren hainbat lur saldu ziren. Leku askotan lur-sailak erosi eta jabetzak banatu zituzten. Andikoan Kofradia sortu zuten eta haren izenean jarri ziren jabetzak, banatu beharrean.

529. Andikoako eskola (BRZ-055/005)

Andikoako eskolan ibili zen. Mallabiko Kontxita Urionaberrenetxea maistrarekin egin zuen denbora gehien. Gero Gereara joan zen maistra hura. Andikoako eskola izan zen inguruko auzoetako lehenengoa. 1917-1918 inguruan egin zuten Abadetxea abadearentzat eta kapilauak eskola emateko obligazioa zuen. Abadetxea goian eta eskola behean. Bere aita ez zen han ibili (Berrizen ibili zen), baina osaba gazteena bai.

530. Inspektoreak errieta egin zion Andikoako maistrari (BRZ-055/007)

Andikoako eskolan lehenengo ibili zirenek euskaraz ikasi zuten, baina Antonioren eta Mari Tereren sasoiaren dena gaztelaniaz zen. Ez zekitelaz gaztelaniaz dio Antoniok. Kontxita maistrak doktrina euskaraz irakasten zien. Behin inspektorea etorri zen eta egin zizkien galderen erantzunik ez zekitelako errieta egin zion maistrari. Antonio 13 urtera arte ibili zen eskolan eta Mari Tere pixka bat gehiago.

531. Umetako jolasak: sokasalto, kateka... (BRZ-055/008)

Umetako jolasak. Sokasaltoan abesten zituzten kanta. Gorde-gordeka. Kateka jolasa nola zen. Tortoloska neskak bakarrik ibiltzen ziren. Alde bakoitzak izen bat izaten zuen. Garizuman txirikilan. Pilotan neskak eta mutilak. Non jolasten zuten. Kotxerik ez zen ibiltzen eta autobusak ere gutxi. Beste jolas batzuk. Sarriako eskolak frontoi txiki bat zuen eta hangoak hobeto moldatzen ziren pilotan.

532. Andikoan meza egunero; meza-laguntzailearen zereginak (BRZ-055/009)

Andikoan abadea zegoen eta meza egunero ematen zuen. Jaunartzea egitera parrokiara. Doktrina. Antonio meza-laguntzaile moduan ibili zen umetan. Zer zeregin izaten zituen. Latinez ikasi behar izaten zuten meza, abadeari erantzuteko. Orduko abadeak.

533. Gorpua prestatzea eta gaubeila (BRZ-055/012)

Hildakoaren gorpua etxean garbitzen zen. Mari Terek auzoko hildakoak ikustera joateko ohitura zuela dio. Fraide edo moja jantzita jartzen ziren. Orduan gaubeila egiten zen. Auzoko gizonak joaten ziren batez ere eta gaua hildakoaren etxean pasatzen zuten. Sarritan mozkor galanta harrapatu ere bai, ardo gehiegi edanda. Emakumezkoak egunez joaten zirela dio Mari Terek. "Auzokoak" eta "mezakoak".

534. Hileta goizean eta gero bazkaria (BRZ-055/013)

Norbait hiltzen zenean, auzorik hurrenekoa joaten zen gurutzarekin hildakoaren etxetik elizara. Gorpua haren atzetik. Alarguna normalean ez zela hiletara joaten dio Mari Terek. Hiletak goizean izaten ziren eta gero bazkaria. Orduko jatetxeak: Karteruena, Hormastegi eta Perojuanena. Mari Tereren aita hil zenean Karteruenean egin zuten bazkaria: arrain-zopa, legatza eta txuleta.

535. Lutoaren inguruko azalpenak (BRZ-055/014)

Lutoa. Aiton-amonak hildakoan sei hilabete eta gurasoak hilez gero bi urte. Mari Terek 12 urte zituen aita hil zitzaionean; lehen urtea beltzez jantzita pasa zuen eta bigarrena erdizka. Arropak tindatu egiten ziren, aprobetxatzearen.

Mutilen lutoa. Alargun batzuek bizi osoa pasatzen zuten beltzez jantzita. Eguen zuri egunean mutikoak eskean ateratzen zirenean, hildakoren bat egon zen etxean errezatu egiten zuten, abestu beharrean.

536. Hilkutxak arotzak neurrira eginda; hilarriak (BRZ-055/016)

Hilkutxak arotzari enkargatzen zitzaizkion. Andikoan Jose Luis Arriagak egiten zituen. Antonio Lasuenek ere egiten zituen. Hilarriak. Sasoi batean eliza barruan zeuden. Elizan gizonak eta emakumeak aparte esertzen ziren: gizonak aurrean eta emakumeak atzean.

537. Garia eta artoa errotara (BRZ-055/018)

Garia eta artoa eramaten zituzten errotara, astoan hartuta. Errotakoak ehuneko hamarra hartzen zuen berarentzat, ordain gisa. Ez zuen norbere artoarekin egindako irina ematen; irina eginda edukitzen zuen jada eta eramandako kopuruaren ordaina ematen zuen irinetan.

538. Ganekoetxe jatetxean lanean (BRZ-055/021)

Ganekoetxen jatetxea zuten eta umetatik bertan lan egin behar izan zuen Mari Terek. Etxekoez gain, kanpoko langileak ere izaten zituzten beti, batez ere aita hil zenetik. Asteaz zehar ere jaten ematen zuten. Tripakiak, muturrak... "takilloa". Ardo "kuartilloa". Bezeroak: gurdizainak, auzokoak... Ezkontza txikiak eta despedidak ere egiten zituzten.

539. Berrizko limonada lantegia (BRZ-055/024)

Limonada lantegia. Mari Tereren aitaren osabarena zen. Fama ona zuen Berrizko limonadak. Soda. Antoniok gogoan du astoa hartuta botila hutsekin nola joaten zen lantegira. Nortzuk ibili ziren limonada-lantegian beharrean. Gero Eibarrera eraman zuten lantegia.

540. Ama eta izeba Berrizko markesarentzat beharrean (BRZ-055/025)

Mari Tereren ama markesaren sukaldaria izan zen eta izeba haren "señorita de compañía", janzten eta bestelako kontuetan laguntzen ziona. Markesarekin izan zuten harremana. Ezpata-dantzarietara luntxa ordaintzen zien urtean behin. Herriko jendearekin jator portatzen zen. Mari Terek dio Karteruenean denda zegoela eta handik enkarguak eramaten zizkiotela markesari. Etxea barrutik. Markesarentzat lanean ibili zen jendea: sukaldariak, zerbitzariak, lorezaina, txoferra...

541. Markesa Berrizera etortzen zeneko kontuak; harekin harremana (BRZ-055/026)

Markesa udan bakarrik etortzen zen Berrizera euren sasoiaren. Lehenengo langileak etortzen ziren, etxea prest izateko. Langileen logelak. Uniformea erabiltzen zuten. Markesak ez zuen seme-alabarik, baina lobak etortzen ziren. Harremana zuten haiekin. Mari Terek kontatzen du meriendatzera joaten zirela batzuetan eta izebak ondo irakasten zien nola eseri, nola jan...

542. Markesak fama ona Berrizen (BRZ-055/028)

Berrizen inork ez du gaizki hitz egiten markesaren inguruan. Badirudi asko lagundu zuela herrian, bai alderdi batekoei eta bai bestekoei. Gudari batzuei ere lagundu zien kartzelatik irteten; esaterako, Imanol Oruemazagaren aitari.

543. Markesak herriari eman zion laguntza (BRZ-055/030)

Gerra zibila hasi zenean markesak Berrizen zeuden. Senarra Madrilerantzat abiatu zen zer gertatzen ote zen ikustera eta bidean hil egin zuten. Emazteak, kontra egin beharrean, jendeari laguntzea erabaki zuen. Mari Tereren osaba bati ere kartzelatik irteten lagundu zion. Herrian hainbat familiari laguntza ekonomikoa ere eman zien.

544. Asentsio egunean legatza eta bildotsa gonbidatuentzat (BRZ-055/033)

Garai batean jaietan "gonbidautzak" egiten ziren. Emakumeentzat lan handia izaten zen. Orduan ez zegoen hozkailurik eta Antoniok dio joanda dagoela bera Asentsio egunean Durangora legatz bila. Legatza eta bildotsa izaten zen jateko ohikoena. Asentsioak pasa eta gero ardi-larruak erostera etortzen zen Durangoko gizon bat.

545. Berrizko lehenengo ikastola (BRZ-055/038)

Berrizko lehenengo ikastola "Salón parroquial"ean jarri zuten. Gero abadeek kendu egin zieten, komunistak zirela esanda. Itxi zenean, hango ume gehienak orduan sortu zen Durangoko ikastolara eraman zituzten. Milagros Barrueta berriztarra, lehenengo irakaslea.

546. Sarriako eskola Errepublika sasoikoa (BRZ-057/002)

Sarriako eskola Errepublika sasoiari Aldundiak egindako Bizkaiko lehen auzo-eskola izan zen. Lehenengo urtean bera komentuan ibili zen.

547. Lehenengo komentuan eta gero Sarriako eskolan (BRZ-057/004)

6-7 urterekin komentuko eskolan hasi zen mojekin. Baina urtebetez itxi egin zuten eta, nahiz eta gero berriz martxan hasi, Sarriako eskolan hasi zen gero. Maistra oso gogorra zen, jo egiten zuen. Gaztelan egiten zuten eskolan, ikastearren, gaztelan ez zekiten eta. Jesusa Arregi maistra eibartarra, eskola irakasten ona. Lezioak koadernoetan izaten zituzten.

548. Errepublika sasoiari Aldundiak egindako eskolak (BRZ-057/006)

Sarria auzoa. Eskola egin aurretik, bertako umeak komentura, Andikoara edo Garaira joaten ziren eskolara. Errepublika sasoiari Aldundiak egin zuen lehen auzo-eskola izan zen Sarriakoa. Berrizen antzeko eskola gehiago egin zituzten gero (Uriben, esaterako) eta baita beste herrietan ere. Andikoako eskola lehenagokoa zen.

549. Sarriako errotak; Patala (BRZ-057/008)

Sarria auzoko errotak. Patalan "Makinexie" edo turbina zegoen, argindarra egiteko.

550. Arrierrekako errotak; Errotabarrian jaioa (BRZ-057/010)

Sarria auzoko errotak. Errotatxun "makinetxie" zegoen, etxeetara argia emateko. Errotabarria, bere jaiotetxea. Etxea ez zen beraiena eta gerra ostean nagusiak handik irtenarazi zituen, etxea berak behar zuelako. Beste errota batzuk: Bolunzar, Ugarteko errota... Errotetan, Olazarren eta Olabarrin

turbinak zeuden. Anporta eta Ezterripa. Arrierrekak aberastasun handia zuen. Non sortzen zen.

551. Gerra sasoiko bizipenak (BRZ-057/012)

Gerra sasoiaren ez zuten goserik pasa, taloa behintzat izaten zuten eta. Durangoko bonbardaketa ikusi zuen. Anaia nagusia eta koinatua gerran ibili ziren. Bera etxean geratu zen gurasoekin. Koinatua Santoñan preso egon zen.

552. Hildakoari abitua janzen zitzaion (BRZ-057/015)

Norbait hiltzen zenean, komentutik eramaten zen abitua, hildakoari janzteko. Hilketxa oihal beltzarekin forratzen zen. Auzokoek gaubeila egiten zuten. Hiletak Berrizko elizan egiten ziren eta hildakoak lepoan eramaten ziren.

553. Luto sasoiaren igandero meza nagusira (BRZ-057/018)

Elizako jarlekuan zapi zuria eta gainean zapi beltza jartzen zen eta haren gainean argimutilla kandlekin. Igandero meza nagusira joan behar izaten zen, lutoak irauten zuen bitartean.

554. Benito soinu-jotzailea; Erromeria Sarrian; bolatokia (BRZ-057/024)

Benito soinu-jotzailea ibiltzen zen gerraostean erromerian jotzen. Miren umea zenean, Sarrian bertan egiten zen erromeria domeketan. Bolatokia ere bazegoen eta mutil gazteak bertan elkartzen ziren.

555. Haragitara Olakuetara (BRZ-057/027)

Olakuetara gutxitan joaten ziren. Haragitara bai, harategira. Saltzaileak ibiltzen ziren baserrietan. Arrain-saltzaileak kalean ibiltzen ziren, baina normalean ez ziren baserrietara joaten.

556. Areetan neskame; etxejabeak (BRZ-057/029)

Gabon inguruan etxejabeak oilaskoak edo beste gai batzuk ematen zitzaizkion. Miren 22 urtetik 30era Areetan egon zen neskame. Hango nagusiek baserri asko zituzten Zornotza inguruan eta gogoan du astero jasotzen zituztela oilaskoak. Egurra eta baba gorria ere bai. Sei neskame egoten ziren. 100 pezeta irabazten zituen.

557. Hainbat ospakizunen inguruko kontuak (BRZ-057/034)

Santa Ageda eta Eguen zuri, baserriko baserri batzen. Eskolako mutikoak ibiltzen ziren. Gabon zahar egunean egiten ziren bihurrikeriak. Kandelario eguna Andikoako jaia izaten zen. Egun horretan Andikoakoei aureskua eta Sarrikoei atzeskua tokatzen zitzaien; Asentzio egunean, alderantziz. Dantza taldea.

558. Olakuetako etxeak (BRZ-058/003)

Olakuetan lau etxe ziren: Pedro Juanena, Abarketeruena (Esteban Arostegi zen abarketagilea), Pantaleonena (bere aitagarrebaren izenetik datorkio etxeari izena; errota zuen etxeak) eta Ladrilleruena (Niketaren aitak adreiluak zela egiten zituen azaltzen du). Ariznabarretana etxea ere bazegoen.

559. Angel Gaztelurrutia ferratzailea (BRZ-058/004)

Olakuetan ferratokia zegoen; Angel Gaztelurrutia zen ferratzailea. Zela lan egiten zuen azaltzen dute. Abereak sendatzeko erremedioak ematen zituen Angelek. Inazio izeneko bat ere izan zen ferratzailea.

560. San Antonio eta ingurua zelakoak ziren (BRZ-058/005)

Olakueta auzoko argazkiari begira daude. San Antonio zelakoa zen azaltzen dute zehatz. Auzoko etxe berriei eta bideei buruz berba egiten dute. Gorago Txaparrona zegoen eta aurreko aldean palazioa. Forjari eta palazioari buruz berba egiten dute.

561. Palazioa eta ingurua zelakoak ziren (BRZ-058/006)

Palazioaren alde batean farmazia zegoen eta bestean denda. Errepidea egiteko palazioa bota egin zuten; nor bizi izan zen han kontatzen dute. Plazan Renobalesen etxea zegoela diote, eta segidan lehengo Pantaleonena. Eskolak eta frontoia aipatzen dituzte, baita probatokia ere. Berrizko limonada lantegia ere aipatzen dute.

562. Bizikleta eta limonada lantegiak (BRZ-058/010)

Bizikleta lantegia zegoen; ugazabak eibartarrak ziren. Limonada lantegi barruan egonda daude; lorategia zeukaten. Limonada lantegiko jabeak eta bazkideak aipatzen dituzte.

563. Berrizko eskolak (BRZ-058/013)

Zein eskolatan ibili ziren kontatzen dute. Anekdotak bat kontatzen dute, txakurra kartzelan eduki zutenekoa. Olakuetakoa, udaletxekoa, Sarrian, Andikoan, Uriben eta Miotan zeuden eskolak. Hamalau urtera arte ibili ziren. Entziklopediarekin denetarik ikasi zuten.

564. Umetako jolasak (BRZ-058/014)

Sokan, korroka, txirikilan, lapurka, "zelemina"n, tronpan, diabolora, pilotan, palan... ibiltzen ziren olgetan.

565. Denak pobre (BRZ-058/015)

Egunerokoan abarketak eta gomazko zapatak erabiltzen zituzten. Orduan denak pobre ibiltzen ziren. Erregeetan laranja oparitzen zizkieten. Trapuzko panpina handi bat zeukan etxean hitzuketako batek.

566. Nicetaren aita Frantziara ihesi, Karmen Karrantzara (BRZ-058/017)

Nicetaren aita Frantziara joan zen ihesi, heriotza zigorra ezarri ziotelako. Bost urte zituela ezagutu zuen aita. Umeak zirenez, ez dira asko akordatzen. Karrantzara behi eta guzti joan ziren Karmen-eta; bertako udaletxeak egiten zien harrera.

567. Bizikletan, asto gainean eta mando gainean komeriak (BRZ-058/024)

Bizikletan ikasi zuenekoa kontatzen du hitzun batek. Hitzun hori bera, esnedunak astoa lotuta lagatzen zuenean, asto gainean ibiltzen zen; harrapatu zuenean, haserre egin zionez, hurrengo aske laga eta baserrira

bidali zuen astoa. Mando gainean zebilela gertatutakoa pasarte barregarria kontatzen du.

568. Angel Alberdi, aitaita, alkate izandakoa (BRZ-060/005)

Berrizko alkatea izan zen bere aitaita, Angel Alberdi Narbaiza. Baserrietan labaderoak ipini zituen berak. Alkate zela, frontoia egiteko proiektua zeukan baina "behetarrekin" gorabeherak izan zituen.

569. Baserria erre zenekoa (BRZ-060/009)

1941ean baserria erre zenekoa kontatzen du.

570. Lizarra atarian eta gurutzea eta ur bedeinkatua logeletan (BRZ-060/012)

San Juan egunean atarian lizarra ipintzen zuten, san juan loreekin eta larrosekin apainduta. Hurrengo San juanetarako gorde egiten ziren, San Juan bezperan erretzeko. Logeletan gurutzea eta ur bedeinkatua ipintzen ziren.

571. Sukaldeko tresnak (BRZ-060/014)

Errezoak amamak bideratzen zituen. Mahaian ze tresna izaten zituzten kontatzen du: portzelanazko edalontziak, lurrezko platerak... Lapikoak zelakoak ziren kontatzen du.

572. Babak, porruak eta garbantzuak (BRZ-060/015)

Baba lapikoa jaten zuten egunerokoan, azekin. Gaeuz, baba zuriak edo porruak jaten zituzten. Domeketan, berriz, garbantzuak okelarekin. Bilbotik sastrea joaten zen jendeari trajeak egitera.

573. Ama jostuna zen eta umeentzat arropak josten zituen (BRZ-060/016)

Bere ama jostuna zen. Alfa markako josteko makina zeukan. Eibarko denda batekoak oihal txatalak gordetzen zizkion eta umeentzako arropak egiten zituen horiekin. Mutikoen frakek irekidura bat izaten zuten, kaka egiteko. Neskek kulero luzeak izaten zituzten.

574. Doktrina eta mutualitatea (BRZ-060/022)

Doktrina txikia euskaraz egin zuten, baina gerra garaian debekatu egin zuten. Berrizko Felipe Alberdi alkateak jende asko fusilatzeko baimena eman zuela dio. Domeketan doktrina ikastera joaten ziren. Mutualitatea zer zen azaltzen du.

575. Gerra aurretik eskolan euskaraz (BRZ-060/024)

Gerra aurretik euskaraz ikasten zuten; ondoren, berriz, erdaraz. Etxe denetan zegoen moja edo fraideren bat. Eskolako ikasgaiak azaltzen ditu.

576. Dotea eta arreo neska zein mutilentzat (BRZ-060/027)

Dotea ematen zitzaaien etxetik kanpora ezkontzen zirenei. Ehun erreal izaten ziren. Neskei arreo egiten zitzaaien. Mutilek ez bazuten etxea oinordean hartzen, neskek hartzen zuten. Beltzez ezkondu zen bera. Mutilei ere arreo egiten zitzaaien.

577. Beraien ezkontzari buruzkoak (BRZ-060/029)

Pedro Juan jatetxean bere ezkontzako menua zelakoa izan zen azaltzen du. Osaba-izekoak gonbidatzen ziren. Madrilera joan ziren bidaian, hegazkinez.

578. Erromeriko soinujoleak (BRZ-060/030)

Olakuetako erromeriara joaten ziren; gero Durangora joaten hasi ziren, zinemara. Benito eta Txokolo izaten ziren soinujoleak, eibartarrak. Gerran fusilatu zituztenak aipatzen ditu.

579. Herriko lanbide zaharrak (BRZ-060/033)

Trapuzko panpinak, kopinak, izaten zituen. Lanbide zaharrak aipatzen ditu. Hargina nor zen azaltzen du. Sasimedikuengana ezkutuan joan behar izaten ziren.

580. Berrizko baserriak (BRZ-060/034)

Berrizko baserriak izendatzen ditu.

581. Berrizko erroak (BRZ-060/035)

Berrizko erroen izenak esaten ditu. Ogia etxean egiten zuten.

582. Aitaita alkate zela egindako eskolak (BRZ-060/036)

Bere aitaita alkate zela, zazpi eskola eraiki zituzten. Non zeuden azaltzen du.

583. Harreman ona markesarekin (BRZ-060/037)

Markesarekin harreman ona izan zuela dio. Haren alabak Maria Teresa eta Mercedes ziren. Aititari tornuan erakutsi zienaren berri ematen du. Etxea erre zenean, argazki asko galdu zituzten.

584. Markesaren ezkontza (BRZ-060/038)

Markesa, Caro, Berrizen ezkondu zen. Ezkontza ikusgarria izan zela dio. Bere amamaren ahizpa bat neskame egon zen markesarenean. Gerrara garaian, alemaniarrak egon ziren markesarenean eta amak arropak konpondu zizkien. Patakon izeneko bat aipatzen du.

585. Fusilatzetik libratutakoak (BRZ-060/042)

Beraien osaba bat markesarengana joan zen eta haren kontaktu batzuen bitartez, berriztarren fusilamenduak geratzea lortu zuen. Felipe Alberdiri eta Evaristori buruzkoak aipatzen ditu.

586. Garia eta ogia (BRZ-065/004)

Azaroan ereiten zen garia. Garia zela jotzen zuten azaltzen du. Garia kutxan gordetzen zuten. Urterako adina hartzen zen. Zapatuetan labeko sua egiten zuen amak. Prozesua azaltzen du. Labearengatik erre zitzaizen etxea.

587. Errotako harriak eta presa (BRZ-065/005)

Errotan hiru harri zituzten: bat garitarako eta bi artotarako. Orduko berrogeita hamar kilo irin inguru eskuratzen ziren. Presa zelakoa den azaltzen du.

588. Errotako konporta, errotapea eta txifloia (BRZ-065/006)

Konporta eta errotapearen ezaugarriak aipatzen ditu. Txifloia zelakoa den azaltzen du.

589. Errotako turbinak, ardatza, txoria, opila... (BRZ-065/007)

Errotako presioa kontrolatzearena argia ematen dutenen kasuan izango dela azaltzen du. Turbinak, ardatza, txoria, opila eta beste hainbat pieza zelakoak diren azaltzen du.

590. Errotarriak eta tobera (BRZ-065/008)

Errotarriak deskribatzen ditu. Artoa toberatik botatzen da errotarrira. Arranaren orde zela egiten den azaltzen du.

591. Artoa ehotzea (BRZ-065/009)

Artoa eta garia zela ehotzen ziren kontatzen du. Arto berdea eta labetik pasatakoa egoten ziren. Bost kilo artotatik irina lau kilo eskas jasotzen zen.

592. Errotako harriak eta balantza (BRZ-065/011)

Harriak neurritz berdinak izaten ziren; oso astunak. Harria pikatu egiten zuten tarteka, bufardarekin. Astoei zestoak ipinita ekartzen zuten baserritarren artoa. Hamar kilotik bat hartzen zuten errotariek. Balantza erabiltzen zuten pisatzeko.

593. Errota: orbela kendu beharra (BRZ-065/013)

Ur gutxi zegoenean, zaindu egin behar izaten zen errota. Orbela kentzera jendea etortzen zen laguntzera; basozainari baimena eskatu behar izaten zioten.

594. Erroten gainbehera (BRZ-065/014)

Aita bizargina zen, erroteria izateaz gain. Eroten gainbehera noiz eta zergatik gertatu zen kontatzen du.

595. Baserriko tresnak (BRZ-067/022)

Belarra sabaian gordetzen zuten. Ortu denetarik izan dute. Laiekin ibiltzen ziren garai batean, urtean behin. Lurra lantzeko tresnak aipatzen dituzte. Igitai desberdinak egoten ziren: luzeagoa, haginduna eta borobilagoa.

596. Andabideak (BRZ-067/028)

Andabideak nondik nora zihoazen azaltzen dute. Gorpua garbitu eta ezkondu zeneko trajea janzen zitzaion. Auzoko guztiek egiten zuten gaubela.

597. Andikoako Dantzari-dantza; dantzari eta txistulariak (BRZ-068/003)

Ume-umetatik hasi ziren dantzan. Lehenengo Andikoako Dantzari-dantzan. Txistulariak. Aurreko dantzariak: euren aita, Agirrebeitatarrak... Patxiko txistulariak aukeratzen zituen dantzariak eta ez zekienari irakatsi ere bai. Aspalditik zetorren dantzarako ohitura.

598. San Antonioetan dantza-txapelketa (BRZ-068/004)

Dantza-txapelketetan ibiltzen ziren. Euren kontura ikasi zuten dantzan. Matildek fonografoarekin jarduten zuen dantzan. San Antonioetan egiten zen dantza-txapelketa. Gogoan du behin elurte handiarekin dantza egin zutela.

599. Garai batean nesken dantza-talderik ez (BRZ-068/007)

Berrizko dantza zaharrak. Orduan ez zegoen nesken talderik; gerora hasi zen. Hilario Zaldibarren ibili zen bi urtez dantzak irakasten eta lau talde izan zituen: bi neskenak eta bi mutilenak. Matildek dio lagun batek eta biak aurreskuaren eta atzeskuaren urratsak ikasi zituztela. Etxe batetik sei anaia dantzari.

600. Ezkontza eguneko zapiak; alargunei arrana (BRZ-068/009)

Ezkontza egunean emakumezkoari zapi bat jartzen zitzaion buruan eta gizonezkoari lepoan. Ezkondu ostean elizan kendu egiten zizkieten eta bertan gordetzen ziren. Alargunen bat ezkontzen baldin bazen, bezperan auzokoek arrana jotzen zuten haren etxean. Neskazaharrak eta mutilzaharrak Abadinora.

601. Garai bateko despedidak (BRZ-068/011)

Despedida handiak egiten ziren, neskak neskekin eta mutilak mutilekin. Mutilek tabernan afaria egiten zuten, Karteruenean, Ganekoetxen, Pedrojuanenean... Neskek etxean merienda: txokolatea, gailetak... Ezkontzen zenari oparia egiten zitzaion.

602. Patxik eta Nikolasak egiten zituzten abarketak (BRZ-068/016)

Errotetako Patxik eta Nikolasak egiten zituzten abarketak. Zentrala zaintzeko ardura zuten. Gero Pantaleonek saltzen zituen.

603. Behien inguruko azalpenak (BRZ-068/023)

Era guztietako behiak eduki zituzten etxean. Zeintzuk ziren esnetarako eta haragitarako onenak. Lehen bertakoak izaten ziren. Kanpora ateratzeko, txintzarriak jartzen zitzaizkien. Etxeratutakoan, kendu eta jaso. Maiatzean botatzen ziren larrera behiak. Bakoitzak bere izena izaten zuen. Azokan erosten ziren; inguruko azokak. Ardi eta ahuntzak ere izan zituzten etxean. Zaldi bat ere bai behin.

604. Otzara, asto-sillak, mantarra, albarda... (BRZ-068/024)

Gurdiak nolakoak izaten ziren. Asto-karroa. Otzarak, kantinek eramateko. Egurrezko asto-sillak belarra eta beste gai batzuk eramateko. Mantarra, "albardie", "zinttie". Garai batean astoei burukoa jartzen zitzaien.

605. Laietan nola egiten zen; baserriko tresnak (BRZ-068/029)

Laietan nola egiten zuten. Zohia. Auzorik auzo egiten zen, elkarri lagunduta. Goldea. Kodainak. Igitaiak. Eskuarea. Sardea. Lau-hortza. Aitzur ezberdinak. Bakoitza zertarako izaten zen. Errementariak egiten zituen.

606. Kobrezko galdarak; lixiba (BRZ-068/030)

Kobrezko galdarak egiten ziren Bernan. Ura berotzeko izaten ziren galdarak. Lixiba-ontzia. Lixiba-harria errekan. Sukaldean lurrezko lapikoak.

607. Berrizko erroten izenak eta laba-sua (BRZ-070/006)

Berrizko erroten izenak esaten dituzte. Laba-sua zela egiten zen azaltzen dute; ogia eta arto-ogia zela egiten zen ere bai.

608. Errituak (BRZ-070/014)

Etxea babesteko errituak: San Juan egunean lizarra ipintzen zuten san Juan lorearekin eta lurrean ira edo garoa zabaltzen zen. Gabonetan ogiari koskorra ebaki, mun egin eta gari-arkan gordetzen zen; bedeinkatutakoa ez zen lizuntzen baina bestea bai. Teilatu berria egindakoan, monttorra egiten zen. Ekaitzak jotakoan, sukaldean kandela pizten zen, Kandelaria egunean bedeinkatutakoa, etxea babesteko.

609. Komentuan egin zituen lehen ikasketak (BRZ-073/010)

4 urte zituela hasi zen komentuan eskolak hartzen. Neskak baino ez ziren joaten bertara; mutilak eta gainerako neskatilak herriko eskolara joaten ziren. Moja bat baino gehiago zuten irakasgaiak emateko. Oroitzapen onak ditu. Bazeuden inguruko herrietatik etortzen ziren ikasleak ere; alargun baten etxean bazkaltzen zuten haiek.

610. "Anilloa" jasotzen zuten euskaraz hitz egiteagatik (BRZ-073/011)

Euskaraz hitz egiteagatik zigor moduan "anilloa" jartzen zieten mojek. Euskaldunak ziren mojek berdin zigortzen zituzten. Eskolan hasi zenean ez zekien gazteleraz hitz egiten Gloriak.

611. Amak ekarri zuen errepublikaren albistearen etxera (BRZ-073/013)

14 urte bete zituenera arte egon zen Gloria eskolan. Etxean, umezain zegoen errepublika aldarrikatu zenean. Eibarko azokara bidean zen ama baina buelta egin eta etxera itzuli zen egun hartan. Berak ekarri zuen albistearen etxera.

612. Errepublika garaiko lehen hauteskundeetako liskarra (BRZ-073/016)

Errepublika aldarrikatzearekin batera hauteskundeak egon zirela gogoan dauka. Liskar handiak egon ziren goitarren eta behetarren artean. Zinegotziak izendatzen dituzte. Beheko parteko Felipe Urtiaga izendatu zuten alkate.

613. Oso estimatua zen Don Esteban (BRZ-073/018)

Batzokia oroitzen du naiz eta ez zen asko joan bertara. San Lorenzoko Errementarian kokatzen zen. Parrokia-etxean, Don Estebanekin "mutuka" (mimika) egiten zituzten antzezlanek dirau. "Culto y clero"-z arduratzen zen abade hura. Haurrek asko estimatzen zuten.

614. Neskame Bilbon (BRZ-073/019)

Bilbon zegoen neskame gerra hasi zenean. Beldurrak etxera itzularazi zuen. Neskame egon zen garaiaz oroitzapen politikak gordetzen ditu. Bost arreba

ezkongabe zituen erregezale baten etxean egon zen; alaba bezala hartu zuela dio.

615. Gerra zibilaren hasiera (BRZ-073/020)

Gerra hasi bezperan, neskame zegoen etxeko nagusiaren sendiak Gernikara ihes egin zuenean, etxera itzuli zen Gloria. Gipuzkoatik zetozen iheslariz bete zen Berriz lehen egunetan. Nazionalak sartu ostean jarri omen zuten babeslekua mojetan, ez aurretik. Markesen etxean kuartela egon zen, bere ustez, alemanena.

616. Derrigortuta joan zen anaia frontera (BRZ-073/021)

Hasiera batean ihes egin zuen arren, derrigortuta eraman zuten azkenean anaia frontera. Arana-goiri batailoian ibili zen Emilio lagunarekin batera. Laredoko hondartzan denbora luzez egon zela gogoan dauka. Gerra amaituta, soldaduska egin behar izan zuen. Orotara, 6 urte pasa zituen etxetik kanpora.

617. Anaiaren gerra garaiko istorioak (BRZ-073/023)

Anaiak kontatzen zizkion gerrako istorioak: zauritutako lagun mila zaintzen geratu zenekoa edo, ihes eginda, Don Pablorengana konfesatzera etorri zenekoa.

618. Soldadu zauritu eta hildakoak gurdietan eramate zituzten (BRZ-073/025)

Berrizera tropak nondik sartu ziren eta etxe ondotik pasatu ziren. Soldadu euskaldun batzuk izan zituzten etxean. Zaurituak komentura nola eramaten zituzten gogoratzen da. Peña Lemona.

619. Eibarko familien zilarrezko aparatuak garbitzen zituzten (BRZ-073/030)

Ama Eibarrera joaten zen baserriko produktuak saltzera. Gerran hondatutako zilarra etxera eramaten zuen, bertan garbitu eta jabeei bueltatzeko.

620. Durangoko bonbardaketa Berriztik entzun zen (BRZ-073/031)

Durangoko bonbardaketako zarata gogoratzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-05-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com